

Goienkaria

2007ko martxoaren 9a > Egubakoitza > VII. urtea > 279. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Brasilen ere
oso
latindarrak
gara eta
matxismoa
da nagusi"

Patricia Leazer
Mundukideko
Truke programa > 09



G2a

Ibarreko bertso
eskolak, hitzekin
jolasean > 43

DEBAGOIENA

Ibarreko 17 enpresa Ferroforma
azokan, BECen > 06

OÑATI

Txantxiku ikastolaren 40.
urteurrena da aurten > 05

KIROLA

Itoitz Armendariz, Mushingeko
Munduko Txapelketan > 41

ETXEBIZITZA > BIZIGUNE

Hutsik diren etxeen errolda

Etxebizitzaren
arazoari irtenbidea
ematea da
helburua > 04

MENDIA > ANTZUOLA

Mendizale gaztetxoan martxa

600 bat neska-
mutiko elkartuko
dira domekako
Mendi Martxan > 36

KIROLA > PILOTA

Aspek Bergaran segiko du

Bergarako Udalak eta Aspe
pilota enpresak hitzarmen
berria sinatu zuten eguazte-
nean. 2007an gutxienez 15 pilo-
ta jaialdi antolatzeko konpro-
misoa hartu du Aspe enpre-
sak. Aspeko arduradunak
pozik azaldu dira azken urte-
otan Bergaran jasotako eran-
tzunarekin. > 28

AZPIEGITURAK > HAINBAT PROIEKTU MARTXAN DEBAGOIENEAN

Inoiz baino traba gehiago dago ibarreko obrak direla eta

KAMIOI UGARI AP-1

autobideko lanek sortzen dute
enbarazu handiena ibarreko
hainbat puntutan

LANAK Momentuan Arrasaten,

Aretxabaletan eta Eskoriatzan
batzen dira lan handienak;
errepidean eragina du horrek

ETORKIZUNA Epe laburrean

beste azpiegitura batzuk abian
jarriko dituzte, Debagoieneko
tranbia tartean > 02-03



ARAZOAK Ekaitzak ur putzu handiak sortu ditu ibarreko errepideetan. Argazkian, bi auto Elorregin, atzo eguerdian.

XABIER URTZELAI

1983tik gaur arteko egunik euritsuenak

1988ko uztailak 19	137 l/m ²
1983ko abuztuak 26	133 l/m ²
1993ko apirilak 25	101 l/m ²
1993ko abenduak 25	100 l/m ²
1991ko martxoak 24	98 l/m ²
2007ko martxoak 7	94 l/m ²

Domeka eguzkitsuaren ondoren, haizeteak eta ekaitzak protagonista

Aspaldiko euri jasa handiena izan zen
eguaztenekoa: 94 l/m²-ko jaso ziren ibarre-
an, 1991 ezkerok izan dugun euri kopuru han-
diena, hain zuten. Haize bortitza eta ekai-
tza izan ziren nagusi egunean zehar. Hain-
bat kalte egin zituen eguraldi txarrak.

Horrez gain, ibarreko zenbait tokitan argin-
dar barik geratu ziren eguaztenetik egue-
nera eta errepidean ere arazo ugari izan
ziren ur putzu handiengatik. Luis Mari Agi-
rrek eman dizkigu azken urteotako euri jasa
aipagarrienak. > 07

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

IPARRAGIRRE
SAGARDOTEGIA

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gaez zabalik, zapatu eguerdian ere bai

www.iparragirre.com

Arrizuri 7 / BERGARA / Tel.: 943 76 25 91 • Zarugalde 25 / ARRASATE / Tel.: 943 77 18 35

Kalitatezko ametsak

bede[®]

Koitxoak dendak

Atsedeneren garrantzia

Hilabete honetan akaroen kontrako produktueta deskontuak



URA BOTATZEN Obratako kamioia hautsez beteta dagoen errepidean ura botatzen, Aretxabaleta eta Arrasate batzen dituen GI-627 errepide zati arriskutsuan.

XABIER URTZELAI

AZPIEGITURAK > LANAK IBARREAN

Obra guztiak batera; inoiz baino enbarazu handiagoa

KAMIOI UGARI AP-1 autobideko lanek sortzen dute enbarazu handiena, kamioi ugari dago-eta obra horretan. Inoiz baino hauts gehiago dago, eta euria egiten duenean lokatza

HAINBAT ERREPIDE, TXARTO GI-627 errepideko Arrasate eta Aretxabaleta arteko zatia dago egoera okerrean. Gauean, eta euria egin badu, oso tramu arriskutsua da hori

LUZERA BEGIRA Egoera horrek ez du epe motzean hobera egingo, beste azpiegitura batzuk egitea aurreikusten dute-eta: AHT, Olandixoko tunela eta tranbia, besteak beste

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Urteak eman ditu Debagoienak Gipuzkoan ahaztuta egon den lurraldea dela esaten, azpiegitura nagusiak Donostia aldean egin izan direla salatzen. Hori horrela, ibarreko egungo egoera txanponaren beste aldean dago. Ibarrean, eta Leintz aldean batez ere, inoiz baino obratako kamioi gehiago dabil aurrera eta atzera lanean. Bide bazterren egoerak eta airean dagoen hautsak erakusten dute hori ondo. Bestela, errepidean dabilen edozein autori begiratu baino ez dago, eta zein matrikula duen asmatzen ahalegindu. Lan horiek zeintzuk diren, ze iraupen izango duten eta etorriko diren obra gehiagoren zerrenda egin dugu. Izan pazientzia, egoerak ez du-eta goizetik gauera hobera egingo.

LANAK HERRIZ HERRI
Izan ere, Debagoieneko herri askotan etxebizitzak egiten badabiltza ere, lan handienak Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoria-

tzan batzen dira. Hain zuzen, Bergaran Mekolaldeko araztegi-ko lanak salbuespen hartuta, Eloregetik gora egoerak nabarmen egiten du okerrera.

Ibarreko obren amaiera epea

	AMAIERA
AP-1 autobidea	2008ko urtarrila
Apotzagaetxebarriko etxeak	2010eko urtarrila
Kobate harrobia	2051
Kanpanzar harrobia	2019
San Josepeko harrobia	AP-1 autobideko lanekin batera
Garaia Berrikuntza Gunea	Faseka egingo dute, luzerako
Mojategiko kiroldegia	2007ko maiatza
Epeleko araztegia	2011
Olandixoko tunela	Zehazteke
Mekolaldeko (Bergara) araztegia	2007ko ekaina
Abiadura Handiko Trena	Zehazteke
Tranbia (Bergara-Aretxabaleta)	2010

Eskoriatzan hainbat lekutan dabilta etxebizitzak egiten, baina Leintz osoan moduan, AP-1 autobideko lanek sortzen dituzte eragozpen handienak. Hala, Maringo auzoan hasi eta Epele-raino (Arrasate) kamioien joan-etorria etengabea da. Autobidearekin batera, baina, ondorengo lanak ere kontuan hartu behar dira: Aretxabaletan, Apotzagaetxebarriko zelaigunean dabilta autobideko eta etxebizitza berrietako lanak batera egiten. Hala, Untzillara egiten duen bidea gero-ago eta okerrago dago, kamioiek Gellaora eramaten dute-eta lurra. Aretxabaletan jarraituta, Otalora kalea berritzen dabilta, eta horrek ere ez du herri barruan dabilta kamioien joan-etorrian askorik laguntzen; kale osoa dago hankaz gora.

Arrasateren kasuan, asmatu egin behar da nondik hasi: Kanpanzar, Kobate eta San Josepeko harrobietan lanean dihardute; Garagartzara bidean, ez dute askorik behar Ederlango pabiloi berria amaitzeko, eta Urribarrin, Garaiko etxebizitzak amaitzearekin batera, ondorengo lanek luze joko dute. Horrekin batera, herriaren erdigunean aurrera doaz Zerrajerako eta Gelmako etxebizitzak, maiatzean inauguratuko dute Mojategiko kiroldegia, eta dagoeneko hasi dituzte Epeleko araztegi-ko lanak. Horri guztiari gehitu behar zaio herriaren gainetik doan autobide-lana.

ERREPIDEAK, TXARTO
Horrenbeste obrak zuzeneko eragina dute inguruko errepideetan. Eta, errepide bazterrean

batzen den hauts –lokatz euria egiten duenean– eta harri mordoia da erakusle garbiena. Gatzagako errepide zaharrean, Apotzagan, Untzillarako bidean, Uribe auzoan, Garagartzara bidean dagoen zuzengunean... Dena dela, GI-627 errepideko Arrasate eta Aretxabaleta arteko tartea dago okerraren. Zati horretan, autobideak errepide gurutzatuko du goitik, zurbia eginda. Egia da errepide zati hori lehen ere ez zegoela batere ondo, eta orain negargarri dago, baita arriskutsu ere. Euririk egiten ez duenean hautsak enbarazu egiten du, baina errepidea bustita dagoenean are eta okerragoa da, zorua oso labainkor egoten da eta. Adibide moduan esan behar da zikloturista askok saihebidia –batere segurua ez dena– erabiltzen dutela Eskoriatzatik Arrasatera joateko; lehen ez zen horrelakorik ikusten.

Errepidean batzen den hauts, harri eta lokatza ekiditeko, garraiolarien Hiru sindikatuek esan digute lurra eramaten duten kamioiek obratik irteterakoan, legez, ez dutela inongo neurrik hartu behar. Dena dela, beste leku batzuetan errepidera irteten aurretik kamioien gurrupilak garbitzen dituzte: "Leku batzuetan hodi malguekin ibiltzen dira obra inguruko errepidea garbitzen, baina horretara ere ez daude derrigortuta. Gertatu izan da kamioi batek jaurtitako harriagatik auto bateko kristala haustea, eta askotan, horrelako salaketak ekiditearren ibiltzen dira errepidea bustitzen, baita hauts askorik ez altxatzeko ere. Baina hori ez dago araututa".

AIREKO KUTSADURA

Bada, lan horiek guztiek airearen kalitate nabarmen eragiten badute ere, esan beharrik ez dago obra barik ere Debagoienan kalitate txarreko airea dugula. Oraindik ez dituzte 2006ko datuak publiko egin, baina 2003tik aurrera Arrasateko Laubide plazan dagoen airearen kalitatearen neurgailuak urterotertero datu ezkorragoak erakutsi ditu. Hala, airean dauden partikulak kopuruari dagokionez, 2004an 44 egunean gainditu zen Eusko Jaurlaritzak zehaztutako gehienezko muga –urteko 33 egunean dago muga hori–, eta 2005ean 73 egunean. Orduan,

"Kamioilariak obratik irten behar direnean ez daude gurrupilak garbitzera derrigortuta"

Obrak ez dira airearen kalitate txarraren erantzule bakarrak; kutsaduraren %40 autoek sortzen dute

baina, hasteke zeuden, besteak beste, AP-1 autobideko lanak; ikusi egin beharko da joan den urteko datuek zer dioten. Datu horiek laster emango dituzte aditzera.

Esandako moduan, baina, obrak ez dira airearen kalitate txarraren erantzule bakarrak, ezta gutxiago ere, kutsaduraren %40 baino gehiago automobilen sortzen dute-eta. Hala, neurketak egiteko orduan, Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailetik esan digute emaitzak eguraldiaren arabera izaten direla. Jakinekua da euririk on egiten diola aireko kalitateari, airean dauden partikulak lurrera eramaten ditu-eta. Baina haizeak iparretik edo hegotik jotzen duenean alde handia egoten da. Hala, hego haizea dabilenean kutsadu-

ra datuek gora egiten dute; hori horrela, litekeena da 2006ko azken hilabeteetan izandako eguraldi lehorrak datu esanguratsuak erakustea.

EGITEKE DAUDEN LANAK

Lehen ere esan dugu epe motzean egoera horrek ez duela hoberea egingo, lanok amaituta ere ibarrean hainbat azpiegitura egitea aurreikusten dutelako. Hortxe daude Abiadura Handiko Trena –dagoeneko ibarreko hiru tramu esleitu dituzte, eta beste bi tramuren gainean eskaintza egin dute–, Olandixoko tunela –obrak esleitzeko behin betiko proiektua aurkezteko zain daude– eta tranbia –lanak hasi ez badituzte ere, 2010erako gura dute Bergara-Aretxabaleta tramua amaitu–.



LANAK BATERA Hondeatzeko makinak Apotzagaetxebarrin; etxe horien gainkaldetik igaroko da autobidea.

XABIER URTZELAI



GOIENKARIA

Joxe Miguel Landa > Zikloturista

"Askok Aramaio aldera egiten dugu; hemen ezin da ibili"

X.U. > ARETXABALETA

Zikloturistek dakite ondoen zelandaude inguruko errepideak. Hori dela eta, Debagoiena Zikloturista Taldeko kide Joxe Miguel Landarengana jo dugu. Urtero 15.000 kilometro inguru egiten ditu bizikleta gainean; horietako asko ibarreko errepideetan.

Zikloturistok zer diozue errepideen egoeraren gainean?

Azken urteotan nabarmen egin dutela txarrera: zuloak, zikintasuna, kamioi mordoia... Eroskiko biribilgunitetik gora penagarri daude errepide guztiak. Bai saihebidia, bai Mugarriko zuzengunea, Arrasate-Aretxabaleta tartea... Errepideak zuloz beteta daude, eta bide bazterrek harriz eta zikintasunez beteta.

Eta, zer egiten duzue?

Ahal den neurrian, kanpora joan. Bestela, hemen ibili behar dugunean, gehienok Aramaio aldera jotzen dugu, Garagartzatik aurrera nahiko ondo dago-eta. Bestela, Oñati aldera, Osintxura... Eskoriatzara joan-etorria egiteko, adibidez, saihebidia erabiltzen dugu geroago eta gehiago, baina hori ere ez da konponbide ona, sekulako zirkulazioa egoten da-eta hor. Aste bukaeran zirkulazio txikiagoa egoten da, eta orduan ibiltzen gara hobeto.

Zein izan daiteke konponbidea?

Obretan dabiltean bitartean, gutxienez, bide bazterrek garbitu egin beharko lituzkete, eta bertan batzen den lurra eta harria kendu. Ikustekoa izaten da itzuli bat egin eta gero bizikletak zelanda geratzen diren; bizikletako koadroan hormigoia itsatsita daukagula irlsten gara etxera.

Kamioi batzuk ibiltzen dira errepideak garbitzeko ura botatzen, ala?

Bai, baina errepideak garbitu egin beharrean, lokatzez betetzen dute dena. Errepideak garbitzeko, aldeetara bota behar da ura, eta prezioz. Nik ikusi ditudanak, baina, ur mordoia botatzen dute atzera, putzuak egin arte, baina ez dakit horrek zenbat garbituko duen. Hori ez da konponbide onena izaten.

Victor Blazquez > Citroen Chapime tailerreko salmenta arduraduna

"Hautsarekin behe-laino modukoa sortzen da hemen"

X.U. > ARRASATE

San Andrez auzoan, Mugarriko zuzengunean dauden auto kontzesionarioak ez daude obrekin batere pozik, leku horretan sortzen den hautsak enbarazu handia egiten die-eta. Chapime dago obretatik gertuen.

Kamioi erretratuak ateratzen ibili izan zarete.

Horrela da, bai. Kamioiek gure tailerren atzean dagoen hondakindegira eramaten dituzte autobideko lurrak, eta egiten dituzten zirkulazio arau-haustek salatzeko erretratuak ateratzen hasi ginen. Hala, orain kamioi gutxiago badabil ere, orain dela hilabete gutxi 30 segundoko kamioi bat igarotzen zen hemendik. Hori horrela, ikustekoa da zelako hautsa sortzen den hemen.

Zelan eragin dizue horrek?

Desatsegina da, eta ekonomikoki ere eragina du. Kanpoan erakusgai ditugun autoak negargarri egoten dira eta behin eta berriro garbitu behar izaten ditugu; pentsa, hautsa eraikin barrura ere sartzen da, eta bezeroen autoak ere garbitzen ibiltzen gara. Eraikina margotzeko aurrekontua ere eskatu dugu. Egoten den hautsarekin behe-laino modukoa sortzen da hemen.

Egin duzue protesta ahaleginik?

Bai; besteak beste, hondakindegira joateko errepidearen egoera salatu gura izan dugu. Arrasateko Udaletik Aretxabaletara bidali gaituzte, eta alderantziz.



X.U.

ETXEBIZITZA > EUSKO JAURLARITZAK HUTSIK DAUDEN ETXEEN ERROLDA EGITEKO ETA NEURRI FISKALAK APLIKATZEKO ESKATU DIE IBARREKO ZAZPI UDALI

Bizigunek 'Hutsik duzun etxea bizitzaz bete' kanpaina abiarazi du asteon

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren kanpaina hasi du Eusko Jaurlaritzak: hain zuzen, herritarrak informatu eta udalek neurriak hartzea gura dute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bizigune programari bultzada emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak kanpaina bat jarri du abian aste honetan. *Hutsik duzun etxea bizitzaz bete* da haren leloa.

Kanpaina ibarrera iritsiko da. Martxoaren 26an autobus telematikoa hartuko du Bergarak eta bi egun geroago, Arrasatek.

ZALANTZAK ARGITU

Biziguneri buruz informatu eta herritarren zalantzak argituko dituzte; horrez gain, publizitatea eta triptikoak banatuko dituzte.

Etxebizitzaren arazoan eragile guztiak inplikatu nahi ditu.



BIZIGUNE Bergarakoa Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatuta duen ibarreko udaletako bat da, Bizigune dela-eta. M.B.

Etxebizitza Sailak hitzarmena duen ibarreko zazpi udalei laguntza eskatu die: Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Oñati, Eskoria-

tza, Antzuola eta Elgetari. Etxe hutsen errolda egitea eta neurri fiskalak aplikatzea eskatu die. Azken honen harira, Biziguneko

etxe hutsei lizentzietan eta Ondasun Higiezinaren Zergan hobariak izatea eskatu du. Etxebizitza horiek mobilizatzea da helburua.

ETXE HUTSEN KOPURUA

> ARRASATE

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, 2004an 300 bat etxe huts zeuden udalerrian.

> BERGARA

2005ean Bergarako udalerrian 750 etxebizitza inguru zeuden hutsik (EIN).

> ARETXABALETA

179 etxebizitza hutsik daudela uste du Estatistikako Institutu Nazionalak.

> ESKORITZA

450 etxetik gora zeuden hutsik iaz, Udalak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin Bizigune programa sinatu zuenean (EIN).

> OÑATI

200 zeuden hutsik 2005ean (EIN).

> ANTZUOLA

Udaleko erroldaren arabera, kopurua 141 izan daiteke.

> ELGETA

100 bat etxe huts daude (EIN).


Lacetti 1.4 SE 16 v 5 URTEKO BERMEA

SARRERA KUOTA BARIK
60€/hilean-lehen urtean
138€/hilean - 108 alditan
Prever Plana bane. UTB: %6,72



HOLAKO BALDINTZEKIN, IRAGARKIAN LEKUA GERATZEN ZAIGU.

Erabili leku hau "Hiru lerroka" jolasean jarduteko.



Chevrolet Lacetti

Giauto

EIBAR
Otaola, 27
943 202 500

OLABERRIA
Karobi Ind.
943 885 150

www.chevrolet.es

salmentak: 902 345 225

tailerra: 902 345 235

www.giauto.es

clientes@giauto.es

Chevrolet es más.



CHEVROLET

Lacetti modelo 1.4 SE 16 v (ez dator bat iragarkiko modeloarekin) Salneurria: 11.524 € (Prever Plana eta promozioak bane) Kuotak: 1etik 12ra 60 € eta 13tik 120ra 138 €. Finantzatutako zenbatekoa: 15.912,10 €. TIN: %6. UTB: %6,72. Irekitze komisioa: %2,5 (288,10 €). Eskaintza hau ez da metagarria beste promozio batzuetarako. 2007/03/31 arte baliagarria Penintsula eta Balear Uharteetarako. Finantzaketa: Finanza Banco de Credito SA. RBE: 07/MAR. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7.1-808. CO2 emisioa (g/km): 171-210. Garantia: 3 urte edo 100.000 km. 2003/23ko Garantien Legea beteaz eta 2 urte Chevrolet 5 Zerbitzuaren kontratuaren baldintzak beteaz.

KALE ERASOA

Familiak eskatu du biktima izatea

Ambrosio Fernandez joan den zapatuan hil zen, Txagorritxu Ospitalean

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Jokin Zaitegi kalean La Cai-xak duen bulegoaren kontra-ko erasoaren ondotik ospitaleratu zuten Fernandez, arnas arazoengatik. Aurrez gaixotasun larriak izandakoa zen gizonezkoa eta urtarrilaren 5eko gertakariak ez zioten onik egin.

Erasoa gertatu zenean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzakoa haren familiarekin harremanetan ipini ziren, eta zubi-lanak egin zituzten Fernandez terrorismoaren biktima izendatzeko Barne Ministeriora beharrezko dokumentuak bidaliz.

ESPEDIENTEA ZABALIK

Espedientea zabalik dago eta azterketak egiten dabilta orain. Bien bitartean, Auzitegi Nazionalak Fernandez mediku-txostena eskatu du erasoaren eta heriotzaren arteko erlazioa egiaztatzeko.

Biktimaren terrorismoa izendatzeko eskariak baiezko erantzuna jasotzen badu, Fernandez sendiak indemnitzazioak jasoko ditu.

Gainerako bizilagunei dagokienez, jasandako kalte materialak gestionatzen ari dira. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko die kalteen zatirik handiena eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzatik jasoko dute gainerakoa.

18/98+ > ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ALDE

Bilboko manifestaziora joateko deia ibarreko 18/98+ taldeak

La Casillatik irtengo da manifestazioa bihar, zapatua, 17:00etan

Lau debagoiendar epaitu dituzte bukatzean dagoen makro-epaiketan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Debagoieneko 18/98+ taldeak Bilbon zapatuan egingo duten manifestaziora joateko deia egin du. Maite Aristegi taldeko bozeramaileak prentsaurrekoan esan duen moduan, "epaiketa hori fikziozkoa da; frogatuta gelditu da ez duela ez bururik ez hankarik. Horrela, herritarrei dei egin nahi diegu adierazteko epaiketa horrek sortutako kezka".



DEIALDIA Ibarreko gizarteko eragileetako kideek egin zute deialdia eguazteneko prentsaurrekoan.

O.E.

BUKATZEAN

Jarrai-Haika-Segi epaiketak sortutako kezka areagotu egin zela hasi zen lanean ibarreko

18/98+ taldea, duela urte eta erdi. "Ordutik hona ikusi dugu irregularitasunak, epailearen partzialtasunik eza eta eskubide

urraketak izan direla epaiketan, besteak beste", esan du Maite Aristegik. 16 hilabeteren ostean, datozen egunetan amaituko da.

OSPAKIZUNA > EKITALDI ASKO ANTOLATU DITUZTE

Txantxiku ikastolak 40 urte bete ditu

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Oñatiko Txantxiku ikastolak 40 urte bete ditu aurten. 1967an sortu zuten, baimenik gabe eta Elizaren babesarekin. Kale Zaharrean izan zuen lehen egoitza eta 3 urteko 28 ikaslerekin hasi zen han Eli Igartzabal eskolak ematen. Harrezkero makina bat egoitza

izan du. Gaur egun, 0 eta 18 urte arteko 761 ikasle, 72 langile eta 500 bat familiak eta 155 laguntzailek osatzen dute Txantxiku ikastola. Bada, 40. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte: ikasle ohien eguna eta 40 urteak laburtzen dituen argazki erakusketa, besteak beste.



URTEURRENA Iturrospe, Agirre eta Zubia, aurkezpenean.

O.E.

Edozein premiarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D)
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetrizia
- Nerabazaroko ginekologia

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG

**CONSULTORIO
GINECOLOGICO**



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18**

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



> AHT

AHTren aurkako kale agerraldiak gaur biribilguneetan

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak deituta kale agerraldiak egingo dituzte biribilguneetan gaur, egubakoitza, Debagoienean, *Abiadura Handiko Trenik Ez* lelopean.

Arrasaten, Arbolapetan egingo dute agerraldia; Aretxabaletan, Eskoriatzako bidean, Ederlan pareko biribilgunean; eta Bergaran, Labegaraletako biribilgunean, Arrasaterako irteeran. 17:45etik 18:30era izango dira hiru kale agerraldiak.

Eusko Jaurlaritzak eta Sustapen Ministerioak "eramaten duten politika inposatzailea salatzeko eta herriak erabakiak hartzeko duen eskubidea gogoraraztea" da mobilizazioen helburua.

> KORRIKA

Martxoaren 20ra arte dago kilometroak erosteko aukera

Martxoaren 23an iritsiko da gurera Korrika; Gatzagatik sartuko zaigu Debagoienean, 23:35ean. Eskoriatza (00:00), Aretxabaleta (00:42) eta Arrasate (00:59) zeharkatuko ditu; 01:51n iritsiko dira arrasatearrak Elorregira eta hantxe oñatiarrek hartuko dute lekukoa; 03:23an legazpiarrei emango diete lekukoa, Udana gainean.

Domeka goizean sartuko da berriro Korrika gurean, Antzuolan, hain zuzen ere; 06:31n iritsiko da Deskarga gainera; antzuolarrek 07:10ean emango diete lekukoa bergararrei.

Oraindik, martxoaren 20ra arte badago kilometroak erosteko aukera, 943 77 03 69 telefono zenbakira deituta.

> SUTEA

Arrasateko Erguin auzoko etxebizitza baten sutea izan zen

Atzo, eguna, sutea izan zen Arrasate Erguin auzoko etxebizitza baten; 10:00ak aldera gertatu zen ezbeharra Erguinen.

Komunean lanak egiten dabilta. Poliespana jarri dute, eta, lanean zebiltzala, poliespanak su hartu zuen. Langileetako bat beheko dendara jaitsi zen abisua ematera; dendaria eta bi bezero zeuden dendan, eta hirurak irten ziren. Sabai zati bat erori zen, baina ez zuen inor azpian harrapatu.

Ertzainak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria eta udaltzainak joan ziren Erguingo etxebizitzara; suhiltzaileek berehala itzali zuten sua eta ez zen inor zauritu.

ENPRESAK > ORAINTXE HASI DIRA KUNSHANGO INDUSTRIALDEAN LANEAN

MCCk lau enpresa zabaldu ditu Txinan, Kushan-go industrialdean

Wingroup-Dikar, Orbea, Orkli eta Oiarso enpresak kokatu dituzte Kunshanen

Enpresa horiez gain, baserri eder bat egin dute, bilerak egiteko eta gerentziarendako

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

MCCren lau enpresaren Txinako filialak lanean hasi berri dira: Wingroup-Dikar, Orbea, Orkli eta Oiarso enpresak, hain zuzen ere. Kunshanen kokatu dute industrialdea; lau milioi biztanleko hiria da Kunshan, industria dentsitate handia du eta Shangaitik 50 bat kilometrora dago.

GUZTIRA, 520 LANGILE

Kunshango industrialdea MCCk kudeatu du eta 300.000 metro koadro ditu. Lehenengo fase honetan, 85.000 metro koadro urbanizatu dituzte eta horietatik 37.000



BASERRIA Kunshango industrialdeko baserria; hantxe kokatu dute MCCko enpresen gerentzia.

MCC

eraikinei dagozkie. Orbea enpresak 5.300 metro koadro hartzen ditu; Wingroup-Dikarrek 18.200; Orklik 9.300 eta Oiarsoak 4.200. Oraindik lursail handia geratzen da eraikitzeko.

Guztira, 520 bat lagunek lan egiten du lau enpresotan; Orbean eta Oiarson hogeina langilek; Orklin 130 langilek eta Wingroup-Dikar enpresak, azkenik, 350 bat langile dauzka.

TXINAN, BASERRIA

Industrialdeak euskal kutsua dauka; izan ere, baserri bat egin dute, bilerak egiteko. Gerentzia ere hantxe kokatu dute. Ondoan, jantoki handi bat ere egin dute.

FERROFORMA-BRICOFORMA 2007 > DEBAGOIENEN ENPRESA GEHIENTSUENAK DIRA SARRAILAGINTZAKOAK

Ferroforman Debagoieneko hamazazpi enpresa daude

Barakaldoko BEC erakustazokako sei pabiloietan ia mila erakustegi daude ikusgai

A.I. > BERGARA

Eguaztenean hasi zen Ferroforma-Bricoforma azoka eta bihar, zapatua, amaituko da. Bi urtetik behin egiten dute eta mundu osoko mila enpresatik gora etorri dira Barakaldora aurtan.

DEBAGOIENEN 17 ENPRESA

Debagoieneko hamazazpi enpresak jarri dute erakusmahaia BECen, honako hauexek, hain zuzen ere: Arrasateko Alejandro Altuna, Feliciano Aranzabal, Jose Maria Gallastegi eta Talleres Aga enpresek, sarrailagintza enpresak denak; Bergarako Ibi-li Menaje (burdineria eta etxeokak), Industrias Ugatu (loturak), Lacor Menaje Profesional (burdineria eta etxeokak) eta Servimasa (egurra eta antolamendua);



AZBE Aretxabaletako enpresaren stand-a.

BEC

Aretxabaletako Azbe B. Zubia (egurrarendako makinaria), Cerrajera Valle Leniz (sarrailagintza) eta Plasticos Kappa

(eskuzko tresnak); Oñatiko Altuna Hermanos (eskuzko tresnak), Dicoal-Grupo Altuna (eskuzko tresnak) eta Ulma Manutencion

(industria hornidurak); Eskoriatzako Ezcurra-Esko (sarrailagintza); Antzuolako Goizper (lorategiak) eta Elgetako Sufersa (burdineria eta etxeokak).

PROFESIONALENDAKO AZOKA

Ferroforma-Bricoforma azoka ez da edozeinendako irekia, profesionali zuzenduta dago. Izena eman duten profesionalak sektore hauetan banatutako produktuak ikusi eta ezagutu ahal izango dituzte: eskuzko tresnak, industria hornidurak, burdineria, sarrailagintza, makinaria eramangarria, eraikuntzarako hornikuntza, dekorazioa eta lanerako babesak, besteak beste.

AZOKA DATUTAN

Guztira, 994 erakustegi jarri dituzte BECen 1.314 enpresak. 30.000 bisitari espero dituzte antolatzaileek. Enpresa parte-hartzaileak dira mundu osoko 28 herrialdeetakoak, besteak beste, Txina, Taiwan, India, Korea, Alemania, Suitza eta Erresuma Batukoak. 25-30 milioi euroko fakturazioa espero dute.

EGURALDIA > DEBAGOIENDAR ASKO ARGINDAR BARIK EGON ZIREN EGUAZTENETIK EGUENERA

Eguazten gaueko haizeteak eta ekaitzak hainbat kalte eragin ditu Debagoienez

1983tik hona seigarren euri jasa handiena izan zen eguaztenekoa: 94 litro metro koadroko

tzak han jarraitzen zuela adierazi digu Gesalibarko auzotarrak.

Errepideetan ere sortu ziren hainbat arazo, ur-putzu handien-gatik; Arrasaten, gainera, Garaia berrikuntza gunean hodi bat apurtu zen.

EURI JASA HANDIA

Haizea eta euria, biak iritsi zitzaizkigun gogor eguaztenean. Luis Mari Agirre bergararrak ematen dizkigu temperaturaren eta euriaren datuak astero. 1983a ezkereratik dihardu lan horretan. Agi-

rrek azaldu digunez, 1983tik gaur arte, eguaztenekoa izan zen seigarren euri jasa handiena: metro koadroko 94 litro batu zituen.

Hona hemen Luis Mari Agirrek Bergarako San Juan auzoan azkeneko 24 urteotan jasota-

ko datuak: 1988ko uztailean 19an egin zuen euri gehien, 137 litro metro koadroko. Uholdeak izan ziren orduan, askok gogoratuko duzuen moduan. 1983ko uholde entzutetsuen egunetan jasotakoa da bigarrena: 133 litro jaso zituen Agirrek abuztuaren 26an. 1993. urtean, apirilaren 25ean, 101 litro; urte hartan bertan, abenduaren 25ean, 100 litro metro koadroko; 1991ko martxoaren 24an, 98 litro; eta, azkenik, oraingo asteko datua daukagu: esan bezala, Bergarako San Juan auzoan 94 litro jaso ditu Agirrek.

A.I. > BERGARA

Eguaztenetik eguenerako gauean haizete bortitza eta ekaitza izan genuen. Kalte ugari sortu zituen horrek guztiak.

Aipagarriena da debagoiendar asko argi barik egon zirela. Arrasateko Bedoña eta Gesalibar auzoetan eta Elgetan, esaterako, eguazten arratsaldean geratu ziren argindar barik eta halaxe jarraitzen zuten eguen eguerdian. Bedoña auzoan tximista bat jausi zen, hango ermitako tximistorratzean, hain zuzen ere. Inguruko etxeetan entxufeak erreta geratu ziren.

Gesalibarko auzotar batek deitu digu eta esan digu argi barik egon zirela eta ez dela lehengo aldia. Iaz ere gauza bera gertatu zitzaien. Gainera, baserri bide baten zuhaitza erori zen eguazten arratsaldean, eta, abisua eman zuten arren, eguen goizean zuhai-

SAIHESBIDEA

Arrasate-Aramaio proiektua onartuta

Arrasateko mendebaleko saihesbidearen proiektua onartu dute

A.I. > ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak oraingo astean onartu du Arrasateko mendebaleko saihesbidearen trazatu proiektua. GI-2620 errepidearen zati horrek saihesbide funtzioak egingo ditu, eta Aramaiorako sarbidea hobetu.


Trazatu proiektuak 2,1 kilometroko luzerako saihesbidea zehazten du; Olandixo parean 830 metroko tunela egingo dute.

Lanen aurrekontua izango da 35,4 milioi euro eta 24 hilabetean eraikiko dute saihesbidea. 2007an zehar aterako dira enkantera lanak, oraindik proiektua idazten dihardute-eta.

Arrasate eta Aretxabaleta arteko mugan hasiko da saihesbidearen trazatua; hasierako 830 metroetan GI-2620 errepidearen paralelo joango da. Gero, tunela zeharkatu ondoren, berriro bat egingo du errepide horrekin.

BIZIGUNE ETXEBIZITZA HUTSEN PROGRAMA

bizitzaz bete



hutsik duzun etxea

Euskadin, 75.000 pertsonak baino gehiagok* etxebizitza duina izateko duten eskubidea aldarrikatzen dute. Bestalde, 26.000 pisu daude hutsik.

Pisu horietakoren bat zurea bada eta **Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren** bidez alokatzeko eskaintzen baduzu, etxebizitzari erabilera ona emateaz gain, **onura hauek eskuratu** ere egingo dituzu:

- _ Zure pisua alokatzeko kudeaketa guztiak geuk egingo ditugu.
- _ Bost urtez alokatuta izango duzula eta errenta zintzo-zintzo kobratuko duzula bermatzen dizugu.
- _ Geu arduratuko gara pisua mantendu eta zaintzeaz.
- _ Eta obraren bat egin behar baduzu, finantzatu egingo dizugu.

DENA GURE KONTU ZUK ZERTAZ KEZKATU IZAN EZ DEZAZUN

900 251 251 INFORMA ZAITEZ

aurrera doan **herria**

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES



* Etxebiden izena emandako pertsonak

gure artekoak

BMW SERIE 3 > Gama altuko automobilak egiten ditu BMW etxeak; segurtasuna eta potentzia, batez ere, eskaintzen dizkigu BMW Serie 3 automobilak, Ribelogako Paulino Rivasek azaldu digun moduan.

Paulino Rivas > Ribelogako arduraduna

"Segurtasuna eta potentzia gura dutenendako egokia da"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

BMW etxearen Serie 3 modelo-aren bertsio berritua dakarkizuegu oraingoan, Eskoriatzako Ribeloga kontzesionarioaren eskutik. Paulino Rivas arduradunak azaldu digunez, batez ere estetikari eta motorrari dagokionez dakartza berritasunak bertsio horrek.

Motorrari dagokionez, lau eta sei zilindroko motorrak daude aukeran. Gasolinazko autoetan, 1.800 (129 ZP), 2.000 (150 ZP), 2.500 (218) eta 3.000 (258 ZP) zilindradako automobilak daude. Diesel autoetan berriz, honakoak ditugu: 1.800 (122 ZP), 2.000 (163 ZP) eta 3.000 (231 ZP).



Paulino Rivas, Ribeloga kontzesionarioan, BMW Serie 3 automobila erakusten. A.I.

SEGURTASUNAREN GARRANTZIA

Jakinekua da gama altuko automobilek segurtasuna eskaintzen dutela. Hona hemen BMW Serie 3 modeloak eskaintzen digunaren adibide batzuk, adibiderik berezienak: argiak automatikoki egokitzen dira bihurtzeko ibilbidera; Run-Flat pneumatikoak ditu; atek bereziki indartuta ditu, automobila iraultzen bada ere. Aipatzekoa da, gainera, xDrive edo trakzio integral sistema ere aukeran duela Serie 3k. Ardatz bakoitzak momentu bakoitzean beharrezko duen indarra egiten du. Horrela, auto-

BMW Serie 3 320d (E90)

Prezioa	34.000 eurotik hasita
Luzera	4,52 metro
Zabalera	1,81 metro
Maletategia	460 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,7 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	225 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	8,3 seg.
CO2 isurketak	153 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

mobilak gutxiago sufritzen eta kontsumitzen du.

Paulino Rivasek hauxe esan digu: "Edozeinendako moduko automobila da: familiendako, jende nagusiarendako, gazteendako... Azken baten, segurtasunari, errepidean erantzun ona emateari, orekari eta potentziari lehentasuna ematen dion edozeinendako automobil egokia da".

Azkenik, aipatzekoa da sei martxa edukita kontsumoa asko jaisten dela. Mantentze gastuekin jarraituta, Rivasek adierazi digu esaten denaren kontra ez dela hain garestia.

etxeke leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunekeen zuzendaria

'The Gardock' biharrik ez; erromerixan Gardoki

Izena *The Gardock* euko baleu bai, orduan jarriko gon- tzake atenziño haundixagua akaso, gure agendetan leku pribilegiatuagua euko leuke. *The Gardock* izenakin posible izango litzake musika elektronikua egittia, edo house musikia, fusiño musika modernoren bat... zer dakit nik! Atenziñua jasoko leuke gaztiongandik, behintzat. *The Gardock* kamisetak merkauan balere eruango giñukez soiñian, baita diskua erosi be. Holakotxe memeluak gara, izenari begira gabiz izana dala inportantia jakin barik.

The Gardock-ek izena euko leuke, baiña izana Gardokik dauka. Erromerixa erruei serixo eusten dotsa afari-kantuetan, plazetan... Harro dagon herri baten sentimenduak jasozten dittut Gardoki soiñuakin ikusten dotenian. Ikusten dot erromerixiai eusteko saio zintzua. Eta horregaittik gozatzen dot Gardoki entzuten, dantzan, kantuan. Komunikatu egitten dau, dantzan jarri entzule huts gazenok, kantuan be bai. Erromerixia egitten daben artistek dauken jarixo elegante guztia dauka mikrofonotik diharduanian: zirixa oin, egixa gero, adar soiñua sarri... Jarraipena ziurtatuta bihar leuken soiñu-jole estilua. Ez?

"Ikusten dittut harro dagon herri baten sentimenduak Gardokiren erromerixan"

> **Anthony Blake** amerikana-edo izango ete da holan deitzeko? Ez ba, Jose Luis deitzen da, bai, Jose Luis. Hor dago Bernardo Atxaga glamurosua be, ez Bernardo ez Atxaga. Joseba Irazu da idazlia.

> **Gardokik** ez dauka *Paquito el chocolatero* jo biharrik. Badauka Tapiatik gehixago Junkeratik baiño, *Elgeta* trikitilarititik dezente, eta hau danau estilo propiuarekin... Demasa artista!

begi-bistan



Tximinia bota dute (Bergara) 2007/03/05

Argazkia: Ubane Madera.
Testua: Aintzane Irizar.



San Antonio auzoan ikusmin handia eragin zuen astelehenean Movillas enpresako tximinia- ren eraispenak. Lehergaia jarri eta ez tandarekin goitik behera etorri zen tximinia.



Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Tomas Igartzabal
101 URTE

Oraingo astean 101 urte bete ditu On Tomasek, Tomas Igartzabalek. Agustindarra da eta. Argentinan egin zituen urte asko; handik, Donostiara itzuli zen eta Oñatira orain dela 15 urte etorri zen. Azkeneko hamar urteotan San Martin egoitzan bizi da.



Bixente Atxa
MU-KO ZUZENDARIA

Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoak zuzendari berria dauka: Bixente Atxa, hain zuzen ere. Orain arte Javier Retegik izan du kargu hori, baina, laga egin du, Fagor Etxetresnetako Industria eta Ikerketa eta Garapen zuzendari izen- datu dute eta.



Jesus Mari Lazkano
PINTOREA

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko ordezkari- tzak Titanio Saria eman dio bergarri- ri, bere margolanek arkitekturarekiko erakusten duten interesagatik eta Lazkanok egiten duen arkitektura- ren zabalkundeaga- tik.

Patricia Leanzer brasildarra da eta beste 13 kiderekin batera gure ibarrean emango du martxoa, Mundukide Fundazioak, Lankik eta Mondragon Unibertsitateak antolatu duten Truke programak gonbidatuta. Interkooperazioaren lan ildoan kokatzen da aurtengo Truke programa eta bertan ikasten duena bere herrian zabaltzeko asmoa duela adierazi digu.

Patricia Leanzer > Mundukideko Truke programako kidea

"Emakumeak ez du gizonaren atzean egon behar, harekin aurrean baizik"

JOKIN ETXEBARRIA > ESKORIATZA

Patricia Leanzer gure eskualdeko kooperatiben mugimendua ikastera etorri da. Autogestioaren zalea da eta hemen ikasten duena Brasilen ezartzea du helburu. Martxoaren 8a hemen igaroko du eta aitazkia hori aprobetxatu nahi izan dugu Brasilen emakumearen egoera nolakoa den jakiteko.

Zer esaten dizu Martxoaren 8ak? Egun mota horiek beharrezkoak direla uste duzu?

Egia esan, ez litzateke horrelako egunik ospatu beharko emakumearen eskubideengatik borrokatzeko. Egunerokotasunean sartuta egon beharko luke emakume langileen eskubideak, eta oraindik hori ez da lortu. Horregatik, oraindik beharrezkoa ikusten dut horrelako egun bat, eta, gainera, Ingalaterrako emakume haien oroitzapena gogora ekartzea ez da txarra.

Zelakoa da emakumearen egoera Brasilen?

Emakumearen rola Brasilen kontraesankor samarra da. Uste dut Hegoamerikako beste herrialde batzuekiko aurrerapen batzuk egin direla, baina, era berean, Brasilen ere oso latindarrak gara eta matxismoa da gure gizartearen nagusi.

Emakume brasildarrok samur eta *sexy* ospe handia dugu, eta batzuetan pentsamendu horretara eramatea normala da, askotan objektu-emakumearen rola hartzen baitugu.

Agian, administrazioari lan handiagoa eskatu beharko litzaioke emakumearen rolak indar handiagoa eduki dezan?

Baietz uste dut. Brasilgo administrazioan gaur egun emakume askok postu garrantzitsuak dituzte eta horretan aurrerapausoak eman ditugu, baina gizartearen barruan emakumeak liraina behar du izan, aldizkarietarako azalak bete behar ditu, eta horretara bideratutako zapalkuntza handia dago oraindik.

Hala ere, administrazioak ematen ditu laguntza batzuk emakumearendako bakarrik direnak, eta hori aurrerapausoa da. Izan ere, laguntza berak gizonazkoei emanez gero, haiek seguruenik etxetik alde egin eta beste bizi-modu mota bat egingo lukete.

Lehen aipatu dut gauza kontraesankorrak bizi ditugula gure gizartean. Izan ere, matxismoa jaun eta jabe da kalean, baina



Patricia Leanzerrek euskarazko hitz batzuk ikasi ditu. Horien artean, *Martxoaren 8a, Emakumeen Eguna*.

JOKIN ETXEBARRIA

etxeetan, normalean, agintzen duena eta etxea aurrera eramaten duena emakumea izaten da.

Eta hori nola liteke?

Nik uste dut emakume indigenengandik heredatu dugula hori. Emakume indigenak oso aktiboak dira, gauza asko egiten dituzte eta etxearen jabe dira. Hala ere, kanpotik etorri zaigun gizarte bat bertoko egin zaigu, non gizona den burua, eta nahasketak horrek gaur egun bizi dugun egoera horretara eraman gaitu.

Gero, beti entzuten dugu gizon baten atzean beti dagoela emakume bikain bat, baina emakumeak ez du atzean egon behar, gizonarekin aurrean baizik.

Espainian berdintasun legea sortu da, baina egoerak lehenago antzera jarraitzen du. Lege horiek eraginkorrak dira?

Gizartea ez da egun batetik bestera aldatzen lege bat jarri delako. Horri denbora eman behar zaio, jendeak ikas dezan,

EMAKUMEA BRASILEN

"Brasilen ere oso latindarrak gara eta matxismoa da gure gizartean nagusi"

BERDINTASUN LEGEA

"Gizartea ez da egun batetik bestera aldatzen lege bat jarri delako"

SEXU BIOLENTZIA

"Sexu biolentzia handitzearen arrazoietakoa bat emakumearen rola aldaketa da; izan ere, gizona beldurtu egin da"

eta horretarako derrigorrezkoak dira lege mota horiek.

Ia egunero entzuten da bikoitekideak emakumea hil edo jipoitu egin duela.

Brasilen ere sexu biolentzia handia dago. Gainera, kasu horretan ez da maila edo erlijio edo bestelako desberdintasunik egoten. Guztietan gertatzen da. Okerrena da emakume askok uste dutela hori dela eurek bete behar duten rola: gizonaren zapalkuntza eta tratatu txarrak jasotzea, eta horretarako hezi dituztela.

Nik uste dut sexu biolentzia handitzearen arrazoietakoa bat emakumearen rola aldaketa dela. Emakumeak kanpoan lan egin, etxera dirua ekarri eta lehen gizonak bakarrik egiten zituen gauza batzuk egitean, gizonazkengan haien pribilejiozko posizioa galduko duten nolabaiteko beldurra sortu duela, eta horregatik haiek oraindik agintzen dutenak direla erakutsi nahi dute indarkeriaren bidez.

Baina kontuan hartu behar da ez dela indarkeria fisikoa bakarrik existitzen. Beste mota askotako biolentziak daude. Adibidez, emakume batek haurrik ez izateko erabakia hartu duelako gizarteak gaizki ikusia izatea biolentzia mota bat dela uste dut.

Nola lor daiteke emakumearen eta gizonaren arteko parekotasuna?

Ez dakit, lanean aurrera jarraitu behar dugula argi dago, oraindik behintzat ez delako horrelakorik lortu. Baina kontuan hartu behar dugu emakumearen eta gizonaren artean desberdintasunak daudela. Hori horrela da. Berdintasuna eskubideetan lortu behar da, baina emakumeak ez dauka zertan gizonaren papera hartu horretarako. Emakumeak gizonarekiko eskubide ezberdin batzuk eduki behar ditu, dituen desberdintasunengatik, baina betiere parekotasuna bilatuz.

plazara

Azken egunotan Arrasateko etxe agentzia batetik etorri zaizkion erasoan aurrean bere burua defendatzen du Ander Rodrigue-

zek ondoko artikuluan. Maiatze-ko hauteskundeetan atarian, etsaiak lanean hasi direla dio Ezker Batuko zinegotziak. Hau-

teskondeek azken epaia izango dutela dio, eta, bien bitartean, kargu publikoa izateak duen ordainaz hausnarketa egiten du.

Ander Rodriguez *


Kontuak hartu

Hilabeteak dira orri honetan idazten hasi nintzela, denetariko gaiei buruz hitz eginez, hirigintzatik herriarren parte-hartzera, euskal gatazkatik pasatuz. Oraingoa, barkamena eskatzen diet irakurleei, eskaintzen didaten tribuna hau erabiliko baitut kontuak hartzeko.

Urteak daramatzat politikaren mundu korapilatsuan mugitzen, azken hirurak Ezker Batua-Berdeetako zinegotzi Arrasateko Udalean. Politikan parte hartzeak aukeratzea, mugitzea eta bustitzea dakarkit. Leku hartzea, honen eta haren kontra tiro egin eta aldi berean beste batzuenak jaso. Aurpegia eman dut eta sarerik gabe jokatu dut, ez naiz horretaz damutzen.

Komunikabideek eskaintzen diguten lekua urria izaten da pedagogia politikoa egiteko, ezkerak ahaztu duen zerbait. Pankarta eta eslogan hutsa inposatzen da. Egoera hauetan ezinezkoa da bisturiz hitz egin eta idaztea, edo, behintzat, ni ez naiz gai egiteko. Labana hartu eta sastada egiten diozu mugitzen den guztiari. Ordezkarri lanak egin ditut, batzuen eta besteen hirigintza lotsak bistaratuz. Batzuetan hitz egin dut "adri-luaren mafiaz eta euren zinegotzi kideez" edota "espekulazio higiezinaren mundu zikinaz". Baina neure kontzientzia dut, eta badakit higiezinaren sektorean badirela profesional onak eta zintzoak, zaurituta sentitu dira agian, zeharkako biktima horiei, nire barkamenak alde aurretik.

Harro nago, ahal izan dudaneurrian, boterearentzat ezero-



MIKEL ARROIABE

so izan naizelako, hainbeste *golfo* eta lotsagaberentzat. Kargu publikoa izateak eta jende honi *frantses* bat egitea ukatzeak bere kostua dauka, ez ezazue pentsa. Niri egun hauetan hori jasatea egokitu zait. Higiezin enpresa baten jabea (barkatu *jauna* ez deitzea, ezagutzen dut-eta) niri muturra txikitzen saiatzeaz pozik ez, eta nire kidea mehatxatu: "Te voy a rajar la cara" (sic) esanez, nire kontrako kanpaina bati ekin dio.

Nire kontrako deskalifikazioen aurrean errudun aitortzen dut neure burua. 30 milioi mortadeloko hipoteka hartu behar izan dut datozen 35 urteetarako, 40 metro karratuko etxea eros-

"Politikan parte hartzeak aukeratzea eta bustitzea dakarkit. Honen eta haren kontra tiro egin eta aldi berean beste batzuenak jaso"

"Harro nago, ahal izan dudaneurrian, boterearentzat ezeroso izan naizelako"

teko. Hori da nire bekatua, beste gazte askorekin batera; horregatik jarri ditu hainbeste kartel polit eta koloretsu herri guztian zehar higiezin enpresako jabe famatuak. Ez dago kantoirik ezta farolarik ere bere ergelkeriak jaso ez dituenik.

Lehenengoa kasualitatea da, bigarrena kointzidentzia, hirugarrena etsaiaren eraso, dio esatera ezagun batek. Ez da kasualitate hutsa eraso hau gertatzea udal hauteskundeetan ateetan, non alproja askok diru asko jokatzen duten. Ez da kointzidentzia abentura honetan, tipo honek lagun izatea kalifikazioak berriro egiteko esku arina daukan zinegotzi bat. Beraz, ondorioztatu behar dut nire etsaiak martxan jarri direla. Bai, nire etsaiak, nagoen lekuan ezinezkoa da mundu guztiarekin ondo konpontzea. Izan ere, norbaiten interesak ukitzen dituzunean, jendeak nola salto egiten duen!

"Indeseable", "indigno de la función que ejerzo" eta "desecho" deitu dit bere azken gutunean (Oscar Wilde-ren parekoa). Baina nik, erradikal demokratiko arduratsua izanda, nahiago dut herritarrek epaitu dezatela hurrengo maiatzaren 27an, horretarako zita daukate hautes-tontzian.

Artikuluarekin amaitzeko, kopla kolonbiar batek esaten zuena ekarriko dut gogora: *Yo soy campesino puro / y no empecé la pelea / pero si me buscan ruido / la bailan con la más fea.*

*Ander Rodriguez, Ezker Batuko zinegotzia Arrasateko Udalean.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Lanegunetako ordutegia aldatzea ondo iruditzen?

BAI	%75
EZ	%25

> OSO ONDO

Ba neri oso ondo iruditzen zait hori. Gaur egun sari-tzen dena da jendeak lanean zenbat ordu pasatzen dituen, eta ez egiten duen lana, edo lan hori ona edo txarra den. Entzun dut Noruegan eta holako lekuetan badutela ordutegi hori. Zeozergatik izango dira Europako herri aurreratuenak!

Mari Carmen

> AURRERA

Nik diot aurrera egiteko horrekin. Nazkatuta nago ordu estrak txalotzen dituztenekin. Hori langile mugimendu historikoaren borroka barre egitea da. Efizientziak balio du eta ez ordu kopuruak. Bazkaltzeko denbora gutxiago pasatuta, lan egiteko nahikoa denbora dago, eta gero, arratsaldean, familia bizitza egin daiteke.

Aitor

> LASAI BAZKALDU

Nik nahiago dut lasai bazkaltzea eta gero betiko orduan irtetea lanetik

Miren

DATORREN ASTEKOA: Debagoienaren eskaintza Aste Santuan erakargarria da?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu erantzun interesgarrienak.

-top

ekartzera datoz Gema Lasarte, Amaia Alvarez Uribe, Josune Muñoz eta Iratxe Retolaza Sareinak blogaren bidez: feminismoarenak. Ziur lagun-garri izango zaizkigula pentsamendu arrantzaldi ona izan eta uzta bikaina biltzeko.

Sufragistak

Gotzone

www.goiena.net/blogak

Urriaren, Ondarroan nengoela, sufragistekin egin nuen topo. Kalera irten ziren emakumeon boto-eskubidearen urteurrena

gogorarazteko. Ekitaldia udalaren Emakumearen batzordeak eta Helduen Antzerki Taldeak antolatu zuten.

Emakumeok normaltasun osoz disfrutatzen dugun boto eskubidea, sufragisten borrokari esker lortu dugu mende-baldean. Sufragismoa XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Estatu Batuetan eta Europan lortu zen. Emakume haien boto eskubidearen alde egiteaz gain, emakumeen ikasteko eskubidea aldarrikatu zuten, edota Estatu Batuetan eskubidearen aurka borrokatu zuten. Sufragistek emakumeon boto-eskubidea

lortzeko, kartzela, isunak, gose greba... jasan zituzten eta batzuek bizia galdu zuten. Hemen 1931ko urriaren 1ean lortu zen emakumeon boto eskubidea. Aurrerapauso handiak eman baditugu ere, oraindik gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko gauza asko aldatu behar dira: emakume gehiago behar ditugu postu erabakiorretan, korresponzabilitatea, sexu diskriminazioa lan merkatuan, emakumeen kontrako indarkeria... Denoi dagokigu berdintasunean eta errepestant oinarritutako jendarte eraikitzea.

koplak

Manex Agirre

Iñaki De Juanari besarkada bat

Espero baino beranduago dator Iñaki de Juana bizitza itxoiten pasa duen herri triste honengana.

Berria pozgarria izan da aitortu behar da egia; baina ondoren etorri dena ez al da tristeegia?

PPk berekin dauka hainbeste abokatu, fiskal, lege beren barruan ez daukatena zentzu etikorik ere.

Manifestazio bat osatu dute larunbaterako egia euren mutur aurretan ikusi ezin dutelako.

Geuk badakigu pasatu dena bidezkoa izan dela haiek ezin badute onartu izorratu daitezela.

Besarkada bat Iñaki, zuri kalea dago zure zai zuretzat ona izango da ta herri honentzat ere bai.



Eta izan

Nahi duzun guztirako: etxea berritu, autoa, motoa, bidaia eder bat... **kutxa**n duzu bidea. Urrutirago gabe.

Baldintza bikainetan, eta modurik azkarrean:

- ◆ Telefonoz: **902 10 32 10**
- ◆ **kutxanet** bidez
- ◆ Gure **bulegoetan**
- ◆ Eta **kutxazainetan**

Nahi



Gauzak, erraz.

 **kutxa**
zer nahi duzu bihar?

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> BERGARA

Domingo Irala kaleko lanek geldi jarraituko dute oraingo > 24




> ARETXABALETA

Tubos lantegia egondako eraikina konpontzen hasi dira > 31



> ESKORIATZA

Gellao eta Apotzagako pista jaustek haserrea piztu du > 35



> ELGETA

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko hainbat ekintza > 37

ARRASATE > BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUAN MAKINA BERRIA

Udal ordainketak egiteko makina ipini dute Arrasaten, Euskal Herriko lehenengoa

BAZ-EN

Biztanleen Arreta Zerbitzuan ipini dute makina berria

UDAL ZERGAKE-ETA

Udal tasak edo zergak han ordaindu beharko dira, besteak beste

ASTE SANTU OSTEAN

Prestakuntza lanak egin eta Aste Santu ostean estreinatuko dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo asteko martitzenean iritsi da Portaloiko Biztanleen Arreta Zerbitzura (BAZ) Udalaren makina berria. Kataluniatik ekarri dute (Bartzelonatik) eta 20.000 euro (BEZ barik) balio du. Parkingetan, metroan eta horrelako lekuetan egoten diren antzerako makina da. Edozelan ere, punta-puntako teknologia dela ere esan genezake, kontuan hartzen badugu Estatuan orain dela bi urte hasi zirela halakoak fabrikatzen. Are gehiago, Euskal Herrian ordainketak egiteko makina eskuratu duen lehen herria da Arrasate.

UDAL ORDAINKETAK ETA BESTE

Hiru helburu betetzeko eskuratu du Udalak makina hori. Hala azaldu digu BAZeko arduradun Edurne Muxikak: "Helburuak hiru dira: BAZetik dirua kentzea; herritarrei aukera ematea ordainketak diruaren bidez edo txartelaren bidez, bietara egiteko (orain diruarekin bakarrik ordain dezakete); eta guri, BAZen lana kentzea. Ezetz pentsatu arren, jende asko eta asko etortzen da tasak edo zergak ordaintzera, helbideratu barik dazkalko eta ez dituelako helbideratu nahi. Jende nagusia izaten da gehienetan".



IPINITA BAZen erakuslehoaren aurrean ipini dute makina berria; argazkian, Edurne Muxika makina erakusten.

U.M.

PERTSONA BAT LAGUNTZEKO

Makina berri hori handia da eta BAZen badakite herritar asko "beldurtu" egiten direla halakoak erabiltzeko orduan. Horregatik nabarmendu dute "oso erraza" izango dela hura erabiltzea: "Dena den, herritarrek ikasi arte, pertsona bat ipiniko dugu, behar duen guztietan laguntzeko".

Lehen esandako moduan, udal zerga guztiak, isunak eta beste-lako ordainketak egiteko aukera ematen du makina horrek.

UDAL ZERGAKE ETA BESTE

"Udal zerga guztiak ordainduko ditugu, isunak ere bai eta baita herriko beste zerbitzu batzuk ere: kiroldegiko bonua, ikastaroak eta halako zerbitzuak", argitu du Edurne Muxikak. "Makinak badauka irakurle optiko bat barra kodeak irakurtzeko, eta hari esker posible izango da, zergaren ziurtagiria eramanez gero, datuak eskuz sartu barik ziurtagiria irakurri eta zuzenean ordainketa egitea. Bestela, ziurtagiri barik

zergak ere ordaindu ahal izango dira, datuak eskuz sartuta ondo-ko pantailatxoan".

Lehen esandako moduan, txartelarekin edo eskuz (diruz) egin ahal izango dira ordainketak. Hala, diruari dagokionez, lau txanpon mota onartuko ditu makina berriak: bost zentimokoa, hamarrekkoa, berrogeita hamarrekkoa eta euro batekoa. Billeteei dagokienez, 100 eurora arteko billeak onartuko ditu; ez, ordea, hortik aurrerakoak.

ZER ORDAINDU AHAL DEN

> UDAL ZERGAKE EDO TASAK

Makina horretan ordaindu ahal izango dira Udalarekin lotutako tasa guztiak: ura, zaborra, IBla, autoen zerga, hilerriko zerbitzuak eta BAZen ematen dituzten obra baimen guztiak, adibidez.

Horrez gainera, isunak ere ordaindu ahal izango dira leku berean.

> BESTELAKO ZERBITZUAK

Bestelako ordainketak ere egin ahaliko dira: kiroldegiko instalazioak, Arrasaten antolatzen dituzten ikastaroak eta antzerakoak.

ETORKIZUNEAN, AGIRIAK ERE BAI

Oraingo, beraz, ordainketak egiteko egokituko dute BAZeko makina, baina zerbitzu gehiago emateko prestatuta dago berez aparailua. BAZeko arduradunak eman ditu argibide gehiago: "Agiriak ere ateratzen ditu. Adibidez, oso tipikoak diren edo sarri eskatzen diren errolda agiriak edo bizikidetzako agiriak eskatu ahal izango dira norbera joanda, pin batekin edo Izenpe txartela sartuta, halakoak ere ateratzen ditu. Baina momentu honetan hori ez dugu martxan jarriko. Jarriko dugu lehenengo ordainketena eta denborarekin, nik uste dut bide hori hor dagoela eta erabili edo ez erabaki beharko dugula".

ASTE SANTU OSTEAN

Oraingo, baina, ezingo dugu erabili ez bata ez bestea. Izan ere, hilabete barru inguru estreinatu ahal izango dute herritarrek makina berria, Muxikak esan digun moduan; "gutxienez, hilabete bat pasatuko da. Horrelako aldaketa batek Udalean ere aldaketa ekartzen du, banketxeekin berba egin behar da... Eta langileok ere makina erabiltzen ikasi behar dugu. Denbora bat beharko du heltzen". Hori guztia kontuan hartuta, apirilaren amaieratik aurrera, Aste Santu ostean erabiltzen hasiko dira. Eta espero dute Estatuan orain erabiltzen duten herrietan moduan, Arrasaten ere arrakasta izango duela makina berriak.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Table listing pharmacies in Arrasate with columns for pharmacy name, address, and phone number.

BERGARA

Table listing pharmacies in Bergara with columns for pharmacy name, address, and phone number.

ONATI

Table listing pharmacies in Onati with columns for pharmacy name, address, and phone number.

ARETXABALETA

Table listing pharmacies in Aretxabaleta with columns for pharmacy name, address, and phone number.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Table of emergency services including hospital, pharmacy, and general practitioners with phone numbers.

GARRIAOK

Table listing taxi services in the area with phone numbers.

DEBAGOIENA

Table listing various services in Debagoiena including health, culture, and education.

URBANOAK

ARRASATE

Text providing information about bus routes and schedules in Arrasate.

Text providing information about bus routes and schedules in Arrasate.

Text providing information about bus routes and schedules in Arrasate.

Text providing information about bus routes and schedules in Arrasate.

BERGARA

Text providing information about bus routes and schedules in Bergara.

Text providing information about bus routes and schedules in Bergara.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Table showing bus schedules for Aramaio with columns for time, Aramaio, Gasteiz, and Arrasate.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 10

Text describing the weather forecast for Debagoienean on Sunday, 10th.




Domeka, 11

Text describing the weather forecast for Debagoienean on Monday, 11th.

EUSKAL HERRIAN

Text describing the general weather forecast for the Basque region.



oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

Text about Debagoiena events: Lankidetzak ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan.

Text about Debagoiena events: Bakerik Lankidetzak Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetako lankidetzak ikastaroak antolatu ditu udarako.

BERGARA

Text about Bergara events: Internet hasiera ikastaroak, doan.

ARAMAIO

Text about Aramaio events: Dirulaguntzak eskuratzeko deia.

Text about Aramaio events: Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatu dizekiere herriko taldeei kirol, jai, kultura... eta bestelako antolatutako. Martxoaren 20a da mugaeguna.

ARRASATE

Text about Arrasate events: Abaroa erretiratuaren elkartearen batzarra.

Text about Arrasate events: Urteko batzar orokorra eguenean, martxoaren 15ean, 17:00etan.

ARETXABALETA

Text about Aretxabaleta events: Mus txapelketa egongo dute Urbaltz elkartearen.

Text about Aretxabaleta events: Bihar, zapatua, 16:00etan hasita jokatu da. Izenematea eguenean bertan egingo da.

Text about Urbaltz elkartearen event: Urbaltz elkartearen, 15:00etatik 15:30era.

ONATI

Text about Onati events: Spinning monitore agiri lortzeko ikastaroa antolatu dute.

Text about Onati events: Martxoaren 17an izango da, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Zubikoa kiroldegian. Debarroko kirol zerbitzuetako bazkiendako 55 euro da ikastaroaren prezioa; 65, gainerakoendako. Taldeak aurrera egiteko gutxienez zortzi lagun beharko dira. Izen emateko jo ibarreko edozein herritako kirol zerbitzura.

ANTZUOLA

Text about Antzuola events: Posta elektronikoen gaitzeko ikastaroa.

Text about Antzuola events: Martxoaren 22an Komunikatu posta elektronikoen bidez delako ikastaroa egingo dute. Argibideak 943 79 94 44 zerbakiar (09:00etatik 18:00etara) edo antzuola@kzguna.net helbidean.

DEBAGOIENA

Text about Debagoiena events: Kilometroen aldeko ota-rtarek ateratu dituzte.

Text about Debagoiena events: Kilometroak 07ko antolaketak batzordeak produktuek betetako ota-rtarek zozketatzen ditu. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzioetan jarri dituzte txartelak salgai, 2 euroren truke.

ELGETA

Text about Elgeta events: Kontsumitzaileen eskubideen gaineko ikastaroa KZGunean.

Text about Elgeta events: Kontsumitzaileen sarean da ikastaroaren izena. Hilaren 14an egingo dute, 11:00etatik 13:00etara, eta izenematea zabalik dago.

ESKORIATZA

Text about Eskoriatza events: 1957an eta 1958ko urtar-til eta otsailen jaiotako-koen irteera.

Text about Eskoriatza events: Udak, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arratiara. Interesatek honako telefonoetara dei dezakete izena emateko: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

TENPERATURAK

MINIMO
Eguena, 1

4 °C

MAXIMO
Domeka, 4

26 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

5,5L

Table showing temperature and precipitation data for various days in March.

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MARTXOAN

Table showing moon phases for different dates in March.

ARETXABALETA
Buruko osasun laguntzailea eta Matt Pilates

Text about Aretxabaleta events: Lanbide Heziketak bi ikastaro antolatatu ditu Arizmendi: buruko osasun eta toxikomania laguntzailea eta Matt Pilates hastapeneko titulazioa.

BERGARA

Text about Bergara events: Ardo dastatze ikastaroa Gure Ametsan.

Text about Bergara events: Arabako Errioxako ardo beltzen dastatzea Mikel Garaizabal enologoarekin, martxoaren 15ean, Gure Ametsa elkartearen. Izenematea, 5 euro. Plaza mugatuak. 943 76 10 25 (Patxi Urbelsalگو).

ARRASATE

Text about Arrasate events: 1940an jaiotako emakumeen bazkaria.

Text about Arrasate events: Martxoaren 31n, Arrasateko batzokian. Aurretik meza parrokiaren. Izenematea (20 euro) Zabaleta lurrindegian, hilaren 24ra arte.

BERGARA

Text about Bergara events: Eski irteera Aste Santuan Pol-Pol elkartearen.

Text about Bergara events: Apirilak 6tik 14ra bitartean Alpeetara, Val Thorens-era irteera antolatu dute. Argibide gehiago astelehene-tik eguenera, 19:00etatik 20:30era Pol-Poleko bulegoan (Komenio kalean), 943 76 48 51 telefonoan edo helbide honetan: pol-pol.mendi-taldea@hotmail.com.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Hasi zara Aste Santuko oporrak prestatzen?



Bitxor Zangitu
Langilea
Bergara



Ainhoa Arizabaleta
Langilea
Bergara



Jose Angel Millan
Langilea
Bergara



Aitor Olabarria
Langilea
Bergara



Mari Carmen Masa
Etxekoandrea
Bergara

Prestatuta dauzkat due-
la hamabost bat egunetik.
Aurten goizago antolatu-
zen hasi gara. Baina
aurreko urteetan ez dugu
horrela egin: azken aste-
rako uzten genuen, azke-
neko orduan bilatzen...

Zer edo zer hartuta neu-
kan, baina orain lesiona-
tu egin naiz eta ez dakit
oraingoz zer egingo
dudan. Buruan izaten dut
beti zerbait, baina azken
unerako uzten dut opo-
rren prestateta.

Donibane-Lohizunera
joango gara. Emazteak
bidaia agentzia baten egi-
ten du lan. Ahalik eta
azkarren antolatzea izat-
en da onena, eskaintza
hobeak eta merkeagoak
izaten dira.

Oraingoz ez naiz hasi opo-
rrak prestatzen. Azken
hilabete erdirako uzten
dut beti. Furgonetarekin
mugitzen gara, eta horre-
gatik ez ditugu arazoak
edukitzen oporrak anto-
latzerakoan.

Ez, ez dut ezer prestatu-
ta. Ez naiz oporretan joan-
go, dirurik ez dut-eta.
Aurreko urteetan, hala
ere, oporretan joan izan
naiz, eta azkene orduan
hartzten nuen zerbait. Ez
dut halako ohiturarik.

txaloak eta txistuak



M.B.

Autobus bi estu pasatzen dira Garibaitik



Garibaik ika-mika sortzen jarraitzen du. Inguruko bizilagun batek jakinarazi du autobus bi kaletik batera pasatzeko larri ibiltzen direla. Abiadura moteldu eta baztertu egin behar dute. GOIENKARIA han izan da, eta hark esandakoa baieztatu du.

ustek uste

Ubane Madera

Zuhaitzak, behintzat, baditugu

Gaur, barikua, Zuhaitz
Eguna ospatu behar
dute Arrasaten. Iaz
moduan, 200 zuhaitz sartuko
dituzte, Garagartza auzoan.

Gogoan dut zela umetan
geu ere joaten ginen zuhai-
tzak landatzera. Eta beti
pentsatu izan dut ekimen
hori zela neska-mutikoak
naturarekiko errespetuan
hezten laguntzeko ekimena.

Baina joan den astean
eta oraingoz konturatu
naiz hori baino bastante
gehiago dela. Jakin berri
dituzten datuei begiradaxoa
egitea besterik ez dago:
Oñatin (Gipuzkoako herri
handienean), pertsonako 200
edo 250 zuhaitz dago.

Orokorrean begiratuta,
berriaz, Gipuzkoan, pertsona-
ko 106 zuhaitz daude.
Ehunekoak ere ikusgarriak
dira: Gipuzkoa da zuhaitz
gehien dituen probintzia
EAEen: %63, Suediaren edo
Finlandiaren antzera.
Bizkaiak du %60 eta %47
Arabak. Gainera, Gipuzko-
an, %44a dira bertako
zuhaitzak eta %40 pinudiak.
Beraz, pinudiak gutxitzen
doaz, bertako zuhaitzen
mesedetan.

Horren txikitzailea den
gure gizarte honetan
noizean behin halako datuak
jakitea pozgarria da bene-
tan. Gainera, erakusten dute
guztia dagoea gure esku,
edo hobeto esanda, gure
interesaren esku.

5 galdera...

Atxen Arantzabal

Alergologoa
Arrasate

1. Alergiak gero eta lehenago azaltzen omen dira. Igarri al duzu bailaran?

Gramineazko polena jende-
arengan eragin handien duena
da. Belarren loraldia maiatz edo
ekainean da. Zuhaitzena goiztia-
rragoa da, eta jende gutxiagori
eragiten dio. Altzifrea urtarrile-
an loratzen da, baina bailaran
gutxiak diote alergia hari. Hala
ere, esan beharra dago hemen
akaro-hautsen alergikoak pole-
nenak baino ugariagoak direla.
Araknido horiek urte osoan dau-
de gurean.

2. Adin eta kopuru aldetik aldaketarik izan da gaixoen artean?

Lore-hautsari alergia izatea
edozein adinekin azal daiteke, eli-
kagai, akaro-hautsak eta botike-
kin bezala. Ez gara alergikoak
jaiotzez, bihurtu egiten gara. 4 edo
5 urterekin ager daiteke, baita 60
pasatxo izanda ere. Ohikoena da
gaztaroan azaltzea.

3. Zein arrazoiengatik azal daitezke alergia horiek guztiak?

Egun, gizartearen %20k dute
arnas alergiaren bat. 2020rako
erdiak izatea espero da. Igoera
hori zenbait faktorek eragiten
dute, hala nola genetikoek eta
ingurunearen ingurukoek.

4. Polenaz gain, hainbat frutak ere alergia ematen dute. Zeintzuk dira?

Edozein fruta edo fruitu leho-
rrek eman dezake. Gurean, ara-
zo handien ematen dutenak melo-
kotoia eta haren tankerako arbe-
letzeko, nektarina eta aranak
dira. Kiwi eta fruta exotikoekin
lotuta gero eta kasu gehiago dau-
de. Hemen, gainera, fruitu leho-
rrei alergia diotenak asko dira,
hala nola intxaurrari. Kontuan
hartzekoa da polenak eta frutek
jatorri bera dutela, begetala.

5. Zer egin dezake alergia sintomak dituen pertsona batek?

Sintomak dituen alergolo-
go batekin jarri behar du harre-
manetan, zer alergia mota duen
jakiteko eta ekiditeko. Hori ezi-
nezkoa bada, tratamendua jarrai-
tu beharko du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

asteko datua

3

Maria Jose Gil arrasatearrak
hiru domina lortu zituen pasa-
den asteburuko Espainiako
txapelketan. 800 nahiz 3.000
metroko lasterketetan erre-
kor berria egin zuen. 1.500
metrokoan, hiru segunduga-
tik ez zuen lortu.

IRAUNKORTASUNA > MUGIKORTASUN PLANA

Nafarroa etorbidea izango da etorkizunean ardatz nagusia

Arrasaten dauden ibilgailu kopurua kontuan hartuta (13.000), beharko liriateke 65 kilometro aparkaleku, Arrasatetik Donostiara beste

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasaten aplikatzen dabilen Mugikortasun Planaren gainean azalpenak eman ditu asteon Udalak. Martitzenean herritarren aurrean (30 bat egon ziren) eta eguaztenean prentsaren aurrean. Plan hori Kataluniako Intra enpresak diseinatu du.

Oro har, alkateak zein Intra-ko Ole Thorsonek defendatu zuten herrian autoen erabilera txikitu egin behar dela. Iraunkortasuna indartzeko, oinezkoekiko errespetua areagotzeko eta herriko bizi kalitatea hobetzeko. Halaber, orain arte aplikatutako neurrien



UDALETXEAN Intra enpresako Ole Thorson eta Inazio Lakuntza alkatea, prentsurrekoan, eguaztenean.

U.M.

eraginkortasuna azpimarratu zuten, tartean, Garibai oinezkoendako egokitu izana. Nabarmendu zuten etorbide hori bi urtean itxita egon dela obregatik eta orduan ikusi dela bideragarria dela hura itxi eta zirkulazioa erdi-

gunetik kentzea. Horren harira, jakinarazi zuten etorkizunean Nafarroa etorbidea Arrasateko errepide nagusi izateko indartuko dutela. Maala kalean bi noranzko sortuko dituztela Gelmako obrek utzi bezain laster (urtebe-

te barru) eta herriaren sarrertan seinaleak ipiniko dituztela, erdigunetik autorik pasatu ezin dela adierazteko. Onartu zuten orain arte aplikatutako neurrien gaineko informazio gutxiegi helarazi dietela herritarrei.

ZAHARTZAROA

Eguenean, batzar orokorra Abaroan

Bazkideen kuotak ordaintzeko epea luzatu egin dute martxoaren 31ra arte

U.M. > ARRASATE

Abaroa zaharren egoitzatik abisatu dute datorren eguenean, martxoaren 15ean, urteko batzar orokorra egingo dutela. Hitzordua 17:00etan da, egoitzako joko aretoan. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: iazko jardunaren gaineko balorazioa eta balantze ekonomikoa; aurtengo aurrekontua eta Abaroaren leku aldaketa.

KUOTAK


Bestalde, egoitzatik jakinarazi dute luzatu egin dutela kuotak ordaintzeko epea, martxoaren 31ra arte. Halaber, azpimarratu dute ezinbestekoa dela kuota ordaintzea egoitzan egiten dituzten ekitaldietan parte hartzeko.

• Gorputz-tratamenduak

Zelulitisaren aurka, tinkatzailea, hanketako pisu-sentsazioaren aurka.

• Gorputz-mesoterapia


Erreduktorea, tinkatzailea, eta abar.



Biguntasunaren kontrako mesoterapia

Mesoterapia abdominala

Izter zabalen aurkako mesoterapia



Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Momentua iritsi da. Zuk nahi izanez gero, guk lagunduko dizugu.



Biguntasunaren aurkako terapiak

Vistabel (Botox)

Terapia betegarriak

• Aurpegi-tratamenduak:

hidratazioa, tonifikazioa, zimurren aurka

• Aurpegi-mesoterapia:

betetzeak, tinkatzailea, Vistabel (Botox)

BIRZIKLATZEA > OLIOA BATZEKO POTEAK

Etkez etxe olio batzeko 9.000 pote banatzen hasiko dira

Estatuan eta Europan proiektu aitzindaria izango da; olioak batzeko poteak eta edukiontzia Goi Eskola Politeknikoan pentsatu eta diseinatu dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE

Datozen egunotan, etxeko aurrean utziko dituzte etxeko olio batzeko pote berriak, Udalen eta Eskola Politeknikoaren elkarlanari esker sortutakoak. "Arrasateko etxebizitza guztietan banatuko ditugu, baita baserrietan ere", adierazi du proiektuaren arduradun Rafa Ugarte udal teknikariak. Gaineratu duenez, pote barruetan utziko dute esku-rri bat proiektuaren gaineko azalpenak ematen eta pote berriak zelan erabili esplikatzen.

Pote horietako bakoitzean kabitzen da litro bat olio. Hala,

bete ostean, Arrasateko zazpi puntutan ipiniko dituzten edukiontzietara bota behar dira poteok. Hori egitean, edukiontzitik beste pote bat aterako zaio erabiltzaileari.

Edukiontziek berde kolorea izango dute; metro bi garai eta 1,80 metro zabal izango dira.

HASTEKO, HIRU EDUKIONTZI

Martxoaren amaiera edo apirilaren hasierarako lehenengo hiru edukiontzia kalean gertu izango ditugu: Maiatzaren Bata plaza, Eroskin eta San Frantzisko biribilgunetik gertu (Okore-



UDALETXEAN Udaletxean daude poteak; argazkian, Pello Garai udal teknikaria. U.M.

tegi parean). Gainerako lau edukiontzia apirilean ipiniko dituzte, honako beste lau puntuetan: Laubide plaza, Udala plaza, San Antolinen (eskola ondoan) eta Zaldibar frontoiaren ondoan.

Olio batzeko poteak eta edukiontzia Eskola Politeknikoan asmatu eta diseinatu dituzte, Udalarekin egindako elkarlanerako hitzarmen baten harira.

Proiektua lantzen hasi ziren orain hiru urte, Diseinu Industrial ikasten zebiltzan Jon Alvarez eta Iker Jauregi. Iaz, Josu Perez eta Sara Aldai ikasleek bukatu zuten proiektua eta aurreten beste bi dabilta poteak-eta lantzen. Aldaik azaldu du Udalaren hasierako asmoa zela pote estandar bat asmatzea, "baina Eskolan erabaki zuten hori ez zela nahikoa, eta, potea asmatzeaz gainera, olioak batzeko zerbitzu osoa eskainiko zuen zerbait asmatu behar zela. Potea eta pote barruko batzeko edukiontzia, biak egin ditugu. Eta modu horretan, herritarrek eguneko edozein momentutan eraman dezakete olio edukiontzietara".

Gero, olio hori batuko du Ecogras enpresak, orain batzen duen enpresa berak. Birziklatu eta bio diesela egiteko erabiltzen dute, Bionorren. Ecograsen harira, esan beharra dago haiek Udalari adierazi diotela "etorkizun handiko" proiektua dela orain abiarazi duten hau.

SISTEMA AITZINDARIA

Patentea eskatu dute Estatuan eta Europan

Olio batzeko poteak eta edukiontzia Arrasaten asmatutakoak dira, Goi Eskola Politeknikoan; egin, berriz, Legazpiko Plasticos Urola kooperatiba dabil egiten. Hala, Udaleko teknikari Rafa Ugarte azaldu digu sistema berritzaile horren gaineko patenteak eskatuta dituztela; Fagorrek eskatu duela, hain zuzen ere: "Orain dela bi urte eskatu genuen Estatuan eta Europako eskatu genuen iazko amaieran. Baina hori ez dugu egin irabazi ekonomikoak lortzearen, baizik eta proiektua babestearren".

> NORTASUN AGIRIAK

Nortasun agiriak egiteko zerbitzuaren maiztasuna handitzea eskatu dute Gobernu Ordezkaritzan

Nortasun agirien tramitazioa dela-eta azkenaldiko jende pilaketaren aurrean, Udalak bi jakinarazpen egin ditu. Argitu du lan hori "ez dela Udalaren eskumena, Estatuarena baizik, eta hortaz, Udalak ez duela gai hau kudeatzen". Eta zera gaineratu du: "Udala saiatzen ari da maiztasuna areagotzeko, eta Gobernu Ordezkaritzarekin harremanetan jarri gara". Erantzunaren zain dago orain.

> SALAKETAK

Ezker Batuko bi zinegotzik ibilgetuen agentzia bateko ugazaba salatu dute, mehatxatzeagatik

Eztabaida pertsonal baten harira, joan den asteburuan Arrasateko kaleetan Ander Rodriguez zinegotziaren kontrako paskin batzuk azaldu ziren, haren gaineko datu pertsonalekin. Herriko ibilgetuen agentzia bateko ugazabak ipini zituen. Horregatik eta otsailaren 23an Rodriguez eta Ugalde EBko zinegotzien kontra "indarkeria erabiltzearen eta mehatxuak egitearren" salaketa ipini dute Ertzaindegian.

OBRAK > SANTA TERESAKO ELIZA BERRITZEA

Bazkide gehiago behar dituzte elizako lanak finantzatzeko

Oraingoz, 20 herritar joan zaie obregatik interesa erakusten

Bazkide gehiago lortzeko kontu korrante bi zabaldu dituzte

U.M > ARRASATE

Santa Teresa eliza segurtasun eta ailegarratasun arauetara egokitzeko eta eraikinean beste hainbat berrikuntza egiteko laguntza behar dute parrokiak. 251.540,47 euroko aurrekontua dute eliza berritzeko obrek.

Guztiaren gaineko informazioa emateko eta bazkideak lortzeko hiru batzar egin dituzte; azken joan den domekan. Pedro Urangak, Santa Teresako apaiz arduradunak, esan du 20 lagun inguru joan dela informazio eske.

ZELAN EGIN BAZKIDE

Halaber, Urangak jakinarazi du aukera bi daudela bazkide izateko: hilean edo urtean kuota jakin bat ordaindu edo norberak gura duenean kopuru bat kontu korrantean sartu. Bi zabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan: 3035 0055 17 05 5 104 19 05; eta Kutxan: 2101 0097 45 0 1111 82 408.

Obrei dagokienez, proiektua LKS enpresak egin du. Hasi, berriz, San Isidro (maiatzak 15) inguruan hasi gura dituzte, udako eguraldi ona aprobetxatzeko.

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74



ESKOLA BEREKOAK Ezkerretik eskumara Ruiz, Mateos eta Uriarte; Monterronen ikasi zuten margotzen.

IKER BARANDIARAN

ERAKUSKETAK > HARRESI ARETOAN ETA ARREGI GALERIAN

Hiru arrasatearren margolan klasikoak ikusgai daude Harresin

Gloria Uriarte, Angelines Ruiz eta Francisco Mateos 'Txikuri'-k dute erakusketak Harresi aretoan; Iñigo Manterolak, berriz, Arregi galerian

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Bihartik, zapatua, hilaren 25era bitartean Arrasateko hiru margolariren erakusketak ikusgai egongo da Harresi aretoan. Hiru margolariak ezagunak dira herrian: Gloria Uriarte, Angelines Ruiz eta Francisco Mateos Txikuri.

Hirurak erretiratuta daude, eta orain margotzeko denbora luzeagoa dutela aitortu digute. Monterronen ematen dituzten margo eskoletan ezagutu eta

elkartu egin ziren; Amaia Bengoa izan da euren irakaslea. Orain euren kontu margotzen dute, baina harremana dute oraindik.

LAN FIGURATIBOAK

Bada, hiru arrasatearrek hainbat margolan zituzten etxean. Hala, elkarren artean berba egin eta Udalera jo zuten talde erakusketak egiteko asmoz.

Hiruren artean 50 lan batu dituzte: 25 Mateosek, 10 Ruizek eta 15 Uriartek. Gehientsuenak lan

figuratiboak dira: "Gaur egun abstraktuak-eta egiteko joera dago, baina guk gurago dugu teknika klasikoagoak erabili, gure-agoak", azaldu digute.

IÑIGO MANTEROLA, ARREGIN

Bestalde, Maala kaleko Arregi galerian margolanen beste erakusketak bat dago ikusgai. Iñigo Manterola oriotarrak hainbat olio eraman ditu Iñigo Arregiren dendara.

Manterolak figurazioa lantzen du, eta aspaldian kostaldeko gaiak aukeratzen ditu. Euskal Herriaz gain, Bartzelonan, Madrilan, Gironan eta beste leku batzuetan erakusketak egin ditu eta saritu egin dute.

IKASTAROAK > KOMIKI TAILERRA

Komikien tailerra zapatuan hasiko dute, taldea osatzeko lagun gehiago batzen badira

Julen Rivas eta Unai Busturia komikilari arrasatearrek emango dute tailerra, zapatu goizetan, bi orduz, Kulturaten

rua prestatzen dihardute. Hortaz, *Aitarene, alabaren eta Mari-zen izenean* trilogia egiteko bidean doaz.

FANTZINEA EGITEKO AUKERA

Busturiak azaldu digu tailerra bihar, zapatua, hasteko asmoa dutela. 11:00etatik 13:00etara bitartean egingo dute, Kulturaten, bederatzi zapatutan. Taldea osatzear dago; hortaz, interesa duenak Kulturatera jo dezala.

Marrazketaren oinarriak, komikiaren narratiba eta pertsonaien sorrera, tintak eta koloreak erabiltzea, maketazioa eta orrialdeen konposaketa azalduko dituzte tailerrean, besteak beste.

Horrez gain, bi adituek asmoa dute tailerrean elkartutakoekin fantzine edo bildumaren batzuk egiteko.

I.B. > ARRASATE

Udaleko Gazte Sailak komiki tailerra antolatu du, eta herriko bi aditurengana jo du horren ardura har dezaten. Hain zuzen, Unai Busturiak eta Julen Rivas-ek gidatuko dute tailerra.

Biek ala biek eskarmentu handia dute komikien alorrean. Hain zuzen ere, orain dela 2 urte, *Numenak*, *aita* liburua argitaratu zuten; eta azken hila-beteotan *Numenak*, *alaba* libu-

> MUSIKA

Eskorbuto taldeko Josuren omenez kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean

Aurten 15 urte beteko dira Eskorbuto taldeko gitarra jotzaile Josu Exposito hil zela. Santurtziko talde horrek zeresan handia eman zuen 80ko hamarkadan, baina 1992an hil ziren taldearen bi *arimak*, Josu eta Juanma. Santurtziko lagunak omenaldia egin gura diote Josuri, eta busto bat jarri gura dute. Hortaz, omenaldiko eta bustoaren gastuei aurre egiteko, hainbat kontzertu egingo dituzte. Lehen Arrasaten egingo dute, gaur, egubakoitza, eta horretarako Oñatiko Gazte Asanbladaren laguntza izango dute. Honako taldeek esku hartuko dute: Josu Distorsion y los del Puente Romano, Subversion X, Karretera Agropecuaria eta Oñatiko talde bat: Klinexa eta Kaka Arrastua Kumunzuluan.

> MUSIKA ETA EUSKARA

Ramones taldea berbegai izango dute gaztetxean, AEDk antolatutako jardunaldietan

AEDk musikaren gaineko jardunaldiak egiten dihardu martxoan, *Hitz egin dezagun musikaz* leloarekin. Herenegun, eguaztena, herriko musika taldeen arteko mahai-ingurua egin zuten gaztetxean. Eta eguenean, hilaren 15ean, Gotzon Hermosilla kazetari bilbotarrak *Ramones, familia maitagarria* liburua aurkeztuko du gaztetxean, 19:00etan. Bide batez, Hermostillak AEBetako punkaren talde aitzindari horren gainean berba egingo du.

Datozen asteetan ere izango dira musikarekin lotutako beste ekimen batzuk: Paddy Rekalde idazle deustuarrak The Clash taldearen gaineko berbaldia egingo du; eta punk eta oil musiken sorreraren gaineko mahai-ingurua ere egingo dute.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua

Espezialitateak:

legatz kokotzak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

arbolapeta



Oporretara joan nahi?

Kontsulta egizu Arrasate Marsans Bidaiak-en eskaintza bereziak



MARTXOA

Lanzarote

7 gau 220 €-tik aurrera

Mexiko

7 gau 599 €-tik aurrera

Kanaria Handia

7 gau 271 €-tik aurrera



ITSAS BIDAIETAN

Mediterranea,
hiriburu baltikoak,
adriatikoa eta
greziar irlak

Aldez aurretiko salmenta
%17rainoko deskontua

PAZKO-ASTEA

Mallorca

6 gau 390 €-tik aurrera

Menorca

6 gau 419 €-tik aurrera

Tunisia

7 egun / 6 gau 459 €-tik aurrera

Malta

6 egun 459 €-tik aurrera

Dubrovnik

6 gau 555 €-tik aurrera

Itsas bidaia

Adriatikoa 8 egun 823 €-tik aurrera



2x1 KARIBEA

Udaberria - Uda 2007

Astebetez - Dena barne - 699 €



ETA UDARA BEGIRA, ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EGINEZ GERO...

**Balear irlak, Karibea, Kanariar irlak
%9rainoko deskontua**

**Europar zirkuituak
%15erainoko deskontua**

> BESAIDE ME 'Ardoaren ibilbidea' egingo dute Besaidekoek etzi

Oinez egiten dituzten mendi zeharkaldiekin jarraituz, Besaide Mendi Elkarteko lagunek domekan egingo dute Mendatetik Durangora arteko mendi ibilaldia.

Horrekin batera, datorren asteburuan –martxoak 17 eta 18– Saint Laryra (Frantzia) mendiko eskia egitea joan gura dutenek astelehenean, hilak 12, edo martitzenean, hilak 13, eman beharko dute izena Besaiden. 19:30etik 20:30era egingo dira izenak hartzen.

> ESKUBALOA Ford Mugarri, liderraren kantuan indarrak neurtzera

Joan den astean Donibaneri irabazita, asteburuan liderraren kantzara egingo du bidaia Ford Mugarri Arrasatek. Tecnifuelle Elgoibarrek oraindik ez du norgehiagokarik galdu, eta Arrasatekoen kontra horrela gura dute jarraitu. Balerdiren mutilak ez daude irabaztera behartuta; izan ere, garaipena saria izango litzateke, eta horregatik, liderraren aurrean ausart jokatzeko aukera dute.

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Maria Jose Gil, berriro ere jaun eta jabe Espainiako Txapelketan

Arrasatekoak urrezko hiru domina ekarri ditu Oviedon egin dituzten txapelketetatik.

Gainera, Espainiako errekorra hautsi du proba bitan

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Espainiako Txapelketan parte hartzen duen bakoitzean, Maria Jose Gil dominez beteta itzultzen da etxera. Joan den asteburu ez da salbuespena izan, esku hartu duen hiru probetan Arrasatekoa izan da eta azkarrena. 800 metroko lasterketan 3 minutu eta 18 segundoko denbora egin zuen –Espainiako errekor berria–, 1.500 metroko lasterketan 6 minutu eta 3 segundo –hiru segundogatik ez zuen errekorra gainditu– eta 3.000 metroko proban 13 minutu eta 25 segundotan geratu zuen erlojua –Espainiako erre-



SASOI BETEAN 66 urteko atleta markak hausten dabil.

GOIENKARIA

kor berria; aurreko marka ere harena zen, eta 20 segundo hobetu du. Hala, Arrasatekoak marka berria ezarri du 800 eta 3.000 metroko lasterketan. Asteburuko emaitzekin, Gil "oso pozik" dago, eta "gogor entrenatzen jarraitzeko asmoarekin", onen artean segitzeko.

LANDER ERRASTI ZARAGOZAN

Arrasateko pertika jauzilari gazteak ez zuen entrenamenduetan erakutsitakoa Zaragozan erakutsi ahal izan, ezin izan zuen eta 4,40 metroko saltoa egin. Errasti gauza da 4,50 metroko saltoa egiteko, eta lehenago edo geroago txapelketan erakutsiko du hori.

futbito zaldibar

EMAITZAK

Lasagabaster-Abokajarro	3-1
Dribling-HLB 108	4-1
THC-Citrus	3-5
Cipris-Mc Auen Dauen	8-4
Saukelu Abian-Iturriotz Tab.	5-2
Iluntz-Betrayer	0-5
Equus-AT Celaya	1-6
Dublin Irish Pub-Man.Pippol	2-3
Iriztu Taberna-Billy & The Cowboys	4-1

PARTIDUAK

Martxoak 10, zapatua	Epaileak
09:50 Iluntz-Manh.Pippol	Betrayer
11:00 Betrayer-Cipris Tab.	Iluntz
12:00 Equus-Billy & The	Abokajarro
13:00 Abokajarro-Citrus	Billy & The
15:50 McAuen Da.-Dribling	THC
17:00 THC-Iturriotz Tab.	Mc Auen Dauen
Martxoak 11, domeka.	Epaileak
10:50 HLB 108-Lasagabaster	AT Celaya
12:00 Saukelu Abian-AT Celaya	Lasagab.
13:00 Dublin Irish-Iriztu Tab.	Saukelu Ab.

SAILKAPENA

	P	J
1. Saukelu Abian	34	12
2. AT Celaya	29	12
3. Dribling	28	12
4. Betrayer	25	11
5. Iluntz	23	12
6. Cipris	22	12
7. HLB 108	21	12
8. Iriztu Taberna	18	12
9. Lasagabaster	17	12
10. Abokajarro	17	12
11. Manhattan Pippol	17	12
12. Mc Auen Dauen	14	12
13. Dublin Irish Pub	12	11
14. Iturriotz Taberna	10	12
15. Billy & The Cowboys	7	12
16. Equus	6	12
17. Citrus	6	12
18. THC	4	12

Hitz egin eta nabigatu 1€*-ren truke

Proba ezazu 3 hilabetetan, hilean  bakarrik ordainduta

Telefoniaren hileko kuota + Finkoetako deiak 24 orduetan + 3 megako Banda Zabala

...eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean 10€ gehiagoren truke

ROUTER COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
☎ 943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
☎ 943 71 27 81

* Sustapen honek 2007ko martxoaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Sustapena amaitu ondoren, produktu guztiek kontratatuta segituko dute, bezeroak besterik jakinarazten ez bada. Telefono Finkoetara eguneko 24 orduetan egindako deiak, Ahots Tarifa Finkoaren baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorrak. Gehienez, hilean 5.000 minutu. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15,5 €, Ahots Tarifa Finkoa 13 € eta 3 megako Banda Zabala 39 € eta TB Osoa 25,90 € (deskodemtze gabe). Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du. Galdetu Euskaltelen saltokietan sustapen honen baldintzei buruz.

bote prontuen

Agurtzane Urizar > Dendaria

"Hizketalditxoa izango nuke Artzakekin"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Bizigarri izeneko denda zabaldu berri du Monterron ondoan. Hilabete pasatxo baino ez darma aurrez prestatutako jakiak, ardoak eta delikatesen produktuak saltzen. Denbora nahikoa, hala ere, arrasatearren gustuak ezagutzeko...

Zer saltzen duzu gehien?

Plater aurrekoizinatua. Horien artean, bakailoa pil-pilean. Nahiko garesti, gainera. Ona dena garestia ere bada, hemen eta Salamancan.

Ondo jaten dugu hemen?

Beste herrialde batzuekin konparatuta, bai. Gure asmoa, behintzat, hori da. Beharbada, kalitate aldetik esango dute kolesterol eta koipe maila handia dutela jakiek, baina euskaldunentzako ondo jatea oso inportantea izan da beti.

Begetarianoek ere badute tokia?

Gero eta gehiago. Dendan *linea naturala* moduan ezagutzen dena daukagu. Okela jaten ez duen jendearentzako da, eta nahiko ondo saltzen da.



Zein da zure jaki ideala?

Baba gorriak, baina gaizki prestatzen ditut...

Ardo gustatzen zaizu?

Bai. Ardo beltza, Errioxakoa edo beste nonbaitekoa. Aurrekoan, Australiako bat edan nuen eta oso ona iruditu zitzaidan. Jendea ez da ausartzen ezagutzen ez duen marka bat erostera.

Norekin bazkalduko zenuke?

Artzakekin. Diru apur bat daukadanean joango naiz. Asko daki janariaren gainean, eta hizketalditxoa izango nuke harekin. Gero, haren platerak salduko nituzke.

Gero plagioa salatuko du hark...

Artisten obrak kopia daitezke. Baimena eskatuko nioke nire lokalean edukitzeko, nahiz eta Artzaken errezeta dela jarri behar izan.

Nor gonbidatuko zenuke bazkaltzera?

Lagun bat edo bi. Edo hiru, diru asko badago.

bere ustez



Nerea Makazaga

Testu galduen piku-ondoan

Elkarriketa hartako leku berera itzuli naiz eta piku-ondo berdinaren azpian hartu dut lekua. Sortez ez zen hosto berririk jaioko eta argiak ez du bonbillen wattet mugatzen diotena baino gehiago ematerik izango.

Sintesi nahastua berreskuratutako memoriako soketatik, soilik testu honetan erreproduzitu nahi nuelako, testu honek behingoz lurperatu zezan horrenbeste egunez kondatua izandakoa.

Puzzle jokoetan, lehen fotografiatutako paisaia berresku-

"Hitz konpartituak ziren banakoaren gainean, eta nik memoriari bereizi nizkion"

ratzerik ez zela esan bagenuen, ez dakit nork ez zerk ausartzen nauen hau idaztera. Banakako komunikazioan zarataren indarrak hitz egin ostean, horrenbeste egunek kutsatu dute niri soilik esaten dizkiodan berbak, zeren ez dago zarata bortitzagorik denborak dakarrena baino. Berba konpartituak izan ziren banakoaren gainean, eta nik memoriari bereizi nizkion horrenbestez.

Eta orain une hartan dagoeneko ezberdin ulertuko genuena, inoiz izan den ezberdina izango du seguruenik. Aitzitik, testu hau ez da ideia beraren beste kontzepzio bat baino.

Elkarriketa hura erreproduzitu nahi nuen, baina gaurko zu etorri arteko beste bakarriketa ezberdin bat eta testu hau ez da izango izan zitekeenaren berdina.

hau be badaukogu

'Sut&Blai' Goienako instalazioak bisitatzen izan zen pasa den martitzenean

Jon Berezibar, Ixone Serrano eta Asier Sala Goienako lankide gazteek Otalora kaleko instalazioak erakutsi zizkieten martitzenean *Sut&Blai* saioko aurkezleetako bati, Naroa Iturriri. Astelehenetik eguenera bitartean, ETB1ean emititzen duten hamar minutuko tartea da, nerabeei bereziki zuzendutakoa. Ixone Serranok GOITBko programazioaz eta, bereziki, berak aurkezten duen *Musikantoi* saio berriaz hitz egin zuen. Arrasate eta gazteriaz ere berba egin zuen. Asier Sala teknikariak bere lanbideari buruzko xehetasunak azaldu zituen bitartean, Jon Berezibar irratiaz eta telematikaz aritu zen. Bi aste barru botako dute ETB1en.



JON BEREZIBAR

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebuden hizkiak

DOMINGO IRALA KALEA > BILERA EGIN DUTE HIRIGINTZAKO ETA ENPRESAKO ARDURADUNEK

Domingo Irala kaleko lanek geldi jarraituko dute, oraingoz behintzat

Dendariendako pasabidea egokitu dute zerbitzua eskaini ahal izateko eta lan batzuk egin dituzte obretan segurtasuna erabat bermatzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Domingo Irala kaleko lanek geldi jarraituko dute. Epaitegiak justizia administrari batzuk aukeratu behar ditu, eta haiek erabakiko dute zer egin obrek: bertan behera utzi edo aurrera jarraitu. Asteko azken egun hauetan aukeratu behar dituzte administrariak.

OBRAK GELDI

Administrari horiek erabakia noiz hartuko duten, ordea, zehazteke dago oraindik, eta ordura



PASABIDEA Komertzioetara errezago joateko pasabideak egin dituzte.

O.E.

arte ez da jakingo zer gertatuko den Domingo Iralako lanekin.

Administrari horiek aztertu behar dute orain arteko lanak egin dituen Ozio enpresa gai den

proiektu guztia bukatzeko, edo ez, nahiz eta enpresa horrek ordainketa-etendura aitortu zuen otsailaren 15ean. Bigarren kasuan, egiteke dauden lanak beste enpre-

sa bati adjudikatuko dizkio Udalak. Horrek, ordea, ez dituela obrak atzeratuko uste du Victoriano Gallastegi alkateak: "Guk nahi dugu ahalik eta lasterren

jakin administrarien erabakia. Eskatu diegu lehentasuna ematea Bergarako proiektu horri. Hala ere, beste enpresa batek egin behar baditu lanak, galdutako denbora erreperatzen, behintzat, saiatzeko eskatuko diogu. Uste dut lanak ez direla horrenbeste atzeratuko".

KOMERTZIOEI PASABIDEA

Ozio enpresako arduradunekin batera egin zuten bilera Hirigintzako teknikariek eta alkateak martitzenean. Han egin zuten berba egungo egoeraz.

Horren harira, kale horretako alde batean dauden komertzioek zerbitzua egoki eman dezaten pasabidea jarri die Udalak. Bestalde, obretan solte gelditu diren bi puntutan ere lanak egin dituzte Udaleko langileek. "Lanak hesiarekin babestuta daude, baina gasaren eta argiaren bi puntutan egin dituzte lanak, segurtasuna erabat bermatzeko", azaldu du alkateak.

Gabero irabazi du gazteen arteko koadrila lehiaketa

Gabero taldeak irabazi zu gazteen arteko koadrila lehiaketa. Jardunek antolatutako eta otsaileko egubakoitzetan 12 eta 17 urte arteko bost taldek hartu dute parte. Lau proba gainditu behar izan dituzte taldeek: argazki rallya, patata tortilla, mingain-luze eta grafiti proba. Puntuazioa izan da: Gabero (34), Koadrila Primatika (32), Marikarmen (24), Ipotxlandia (18), Marko (14). Irabazleak rafting-a egitera joango dira Bidarraira, Errobi jaistera, maiatzeko asteburu baten.



JARDUN

LANPOSTUAK > UDALTZAIN PLAZAK

Bi udaltzain kontratatu orde, hiru hartuko dituzte

Egun 15 udaltzain daude Bergarako Udalean, eta beste hirurekin lantaldea osatzea da asmoa

O.E. > BERGARA

Bi udaltzain hartu orde, hiru hartuko dituzte. Udalak ikusi du bi udaltzain hartuta oraindik osatu gabe geldituko dela lantaldea eta aukerak daudela urtean zehar plaza bat hutsik gelditzeko. Eta horregatik erabaki du bi udaltzain kontrata-

tu orde hiru kontratatzena. Erabaki horrek, hala ere, ez du prozesua aldatuko.

18 UDALTZAIN EGONGO DIRA

Gaur egun 15 udaltzain daude Bergarako udaletxean. Horietako bat liberatuta dago, beraz, 14k dihardute udaltzain lanetan. Sartuko diren hiru berriekin, 18 izango dira guztira. Aste barruan bi txandatan egiten dute lana, goizetik batzuk eta arratsaldetik beste batzuk. Txanda bakoitzean lau udaltzain eta kaboa egoten dira, gutxienez. Zirkulazioa zaintzen ematen dituzte ordu gehien.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



HARRIA Koldo Azkoitiak, Victoriano Gallastegik eta Joxe Joan Gonzalez Txabarrik jarri zuten lehen harria.

O.E.

ETXEBIZITZAK > KAMINEROEN ETXEAN

Hasi dira San Antonioko etxebizitzak egiten

Guztira, 38 etxebizitza tasatu eta Udalak erabiliko duen lokal bat egingo dituzte eraikin berrian, eta 2008ko ekainerako bukatu nahi dituzte lanak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Antonion 38 etxebizitza tasatu egingo dituzte Kamineroen etxea eta biltegia egondako orubean. Astelehenean jarri zuten lehen harria Victoriano Gallastegi alkateak, Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak eta Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuak.

Etxebizitzak erdiko lau solairuetan egingo dituzte eta tamaina askotarikoak izango dira: gela bakarreko bederatzia, bi gelako 20, hiru gelako zortzi, duplexak eta mugikortasun murriztua dutenendako beste bat. Bi orientazio izango dute guztiek.

DATUA

21

BERGARARRENDAKO

San Antonion egingo dituzten 38 etxebizitzetatik 21 bergarrendako izango dira: 13 orosteko (bat, bi eta hiru logelakoak) eta zortzi alokairuan hartzeko (denak logela bakarrekoak).

PREZIOAK

Egingo dituzten 38 etxebizitza horietatik 30 saldu egingo dituzte eta beste zortziak alokatzeko izango dira. Salduko dituzten etxebizitzaren prezioak azaleraren arabera izango dira: 87.000 euro eta 190.000 euro artean ibiliko dira. Alokairuan emango dituztenak salmenta prezioaren %5aren adinako errenta izango dute. Bestalde, 75 urte barru elkarte publikoarendako izango da saldutako etxebizitzaren azalera; espekulazioari aurre egitea da horren helburua.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

San Antonioko etxebizitza berri horiek Gipuzkoako Aldundiak bultzatu ditu, Etorlur elkarte publikoaren bitartez. Salduko dituzten 13 etxebizitza Bergaran bizi direnendako izango dira; 11 Debagoieneko beste herritarrendako eta sei, Gipuzkoan bizi direnendako. Izena Bergarako udal txean, Etorlurren edo Suradesan eman dezake interesatuak.

ENPRESAK > OSASUNA ETA LAN SEGURTASUNA

Segurtasuna landu dute Arcelorren

Gerta daitezkeen istripuak nola ekidin erakutsi diete 293 langile baino gehiagori

O.E. > BERGARA

Lan segurtasunari eta osasunari buruzko jardunaldiak egin dituzte asteon Arcelor enpresan. Enpresako 293 langilek eta Arcelorrek azpikontratatuta dituen langile batzuek hartu dute parte. Helburua izan da langileei erakustea nola ekidin lan istripuak. Izan ere, enpresako ordezkarien esanetan, ardura nagusia langilearena da, enpresak baliabideak jarri

arren. Horrela, lau erakustaldi egin dituzte lantegi barruan: lehenengoan, igo eta jaisteko aparailuak nola erabili erakutsi diete langileei; bigarrenean, zer egin eta nola itzali sute bat; hirugarrenean, alturako lanak egiteko ze neurri hartu behar diren; eta laugarrenean, osasuna orokorrean (bihotza, kolesterola...) landu dute. Hitzaldiak ere egin dituzte enpresa ondolan jarritako karpaz azpian.



ANGIOZARKO ESKOLA

Ereñozuko ikasleak Angiozarren

Ereñozu eskolako ikasleak Angiozarren egon dira, hango ikasleei bisita egiten. Bisita bitxia izan da, ordea: ikasleek maskotak eman dizkiete elkarri. Hain zuzen ere, Ereñozuko txikiak Txato txakurra eraman dute eta Angiozarkoek Leo lehoia zaintzeko ardura hartu dute. Ea nola moldatzen diren maskotak jabe berriekin!

> ERRETIRATUAK

Besaidera mendi irteera antolatu du San Joxepe erretiratuen elkarteak martxoaren 22rako

Mendi irteera antolatu du San Joxepe erretiratuen elkarteak. Martxoaren 22an izango da. Bergaratik irten eta Kanpazarrera, Besaidera eta Udalara joango dira. Hantxe bazkalduko dute, Udalako jatetxean. Irteera autobus geltokitik izango da, 09:30ean. Mendi irteerara joan nahi duenak 20 euro ordaindu behar ditu San Joxepe elkartearen. Informazio gehiago ere hantxe emango diote.

Diodo bidezko laser depilazioa: eraginkorra eta azkarra


GORPUTZ GUZTIRAKO DEPILAZIOA:

- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko 4 edo 6 saio
- Osasunean profesional direnek egina

Estetika zentroa
Igaro

Presta zaitez
udarako, orain!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ARISTEGI
iturgintza

Tel.: 943 76 25 57

Mug.: 646 02 16 94

Ibargarai hiribidea 32-04.B
BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a

ANTZUOLA

Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

DANTZAK > IKASTAROAK ABIAN

Euskal dantza ikastaroetan, 40 lagun

Jardun euskara elkartearen eta Abarka dantza taldearen eskutik, martxotik maiatzera

EDU MENDIBIL > BERGARA

Jardun elkartearen eta Abarka dantza taldearen eskutik euskal dantzen ikastaroak abian jarri zituzten martitzenean, martxoaren 6an. Ikastaroak maiatzera bitarteko martitzenetan izango dira, Aranzadi Ikastolako gimnasioan: fandangoa eta arin arina ikasteko aukera izango da 19:00etan, eta 20:00etan erromerietako beste dantza batzuk landuko dituzte: zazpi jauzi, zortzi-koa, aureskua eta banakoa, bes-

teak beste. Juantxo Urbieta eta Abarkako hainbat kide eta Xamatx dantza taldeko Aintzane Mendizabal eta Arkaitz Arana arituko dira irakasle lanetan.

Ikastaroak oraingo astean hasi badira ere, interesatuek izena eman dezakete Jarduneko Errotalde jauregian duen bulegora deituta (943 76 36 61 telefonoa) edo ikastaro egunean Aranzadiko gimnasia joanda. Matrikula 24 eurokoa da (30 euro bi ikastaroak eginaz gero).



ERROMERIAK Maiatzaren 4an, 11n eta 18an erromeriak egingo dituzte Munibe plazan.

JARDUN

Oraingo 40 bat lagun ari dira ikastaroetan. Nerea Mendizabal Jarduneko kultura arduradunak esandakoaren arabera, iaz jasotako erantzun bikaina ikusita, aurten ere ikastaroak

antolatzen animatu dira. Joan zen urtean 60 lagun inguruk hartu zuten parte, gehienak emakumezkoak eta adin tarte zabalekoak, 15 urtetik 60 urtera bitartekoak.

MAIATZEAN, ERROMERIAK

Iaz bezala, maiatzeko lehenengo hiru egubakoitzetan erromeriak egingo dituzte: ikasitakoa erakusteko eta dantza zaletasunari eusteko aukera ona.



GOIENKARIA

Gaztetxoei zuzendutako txotxongilo ikastaroa

Udaleko Kultura Zerbitzuak txotxongiloak zelan egin ikasteko ikastaroa antolatu du, Taun-Taun antzerki taldearen laguntzaz. Eskolak bi domekatan izango dira, martxoaren 18an eta 25ean, 17:00etatik 19:00etara, Agorrosin Ekintza Gunean, Iñaki Mata Taun-Tauneko kidea izango da irakaslea. Ikastaroa 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta izenematea doan da. Argibideak eta izenematea (5 euro) kultura etxean, Errotalde jauregian, edo 943 77 91 60 telefono zenbakian.

> ERAKUSKETA

Daniel Txopitearen margo erakusketa Aroztegi aretoan apirilaren 15era arte ikusgai

Daniel Txopitea zenaren margo erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik Aroztegi aretoan: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara

> LITERATURA


Koldo Eleizalde lehiaketa: lanak aurkezteko epea apirilaren 20ra arte izango da zabalik

Koldo Eleizalde XXII. Literatur Lehiaketa deitu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta, horiez gain, ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira. Lanak entregatzeko epea apirilaren 20ra arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 79 telefonoan edo ljimenez@bergara.net helbidean.

> MARGOLARITZA

Aratusteetako argazkiak Nahikariko webgunean eta Idoia Azkarateren erakusketa Donostian


Aratusteetan Nahikari tabernan ateratako argazkiak eskuragarri daude www.nahikari.com helbidean. Bestalde, Idoia Azkaratek margo erakusketa jarri du Donostiako Alde Zaharreko La Colchoneria tabernan, San Bizente kaleko 9. zenbakian.



GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Osintxu 13, behea
943 77 70 57



Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95



FRONTOIA BERRIZ ZABALIK!

Terraza • Pintxo hotzak • Ordutegia: 12:00etatik 22:00etara

Fraiskozuri • Bergara • Tel.: 943 76 41 90



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 

> TXIRRINDULARITZA

Lokatzako kadeteek eta gazteek lasterketa dute asteburuan

Txirrindularitza denboraldia hasi da dagoeneko. Zapatu arratsaldean, Lokatza Ziklismo Eskolako kadeteek Beasainen izango dute lasterketa. Guztira, 47 kilometro bete beharko dituzte eta Lierniko gaina izango dute puntu gogorrena ibilbide osoan zehar.

Domekan, berriz, gazte mailako txanda izango da. Eibarren dute hitzordua. 10:30ean irtengo dira eta 80,6 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Lasterketa horretan, birritan igaroko dute Itziarko gaina.

> ESKUBALOIA

Ligako azken partidua jokatu dute Leitzaranean

Eskubaloian partidua bakarra izango da asteburu honetan. Nagusien mailako mutilek zapatu arratsaldean jokatu dute. Leitzarango taldearen aurka arituko dira, 16:15ean hasita.

Gipuzkoako txapelketako azken partidua izango da hori. Denboraldi bikaina egin dute bergararrek eta igoera fase-rako sailkatuta daude. Hura datorren astean hasiko da, eta hari begira daude. Beste erronka bati aurre egiteko prest daude.

> IGERIKETA

Emaitza onak lortu dituzte juniorrek Euskal Herriko txapelketan

Pasa den asteburuan juniorren Euskal Herriko txapelketa izan zen Azpeitian. Mikel Labaka lehena izan zen 100 estiloan eta bigarrena 50 librean.

Nielka Ibargurennek bigarren postua lortu zuen 50, 100 eta 200 bular probetan. Peru Alustiza laugarren geratu zen 200 estiloan, eta Irati Fernandez zortzigarrena 50 bularrean. Txandakakoan, berriz, Labaka, Ibarguren, Alustiza eta Erik Iñarra hirugarren izan ziren era librean.

PILOTA > UDALAK FRONTOIA BERRITU DUENEZ, EZ DU DIRURIK ORDAINDUKO PARTIDUENGATIK

Aspe pilota enpresak eta Udalak urte honetarako hitzarmena sinatu dute

Udalak egindako proposamena onartu du Aspe; hala, frontoia berritu dutela eta, partiduentatik dirurik ez jasotzearen alde azaldu da pilota enpresa

MIRIAN BITERI > BERGARA

Udalak eta Aspe pilota enpresak hitzarmena sinatu zuten eguaztenez, pilotari profesionalen partiduen inguruan. Lehen akordioa 2005ean izan zen. Aurtengoa, beraz, hirugarrena da.

Aurreko urteetan ez bezala, baldintza berriak ezartzea adostu dela jakinarazi zuen Bergarako alkate Victoriano Gallastegi. Aldaketa nabarmena dago aurtengo hitzarmenean.

Iaz, Udalak frontoia berritu zuen. Teilatua konpondu eta alda-

gelak itxuratzeaz gain, eserleku berriak ipini zituen. Horregatik, han jokatzaren partiduentatik ez dio Asperi diru kopururik ordainduko. Aurrekoetan, 1.200 euro jasotzen zituen pilota enpresak partidua bakoitzeko.

15 PARTIDUTIK GORA

Horretaz gain, urte osoan, lehen mailako 15 partidutik gora Bergaran izatea baldintzatu du Udalak akordioa onartzeko.

Enpresak ez du inolako oztoporik ipini. Aurreko urteetan, 30

partidutik gora egin izan direla gogorarazi zuen Aspeko zuzendari Patxi Mutiloak. Urtariletik gaur arte, Bergarako frontoia zortzi hartu ditu dagoeneko, asteburu honetan izango dena kontuan hartu barik.

Pozik azaldu ziren Victoria Gallastegi eta Patxi Mutilo. 2008an "berdin jarraitzea" espero duela esan zuen alkateak. Mutiloak, berriz, hauxe jakinarazi zuen: "Datozen urteei begira Bergara kontuan izaten jarraituko dugu".



SINATZEA Bergarako alkate Victoriano Gallastegi eta Aspeko zuzendari Patxi Mutiloak, hitzarmena sinatzen.

MIRIAN BITERI

labegaraieta**EMAITZAK**

Errota Gain - Altosporinos	4-3
Deba - Irubide	6-9
Teatekh - Belengua	11-1
Tiki Taka - K. Piperrak	9-5

PARTIDUAK

Martxoak 11, domeka	Epaileak
09:30 Niu Tim - Irubide	Altosporinos
10:30 Belengua - Altosporinos	Niu Tim
11:30 Tiki Taka - Teatekh	Irish Pub
12:30 K. Piperrak - Irish Pub	Tiki Taka
Deba - Errota Gain	atzeratuta

SAILKAPENA

	P	J
1. Errota Gain	42	14
2. Niu Tim	36	14
3. Teatekh	27	14
4. Altosporinos	24	14
5. Tiki Taka	21	14
6. Irish Pub	15	14
7. Irubide	12	14
8. Belengua	9	14
9. K. Piperrak	9	14
10. Deba	3	14


Altosporinos zigortu egin dute, epaitzera ez aurkezteagatik

Altosporinos taldeko mutilei hiru puntuko zigorra ezarri diete, aurreko jardunaldiko partidua bat epaitzera ez aurkezteagatik. Niu Tim eta Irish Pub-en arteko norgehiagoka zuzendu behar zuten, baina ez zen inor azaldu.

Datozen jardunaldietan horrelakorik berriz gertatuz gero, txapelketatik kanporatuko dituztela ohartarazi diete.

Niu Tim eta Irish Pub taldeen arteko partidua, bestalde, hemendik bi asteburura jokatu dela jakinarazi dute.

Jardunaldi honi begira, berriz, azpimarratu beharra dago Deba eta Errota Gain taldeak ez direla lehiatuko. Partidua atzeratu egin da. Lehengo taularen azken postuan dago, hiru puntu baino ez ditu batu denboraldi osoan. Haren aurkaria, berriz, gailurrean dago. Jokaturako partidua guztietatik garaile irten da. 42 puntu ditu, bigarrena -Niu Tim- baino sei gehiago.

MIZPILDI**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!**EUXEBIO II**Irala z/g
Bergara
943 76 07 92**BEHEKO
TABERNA**Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunakANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Azpiegiturak

Egubakoitza / 2007ko martxoaren 9a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



TRANBIA
•
GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA
•
ARAZTEGIA
•
AP-1 AUTOBIDEA
•
AHT



"Euskal Y" trenbidearekin tarteak gutxituko ditugu?

Denbora aurrezteko bidea da "Euskal Y" trenbidea. Bilbotik Donostiara 38 minututan iristeko. Donostiatik Madrilera bi orduetan, eta Gasteiztik Parisera bost ordu inguruan. Euskal Herrian bizi diren pertsonak hurbiltzeko bidea da, Abiadura Handiko Sare Europarraren bitartez, Europako beste hiri batzuekin azkar, eroso eta seguru konektatzeko bidea.

Eta Euskal Herriko abiadura handiko trenera hurbiltzeko, hau da bidea:

www.euskaly.com



EUSKAL 
trenbidea da bidea

■ TRANBIA

Debagoieneko tranbiako lanak, aurten hasteko asmoa

E.M.

Tranbia izango da Debagoieneko nobedade nagusietako bat etorkizunean. 1967a ezker ez dago errail bidezko garraiorik gure ibarrean. Jaurlaritzaren asmoa zera da: 2010ean Aretxabaletatik Bergarara doan artean tranbia izatea. Hala ere, lanen hasiera zehazteke dago oraindik.

Bergara eta Aretxabaleta arteko tranbia egiteko lanak 2007an hastekoak ziren. Dena dela, ez dago proiektuaren gaineko informazio garbirik eskuraterik: GOIENKARIAK Eusko Trenbide Sarera jo du informazio eske, baina ez digute inolako argibiderik eman lanen inguruan.

Esan bezala, errail bidezko garraioa berreskuratzeko ahaleginetan ari dira Jaurlaritza eta Debagoieneko udalak azken urtetan. Ferrocarril Vasco Navarro delakoa 1967an kendu zuten eta, orain, autoen erabilera gutxitzeko asmoz (AP-1 autobideak zirkulazioa arindu duen arren ibilgailu ugari dabil egunero gure ibarrean), Debagoienera Euskotreneko bagoi berdeak ekartzea da asmoa. Garraiobide moderno,

erakargarri, seguru eta garbiaren aldeko apustua egin du Jaurlaritzako Garraio Sailak.

LKS, TRAZATUA ERREDAKTATZEN

Iazko udaberrian adjudikatu zioten LKS enpresari Debagoieneko trazatuaren proiektuaren erredakzioa, 599.000 euroko aurrekontuarekin. Aurreikusitako epeen arabera, Bergara eta Aretxabaleta arteko zatiko trazaketak amaitzear egon behar du. Dena dela, LKSk ez du gaiaren gaineko informaziorik ematen. Debagoieneko udalek alegazioak aurkeztu zizkieten hasierako egitasmoari: Aretxabaleta eta Bergarako udalek egin zituzten alegazio garrantzitsuenak. Aretxabaletan, tranbiak Durana kaletik igarotzeak sortu zuen kezka handiena; Bergaran, Gabiriako gunean, Ibargarain eta Santa Marinaren eta Matxiategiren arteko zatian hainbat moldaketa egitea eskatu zuen udalak alegazioen epea zabaldu zutenean.

Kontuak kontu, 2007an lanei ekitea aurreikusita zegoen baina data zehazteke dago oraindik. Behin lanak hasi eta gero, Aretxabaleta eta Bergara arteko zatiko lanak hiru urtetan amaituko dituzte. Jaurlaritzak lehen esan-



Autoen erabilera gutxitzea eta garraio publikoa bultzatzea da helburua

dakoaren arabera, 2010ean mar-txan izango da tranbia gurean.

Aretxabaleta eta Bergara arteko ibilbideak 17,5 kilometro izango ditu eta tranbiak 33 minututan zeharkatuko du Debagoiena. Herri barruetan, batez beste, bost minutuan behin geltokiren bat izango du. Horrela, Aretxabaletan hiru geltoki aurreikusten dira, Arrasaten 10 eta Bergaran 6. 80 km orduko abiadura ibiliko da tranbia herrien artean eta oinezkoen guneeetan, 30 km orduko abiadura izango du. Hamar tranbia ibiliko dira gora eta behera; konboi bakoitzak 120 bidaiari izango ditu. Egindako azterketen arabera, tranbiak, gure ibarrean 4 milioi erabiltzaile izango ditu urtean. Jaurlaritzako ordezkariak pozik azaldu dira Bilbon tranbiak izandako harrerarekin. Gasteizen ere tranbia egiteko lanetan dabilta iaztik.

LKS



Garaia Berrikuntza Gunea Olandixo mendiaren parean dabilta eraikitzen; argazkiak erakusten ditu oraingoz eraiki dituzten elementuak.

OXEL ARRIETA

■ GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

Apirilean estreinatuko dute Garaia Berrikuntza Gunea

UBANE MADERA

Garaia Berrikuntza Gunearen lehenengo hiru eraikinen obrak bukatzean daude. Errepide ondoko eraikinerako joango dira ibarreko hainbat enpresako langileak; eraikineraren %30a beteko dute. Goiko pabilioira, berriz, Edertek lantegikoak joango dira.

Garaia Berrikuntza Gunearen lehenengo fasea bukatu dute, biribilgunetxo bat egitea falta da. Halaber, Garagartzarako errepidearen ondoko eraikinak ere bukatzean daude. Eta berrikuntza gunearen barruko errepidearen zati handi bat ere eginda dago. Horrez gainera, ibiltari ugarik estreinatu du barrutik doan oinezkoendako bidea. Eta gunearen goiko partean, Edertek enpresaren pabilioia ere ikus daiteke.

Gauzak horrela, Garaia Andoni Gartzia kudeatzaileak espero du apirilera lehen "bizilagunak" joatea eraikin berrietara: Garaia langileak, MCCko promozio zentroa; ATEGI (Interneteko erosketa ataria); Aretxabaletako Dualia enpresa eta gizarte mailako ikerketak egiten dituen ESAI enpresako langileak (50-75 bat lagun). Horiek estre-

inatuko dute errepide ondoko eraikin beltza, aurrenekoa. Halaber, Gartzia esandakoaren arabera, "urtebete barru-edo, bi eraikin horietan 1.500 metro koadro horietan, 200 lagun baino gehiagorendako lekua izango da". Besteak beste, Data Center izeneko

zerbitzua ipiniko dute hor, 600 bat metro koadrotan.

Edertek enpresara, berriz, 40 bat lagun joango dira hasieran.

INAUGURAZIOA, UDAN

Duda barik Garaia Berrikuntza Gunearen obrak bukatu barik daude. Epe ertain-luzera begirako egitasmoa da. Baina obrak hasi zirenetik sei urte pasa direla kontuan hartuta eta kontuan hartuta, baita ere, orain estreinatuko dutela lehen zatia, Gartzia posible ikusten du inaugurazio moduko bat egitea: "Uda inguruan inaugurazio bat-edo egitea polita izango dela pentsatzen dut".

Kristalezko eraikinetan 200 lagun baino gehiagorendako lekua izango da



50-75 bat lagun joango dira hasieran errepide ondoko eraikinerako.

U.M.

HURRENGO FASEAK

Bien bitartean, baina, lanek aurrera egingo dute: "Urbanizazioa bigarren eta hirugarren faseak egitea falta da. Bihotza bukatzeko, 400 bat metro errepide egitea falta zaigu. Eta Garaia-eren erdian gune berezi bat eraiki

Espainiako parke teknologikoen elkarteak kongresua egingo du Garaian urrian

ki gura dugu, zerbitzu orokorrak ipintzeko. Bestalde, lanera edo ikastera datozenendako egoitza bat ere eraiki behar dugu. 10-12 urtera begirako egitasmoa da".

URRIAN KONGRESU TEKNOLOGIKOA

Dena den, hori baino lehenago badute beste hitzordu bat Arrasateko berrikuntza gunean: urriaren 16an eta 17an, Espainiako parke teknologikoen elkarteak Garaian egingo du VI. Nazioarteko Kongresua. 200 bat lagunek parte hartuko du, zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin lotutako gaiak landuko dituzte, konbergentzia teknologiararen inguruan.



Goiko magalean eraiki dute Edertek enpresarendako eraikina.

O.A.

■ ARAZTEGIAK

Mekolaldekoa amaitzear dago

AINTZANE IRIZAR

Deba ibaia garbi ikusteko geroago eta gutxiago geroago geratzen zaigu. Bi araztegi eraikitzen dihardute Debagoienean. Bata, Mekolaldekoa, ekainean amaituko dute; bestea, Epelekoa, aurtengo otsailean hasi dira eraikitzen. Deba ibaiaren ibilbidean, Elgoibarko araztegi lanak bukatuta daude eta berehala jarriko dute martxan.

Aldiro-aldira jakinarazten dizkiguten datuen arabera, Deba ibaia da Gipuzkoako kutsatuena. Egoera hori, baina, laster aldatuko da. Izan ere, hainbat araztegi eraiki dituzte Deba ibaiaren ibilbidean zehar eta beste bi eraikitzen dihardute; Debagoienekoak dira azkeneko bi horiek.

Bergaran, Mekolalde auzoan, egongo da ibarreko araztegi bat; 2005eko urrian hasi zituzten lanak eta Eusko Jaurlaritzako Uren

Zuzendaritzako arduradunek espero dute aurtengo ekainean amaitzea eta martxan jartzea.

Beste araztegia, berriz, Epelelengongo da, Arrasaten. Epelekoaren eraikitze lanak oraintxe hasi dituzte, otsailean, eta 2011. urterako amaituko dituzte.

Epeleko araztegia eraikitze lanak otsailean hasi dituzte eta 2011n amaituko dituzte


Elgetako ur zikinak herrian bertan garbituko dituzte, han eraikiko duten araztegiaren

60.000 BIZTANLEREN URAK

Mekolaldeko araztegiaren Bergara eta Antzuolako urak jasoko dituzte, hainbat kolektoreen bitartez. Guztira, 17.000 biztanlek sortutako ur zikinak jaso, garbitu eta berrituko Deba ibaira isuriko dituzte. Industriek sortutako urak ere jasoko dituzte, noski. Ekainean Mekolaldeko araztegia bukatuta egongo den arren, kontuan hartu behar dugu Antzuolako urak jasoko dituen kolektore sarea eraiki gabe dagoela oraindik. Momentu honetan proiektua idazten dihardute.

Epeleko araztegiaren, berriz, 43.400 bat biztanlek sortutako ur zikinak iritsiko dira (eta industriarenak). Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatikoak, hain zuzen ere.

Hasierako asmoa Elgetako ur zikinak Mekolaldera bideratzea zen arren, azkenean erabaki dute Elgetan bertan garbitzea, hantxe egingo duten araztegi txiki baten.



■ AP-1 AUTOBIDEA

Hamar hilabete barru, irekiko dute Eibar-Gasteiz

XABIER URTZELAI

Bidegiko prentsa arduradunak esandako moduan, "urtarrileko bigarren egunerako zabalik egongo da Eibar eta Gasteiz lotuko dituen AP-1 autobidea". Hala, hamar hilabete baino ez dira geratzen goi mailako ingeniariak erabilita egingo duten azpiegitura erabilgarri egoteko.

"Tiroa bezala, horrela doaz AP-1 autobideko lanak". Bidegiko prentsa arduradunaren berbak dira, lanen bilakaera ikusita baikor baino baikorrago. Autobide horrek Gasteiz eta Eibar lotuko ditu, puntu horretan A8 autobidearekin elkartzeko: "Autobide berriak, baina, ez du A8-arekin inongo zerikusirik izango. Autobide hori Francoren garaian egin zuten, eta kurbez josita dago. Gaur egun alderantziz egiten da, teknologia aurreratuena erabiliz



Maringo zubia eusten duten pilareek 100 metro luze dituzte. x.u.



Irudian duzun Maringo tunelak ia hiru kilometro eta erdi izango ditu. x.u.

azpiegitura segurua egitea da helburua. Horregatik daude, hain zuzen ere, kurbak beharrezkoak horrenbeste tunel eta zubi.

20 MILIOI EURO KILOMETROKO AP-1 autobideak sekulako aurrekontua du, 600 milioi euro, gutxi

"Teknologia aurreratuena erabiliz azpiegitura segurua egitea da helburua"

gorabehera. "Kopuru horretatik erdia Eibar-Bergara tramua egiteko erabili da, eta beste erdia erabiliko dugu Arrasate eta Urbina lotzeko.

Hain zuzen ere, tramu horretan daude zailtasun gehien duten lanak: "Marinen egiten gabiltzan

zubia ez da txantxetako, 100 metroko garaiera du-eta. Horrekin batera, Gipuzkoa Arabarekin lotuko duen tunela, Euskal Herriko luzeena izango da (3,3 km). Hala, autobide hori sekulako azpiegitura izango da, detaile guztiak zainduko dituen".

■ AHT DEBAGOIENEAN

Gureko zazpi herritan barrena igaroko da AHT

M.B.

Abiadura Handiko Trena zeresan ugari eragin duen azpiegitura da. Iazko urrian hasi zituzten *Euskal Y*-ari dagozkie lanak Araban eta Debagoienari dagokionez, honezkeru hiru tarte egiteko lanak esleituta daude. Jaurlaritzak azpiegiturari onura ugari ikusten dizkio. Gizartean, baina kontrako ahots ugari dago.

Trazatuak 175 km izango ditu eta AHTk 250 kilometro ordura zeharkatu ahal izango du Euskal Autonomi Erkidegoa Jaurlaritzaren arabera. 38 minututan lotuko ditu Bilbo eta Donostia, 28 minututan Bilbo eta Gasteiz, eta 34 minututan Gasteiz eta Donostia. Debagoienari dagokionez, ibarrak AHTrako bidegurutze lana egingo du, gurean elkartuko dira eta hiru norabideak. Jaurlaritzako ordezkari gisa, Arantxa Tapia Garraio Sailburuordea izan genuen duela gutxi Aramaion. Haren ahotik azpiegituraren onurak entzun ahal izan genituen. Hala eta guztiz ere, AHTren kontrako ahotsak ugari dira. Gurean ere geroago eta gertuago ikusten da lanen hasiera –lau bat hila-betez aritu zen Tapia Aramaion– eta azken hilabeteetan ugaritu egin dira gureko herrietan sortutako kontrako taldeak.

ASPALDIKO PROIEKTUA

AHTren gainean berba egiteko 20 urte egin behar ditugu atzera. Trenbideak garraibide sare moduan daukan balioa ikusita, Espainiako gobernua 80ko hamarkadaren amaieran hasi zen trenaren erabilera bultzatzeko planak sustatzen. Orduan egindako komunikazio sistemen gaineko ikerketen arabera, EAEn hiriarteko distantzia ertainetan komunikazio gabezia handia zegoen, eta tren oso gutxi erabiltzen zen. Egoera horren harira sortu zuten Tren Arloko Euskadiko Plana (1989); orduan hasi

zen gauzatzen egungo AHTren proiektua.

TRENA DEBAGOIENEAN


Euskal Y-a eraikitzeke lanak joan den urteko urrian hasi zituzten, Araban. Debagoienari dagokionez trenak Leintz Gatzagako, Eskoriatzako, Arrasateko, Bergarako eta Antzuolako lurrak zeharkatuko ditu; hala, dagoeneko esleitu dituzte Legutiano-Eskoriatza, Eskoriatza-Aramaio, Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrio tramuak (ikus beheko ezkerreko taula), eta eginda dute beste bi tramuren gaineko eskaintza ere. Bestalde, AHT Gatzagako lurretatik sartuko da ibarrera eta 36 kilometroan barrena Leintz Gatzaga, Aramaio, Eskoriatza, Arrasate, Bergara eta Antzuolatik igaroko da (ikus beheko eskumako taula).

BIDEGURUTZE LANA

Trenbidea egiteko Arrasateko lurretan lan dezente egingo dute, Gasteiztik etorriko den tren bi norabidetan banatuko da eta: batek Bilborako bidea hartuko du eta besteak Donostiarakoa eta Irunerakoa. Beraz, *Euskal Y*-aren ibilbide osoak erdigunean duen triangularen puntetako bat Arrasaten egongo da –besteak Bergaran eta Elorrian egongo dira (ikus goiko irudia)–.

Gurean 36 kilometroan barrena ibiliko da Abiadura Handiko Trena

Azkeneko astean AHTren kontrako talde berriak sortu dira Debagoiengan



Arrasaten moduan, Bergaran ere bi norabidetan banatuko da trenbidea: hala, Donostiatik datorren norabide batek Bilborako bidea hartuko du –Elorriotik–, eta besteak Gasteizera egingo du –Arrasatetik–.

KONTRAKO AHOTSAK

Herritarrei proiektuaren berri eman asmoz, Eusko Jaurlaritzak joan den urteko abenduan aurkez-

tu zuen *Euskalyvasca.com* webgunea. Bertan proiektuaren gaineko hainbat argibide ematen dituzte, baina AHTren kontrako taldek salatu dute webgunean azaltzen diren azalpenak azalekoak direla, eta ez dagoela argi datuak nondik ateratu dituzten: informatzeko baino desinformatzeko tresna dela diote. Hain justu, asko dira Eusko Jaurlaritzak ematen dituen datuak ezbaian jartzen dituzte-

nak. Horrekin batera, gizartean eztabaidarako tarterik ez dela egon ere salatu dute maiz; baita informazio falta ere. Esaterako, Eneko Karrera EHNEko kideak Aramaion egindako agerraldian esan zuen trenak ez diola Debagoienari inongo ekarpenik egingo ez duelako barruko zirkulazioa hobetuko. Nekazariei kalte nabarmena egingo diela gehitu zuen eta baita ingurumenari ere.

Abiadura Handiko Trenaren proiektua zenbakitan, gurean

ESKAINITZA EGIN DEN TRAMUA	LUZERA	NORK EGINGO DUEN ADJUDIKATUTAKO DATA	ADJ. AURREKONTUA	EPEA	
Legutio-Eskoriatza (1. tramua)	5 km	UTE Comsa-Cycasa C.	06/12/26	65,03 milioi euro	45 hilabete
Legutio-Eskoriatza (2. tramua)	2,4 km	UTE Fer. Agroman-Fon.	06/12/26	65,68 milioi euro	45 hilabete
Arrasate-Elorrio	4,4 km	Obras Subterrene. S.A	07/01/26	69,70 milioi euro	33,5 hilabete
Eskoriatza-Aramaio*	5,5 km	-----	-----	113,09 milioi euro*	30 hilabete
Aramaio-Arrasate*	3,9 km	-----	-----	78,34 milioi euro*	30 hilabete

*Tramuhorietako lanak adjudikatu barik daude, baina eginda dago eskaintza-aurrekontua.

Debagoiengan 36 kilometroan barrena

HERRIA	LUZERA	TUNELEAN	ZUBIBIDEAN	LUR GAINEAN
ARAMAIO	5,1	3,6	0,5	1
LEINTZ GATZAGA	0,6	0,6	-	-
ESKORIATZA	4,5	2,6	500	1,4
ARRASATE	3,6 Bilborantz	2,6	-	1
	5,6 Donostiarantz	4,6	-	1
BERGARA	8,1 Gasteiztik	6,4	0,4	1
	3,8 Bilbotik	3,8	-	-
ANTZUOLA	4,7	3,9	600	200



Etorkizunerako bideak

Hobetzeko ari gara lanean, segurtasun eta erosotasun handiagoak eskeintzeko.

Horretarako, Bidegik 331 milioi euro inbertituko ditu 2007an:

- Eibar-Gasteiz autobidea (AP-1).
- Donostiako Bigarren Ingurabidea.
- A-8 autobidearen 3. Erreia.

Gipuzkoaren etorkizunera irekitako bideak dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




BIDEGI
GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA
AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

Txaleta bifamiliarrak Eskoriatzan



1. eredua

Txaleta bifamiliarrak Elorreta auzoan berezko lursailarekin.




Udaletxeko plazatik 4 minutura oinez




2

behe solairua




bigarren solairua



3

lehenengo solairua



3. ereduko planoak

Goi mailako barne hornikuntza



943 79 20 48
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

Anboto
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK
ASESORES INMOBILIARIOS

bergararrak kanpoan

Leire Ruiz de Eginio > Euskadiko Kutzako langilea
Madrilen bizi da

"Giro handiko hiria da Madril, ez dago aspertzeko aukerarik"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Abuztuaren joan zen Leire Ruiz de Eginio bergararra Madrilera. Hasiera-ko egun haietan, "ikaragarriko beroa" egiten zuela gogoratzen du. Zazpi hilabete darama eta han "urteak" egin izan balitu bezala sentitzen dela adierazi du.

Madrilera joatea "asko" kostatu zitzaioela onartu du, "aldaketa handia zen-eta". Baina Euskadiko Kutzak Madrilen hedapena hasi berri zuela-eta, "aukera ikaragarria" zela gaineratu du.

Hasiera "gogorra" egiten bada ere, bizimodu berrira egokitzen ari dela dio: Bergararen aldean bizimodua "askoz arinagoa" da. Hiria gustuko du, kanpotik begiratuta "oso itxura

politik" ez duen arren. "Giro handiko hiria da, denetarik dago, aisialdirako mila ikuskizun, eta ez dago aspertzeko aukerarik", azaldu du bergararrak. Horrez gain, jendea irekia dela aipatu du.

ASTEBURUAK GOGOKO DITU

Asteburuetan merkatura joatea gustatzen zaio, hango postuen artean begira jardutea eta gero



Irudian, Leire Ruiz de Eginio.

Chueca, Malasaña edo Lavapiés inguruan lagunekin pintxoren bat edo beste jatea. Tabernetan musika zuzenean entzutea eta toki ezberdinetako jatetxe bereziak ezagutzea ere atsegin du. Asteburuetakoa giroa da, hain zuzen ere, Madrildik gogokoen duena. Gutxien gustatzen zaio-

na, berriz, "egun guztia alderik alde korrikari ibiltzea" eta "ezertarako denborarik" ez edukitzea da. "Ez dakit hemengo erritmoa inoiz ohituko naizen", azpimarratu du.

Astegunak oso neketsuak dira Ruiz de Eginorendako: "Goizean oso goiz jaikitzen naiz lanera joateko". Izan ere, metroa eta trenea gainezka egoten dira, eta, beraz, azkar ibili beharra dago. Gainera, lanean ere gogor jarduten duela esan du, "konpetentzia handia dagoelako banketxeen artean, eta bezeroak egitea ez da bate-re erraza".

Arratsaldeetan, Gran Vian zehar paseatzen du askotan, hango giroa atsegin duelako. Bestalde, lagunak sarri ikusten ditu; Madrilen euskaldun asko dagoela konturatu da. "Interesgarria izaten da esperientziak alderatzea", azpimarratu du.

Bergarara nahiko lukeen baino gutxiagotan datorrela esan du: "Bergarako lasaitasuna asko sumatzen dut faltan, lagunekin elkartzea, familiartean bazkaltzea, aurpegi ezagunak ikustea...".

"Bertako lasaitasuna asko botatzen dut faltan, lagunekin elkartzea zein familiarrean bazkaltzea, ezagunak ikustea..."

hau be badaukogu

Martxoaren 1ean Bilboko Guggenheim museoa bisitatu zuten EPAko lagunek

Jesus Mari Lazkano pintore bergararraren koadroa Guggenheim museoan erakusten ari dela aintzat hartuta, Bilbon izan ziren joan den martxoaren 1ean EPAko ikasleak, egun-pasa. Museoa bisitatu zuten lehenik eta behin. Ondoren, Bizkaiko hiriburuan paseatzen ibili ziren. Hala, azken urteetan hiriak izan dituen aldaketa sakonak ikusi zituzten helduen eskolakoek. Guztira, 55 lagunek parte hartu zuten. Era berean, bisitatzen zuten guztiari buruzko informazio zehatza izateko, bi gidari izan zituzten lagun irteeran. Bada, argazki bat bidali digute, *Puppytxakur* ospetsuaren ondoan ateratakoa.



EPA

bere ustez



Andres Osa 'Sakona'

Eskubidea

Erabakitze eskubidea eta herriak erabakitzen duena errespetatzea berezko eskubideak dira, hori ezin da jarri mahai gainean eztabaidan" (Ibarretxe lehen-dakaria). Iruñean Ezker Abertzaleak burutu duen Asanbladan gauza bera aldarrikatu du Euskal Herriaren burujabetzaren bidea jo muga izanik.

Baieztape horien aurka nor dago? PP bere logikaren baitan. PSOE-PSE ere bai duela 30 urte defendatzen zuenaren aurka jokatu.

Espaniako Parlamentuan Zapaterok PPren galderari erantzunaz hiru aldiz jarraian oihukatu zuen "Auto-

"Zin egin dezatela, Legea indarrean dagoen bitartean, PSOERI babesu ukatuko diotela"

determinazioa? Inoiz ez!". Hiru biderrez! Hori bai, Euskal Herriak bide guztiak zabalik izango ditu. "Konstituzioaren, egungo legediaren eta Zuzenbide Estatuaren barnean". Bapoi!

PNVki bai? Sektore abertzaleak, Ibarretxeren eta Egiarren jarrerak eta aldarrikapenak baiezkoa diote. Beste sektorea "komunistak", zer?

Eta Alderdien legeaz zer esaten da eta zer egiten da? Ez-demokratikoa omen da eta onartezina. Ba, Alderdi Abertzale guztiei desafio bat proposamen gisan: Herriaren aurrean, itxurakeriak baztertuz, zin egin dezatela, Legea indarrean dagoen bitartean, PSOERI babesu ukatu eta aurka egingo dutela han eta hemen.

GOIERRI

AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA



MUJIKA BURDINDEGIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5

BERGARA

943 76 20 34

INGURUMENA > ESKOLA AGENDA 21

Energiaren gaineko ondorioak aztertzeke foroa egin dute ikasleek

Udalari egindako proposamenak eta haren erantzuna aztertu zituzten foroan

Logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin dute, eta ikasleek eurek hautatu dute bozketa bidez

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Eskola Agenda 21 garatzen jarraitzen dute Kurtzebarri eskolako ikasleek, eta otsailaren 27an lehen foroa egin zuten. Oñatiko Natur Eskolako kideen gidaritza-pean dabiltza orain lanean.

UDALAREN ERANTZUNA AZTERGAI

Otsailean sinatu zuen Kurtzebarri eskolako Udalarekin Eskola Agenda 21 garatzeko konpromiso akta. Orduantxe hasi ziren energiaren gaineko kontuak lantzen Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak; 315 guztira. Maiatzean ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak, ikasleek herrian egindako ikerketa lana jaso eta ateratako ondorioak entzuteko. Eta ikasleek egindako ikerketari erantzuna emateko konpromisoa hartu zuen Udalak. Bada, aurten jaso dute erantzuna, eta hori aztertzeke foroa antolatu zuten ikasleek. Foro horretan, energia aurrezteko hartu beharreko neurrien proposamenak eta Udalak bakoitzari emandako erantzunak aztertu zituzten.

JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

Hainbat pauso jarraitu behar dituzte ikasleek, behin gaia hautatu dutenean: gaia aztertu lehe-



ONDORIOAK Ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak maiatzean, ikasleek herrian egindako energiaren gaineko azterketa jasotzeko.

M.A.

nengo eta ekintza plana abian jarri gero. Hori egindakoa, herriaren egoera aztertzen da, eta hortik ateratzen dituzte Udalarari aurkeztuko dizkioten proposamenak. Horren harira, iaz hasi zuten energiarekin jarraitzea erabaki dute Kurtzebarri eskolan, baina ura ere ukituko dute: "Energia izango da lanaren ardatza, baina Eskoriatzan eta Arrasaten ura landu dute aurretik, eta horren gaineko materiala ere gertatu diegu", azaldu digu Natur Eskolako kide Jon Betanzosek. "Herriko diagnostia egiteko behar duten materiala gertatzen diegu guk, baina ikasleek

eurek ere bete behar dituzte hainbat konpromiso", gaineratu du Betanzosek.

EGINBEHARRAK

Bada, ikasturtea aurrera doa, baina bukatu aurretik lan handia dute egiteko: energiaren gaineko diagnostia egin eta kudeaketarekin jarraitu. "Herriko diagnostia ere egingo dute eta ikasturte bukaerako foroa, bigarren foroa, antolatuko dugu", argitu digu Betanzosek. Gainera, egindako lan guztia, proposamenak eta ondorioak, Udalarari aurkeztuko dizkiote ikasleek ezohiko osoko bilkura baten.

ENERGIAREN GAINEKO AZTERKETA

Energia ardatz duen logotipoa aukeratu

Lantzen dabiltzan energiaren gaia laburbiltzen duen zerbaiten beharra ikusi, eta logotipoa egitea erabaki zuten. Lehen Hezkuntzako eta DBHkoen artean lehiaketa antolatu, eta 20 lanen artean gustukoena ikasleek eurek aukeratu dute. Aurkeztuko dituzten lan guztietan erabiliko dute haize errotaren itxura duen logotipoa, eta pinak ateratzeko asmoa ere badaukate.



Energiaren logotipoa. ESKOLA AGENDA 21

ELKARTASUNA > SAHARAKO UMEAK

Saharako umeek oporrak gurekin pasatzeko eskaera epea zabalik

M.A. > ARETXABALETAKO

Oporrak Bakean programa jarri dute abian aurten ere Sahararen aldea lanean dabiltzan eskualdeko elkarteek. Saharako umeek uztaile eta abuztua gure artean pasatzea du helburu programak.

OSASUN ARAZOAK

Gure herrian Iesbaa elkarteak egin du umeak hartzeko deia, eta

jakinarazi digu umeek dituzten osasun arazoetan laguntzea dela helburua: "Osasun azterketa egiteko aukera eskaintzea gura dugu, eta bi hilabetean elikadura orekatua izatea", dio Iesbaako arduradun Olaia Sagredok. Gainera, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan 55 gradu arteko tenperaturak izaten dituzte uda partean.

Horretarako, baina, herritarren laguntza behar dute umeek etxeetan hartzeko. Horren berri emateko berbaldia egingo du Iesbaa elkarteak hilaren 22an, eta Arantza Gurmendi aktorearen dokumentala eskainiko du. Hala eta guztiz baten batek argibide gehiago gura izanez gero edo umea hartzeko izena eman, hona telefono zenbakia: 626 63 91 64.



UMEAK Iesbaa elkarteko arduradun Olaia Sagredo Saharako ume batekin. IESBAA

LANAK > VERGARA, JAUREGI, RESUSTA Y CIA

Tubos lantegia egondako eraikina konpontzen hasi dira, jaus ez dadin

Teilatua eta egoera eskasean dauden hormak berrituko dituzte; Udalak, baina, ez dauka erabakita zertarako erabiliko duen

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Aretxabaleako iparraldeko sarreran dago Vergara, Jauregui, Resusta y Cia izena daukan eraikina; Tubos de Precision S.Coop. lantegi izandako bulegoak, hain zuzen. Eta oraintsu konpontzen hasi dira. Helburua da gero eta egoera eskasagoan dagoen eraikina ez jaustea.

TEILATUA ETA HORMAK

Orain dela urtebete onartu zuen Udalak hitzarmena sinatzea eraikinaren jabearekin, Ortubos SL enpresarekin. Helburu bakarra zeukan hitzarmen hark: eraikina ez jaustea; eta zaharberritze



VERGARA, JAUREGUI, RESUSTA Y CIA Zaharberritze lanak hasi dituzte XX. mende hasierako eraikinean.

M.A.

lanak lehenbailehen hastekotan geratu ziren; iaz bertan. Aurretik, baina, tutuak egiten zituen Tubos de Precision kooperatiba elkarteko langileek alde egin

behar zuten eraikinetik, eta, kontuak kontu, atzeratu egin dira lanak.

Otsailean hasi ziren lehen lan-txoak egiten, eta laster, egoera txa-

rrean dauden teilatua eta hormak berritu egingo dituzte. Egin beharreko guztiak jabearen kontu izango dira, eta, sinatutako hitzarmenaren arabera, aurrerago etxe-

bizitzak eginez gero, bulego albo-ko lantegiaren lurretan Udalak hartu ohi duen aprobetxamendutik jasoko du jabeak ordaina; eta berritutako eraikina Udalarendako izango da.

EKIPAMENDUETARAKO ERAIKINA

Vergara, Jauregui, Resusta y Cia lantegia XX. mende hasieran eraiki zuten. Goitik begiratuta gurutze itxura dauka hasierako eraikinak, nahiz eta gero, gela berriak egiterakoan, hasierako itxura galdu zuen. Eusko Jaurlaritzak arkitektura aldetik interesa duten eraikinen zerrendan sartu zuen. Eta industriari dagokion interesa ere badauka, XX. mende hasierako herriko industriaren aztarna delako.

Hala ere, berritu ostean ez dakite zer egingo duten hantxe: "Jausi barik mantendu gura du eraikina Udalak, eta aurrerago ekipamenduetarako erabiltzeko asmoa dauka. Baina oraindik ez du erabaki zein eratako ekipamenduak kokatuko dituen hantxe", adierazi digute Udaleko Hirigintza Sailean.

UDALETXEA > BERRITZEKO ASMOA

Hirigintza Saila dagoen galeria berritu egingo dute

235 mila euro zehaztu zituzten udal aurrekontuan lanok egiteko

M.A. > ARETXABALETA

Udaletxea kokatuta dagoen Arratabe jauregian berritze lan-txo batzuk egin gura ditu Udalak. Batez ere mantentze lanak izango dira.

MANTENTZE LANAK

Aurtengo udal aurrekontuan 235 mila euroko partida sartu dute udaletxean berritze lanak

egiteko. Hormak margotu, zorua berritu eta berogailuaren mantentze lanak egingo dituzte. Horiez gain, lehenengo solairuan iparraldera begira dagoen galeria berritu egingo dute. Hirigintza Saileko bulegoa dago galeria horretan, eta egoera eskasean dago.

XVIII. mendean eraiki zuten Arratabe jauregia, eta 1986an udaletxea ezarri zuten hantxe. Behealdea eta bi solairu dituen eraikinak gela dotoreak ditu, baina mantentze lana eskatzen dute. Gainera, iristeko erraztasun arazoak ditu: sarrerako atean maila handia dago eta ez dauka igogailurik.

> UDALA

Ohiko osoko bilkura egingo dute astelehenean, eta zaharren etxea izango da eztabaidagai

Astelehenean, martxoak 12, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak. Hainbat gai izango dituzte eztabaidatzeko, tartean hirugarren adinekoei dagozkienak: batetik, zaharren etxearen gaineko mozioa aurkeztuko du Aralarrek, eta, bestetik, zaharren etxe berria egiteko lurren izendapen aldaketa bozkatuko dute. Telelarmaren inguruko hitzarmena ere badute erabakitzeko.

Gainera, hainbat ordenantza izango dituzte onartzeko: etxebizitza tasatuen gainekoa, lur urbanizazioei dagokiena eta zirkulazioaren gainekoa, hain zuzen ere.

Citroën **JUMPY** berria

Urteko liderrak Citroën Jumpy berria aurkezten du.

Citroën Espainiako merkatuaren lider nagusia izan da 2006'-an, eta **Dieselaren Hilabete**an prezio bikainekin ospatzen du albistea.

Citroën **BERLINGO** diesela

Citroën **JUMPER** berria

Tailerreko ordutegia:
Astelehenetik egubakoitzera: 08:00 - 13:00 / 15:00-19:00

Zapatuetan Enpresa eta langile autonomoei zuzendutako zerbitzua
Mantentze-lan zerbitzua (Aurrez deituta)

Autoak eskuz garbitzeko zerbitzua ere badugu

ETOR ZATEZ:
TALLERES CHAPIME Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala
San Andres Auzoa 5 ARRASATE - Tel.: 945 79 45 22

NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

KIROLA > GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETA

Herriko gaztetxoek trialsinean jardun zuten Gipuzkoako txapelketako proban

Gipuzkoako txapelketako hirugarren proba jokatu zuten eta aretxabaletarrak bikain ibili ziren; ohiko trialsinlariak, gainera, herriko gaztetxo asko izan zituzten lagun

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gipuzkoako txapelketari dagoen hirugarren proba jokatu zuten joan zen domekan, Aretxabaletan. Eguraldia lagun, giro bikaina sortu zen Porrurutxara baso inguruan.

ARETXABALETARRAK BIKAIN

Gero eta aretxabaletar gehiago dabil trialsinean, eta horren adibide da domekan bizikleta gainera igotzera ausartu zen kopurua, 34 inguru. Antolatzaileek gura zuen guztiarendako jarri zituzten bizikletak, eta alebin eta benjamin mailetak neska-mutiko askok jardun zuten oztopoetan gora eta behera. Ondo pasatzea zen helburu bakarra, eta, gainera, saritxoak guztiek jaso zuten.

Lehenengo aldiz bizikleta gainera igo zirenez gain, bada herrian Gipuzkoako txapelketa jokatzeko dabilen taldetxo bat. Eta, ondo pasatzeaz gain, emaitza bikainak lortu zituzten. Junior mailan hiru-



GAZTETXOAK Herriko gaztetxoak, trialsin proba bukatu ostean, antolatzaileek eman zieten sariarekin pozik.

JOXEBI

garren egin zuen Markel Uriartek; infantiletan lehen postua eskuratu zuen Aitor Muruak; alebinen mailan zazpigarrena izan zen Endika Uribarren eta beratzigarrena Julen Madinabeitia;

eta benjaminetan Unai Zuntzunge izan zen lehena eta Iker Mendikute laugarrena.

Bestalde, Euskal Herriko trialsinlari onenak izan ziren herrian. Nagusien superclass mailan Die-

go Barrio arabarra nagusitu zen, Iker Lezeta donostiarrak hirugarren egin zuen eta Benito Ros nafarra bosgarrena izan zen; min hartuta egon da Ros bost hilabetean eta lehen saioa egin zuen domekan.

Antolatzaileek ere gustura bukatu zuten eguna: "Azken urtetan ez bezala, Porrurutxarara joateko aukera izan dute trialsinlari eta ikusleek eguraldia lagun, eta saio politak egin dituzte".

> FUTBOLA

Laugarren postuan dagoen Anaitasuna hartuko du domekan preferente mailako taldeak

Etxean jokatu du preferenteko taldeak domekan, 16:30ean, eta Anaitasuna izango du aurkari. Saillapeneko laugarren postuan dago Anaitasuna eta bederatzigarrenean UDA; hortaz, talde indartsua izango du aurrez aurre.

Beste hiru partidu jokatu dituzte Ibarra futbol zelaian aste bukaeran: infantil txikiek Urolaren aurka jokatu dute bihar, zapatua, 12:00etan, eta lehen mailako gazteek Allerru taldea izango dute aurrez aurre, 16:30ean. Domekan, osterara, ohorezko gazteen mailako UDA-Arizmendi taldeak bergararren aurka jokatu du. 11:30ean hasiko da partidua.

PILOTA > DEBARROKO TXAPELKETA

Debarroko pilota txapelketa hasi dute herriko lau bikotek

Udaberri txapelketako liga fasea bukatu dute, eta Perez de Labeaga eta Uribarren finalurrekoak jokatzeko sailkatu dira

M.A. > ARETXABALETA

Txapelketa bat bukatu eta hurrengo hasi, halaxe egin dute herriko pilotari gehienek. Izan ere, Udaberri pilota txapelketako finalurrekoak jokatzeko bikote bakarra sailkatu da: Perez de Labeaga eta Uribarren.

FINALURREKOAK

Liga eran jokatu dute Udaberri txapelketako lehen fasea, eta herriko bost bikotetik lau kanporatu dituz-

te. Kadete mailako Perez de Labeagak eta Uribarrenek txapelketa txukuna jokatu, eta hurrengo fase-rako sailkatu dira. Datorren astean izango dute finalurrekoetako lehen partidua. Oraindik egunik ez daukate zehaztuta, Debarroko txapelketarekin bateratu behar dutelako, baina badakite Urretxuko bikotearen aurka jokatu dutela. Lehen partidua etxean izango da eta bueltakoa Urretxun.

BI IRABAZI ETA BI GALDU

Joan zen aste bukaeran, osterara, Debarroko pilota txapelketa hasi zuten. Nagusien mailan bi bikotek jardungo dute eta kadete mailan beste bik. Gure herrian hiru bikote ditugu kadeteen mailan; hortaz, txandakatu egingo dira pilotariak. Txapelketa erdipurdi hasi dutela esan behar da, bi bikotek irabazi eta beste bik gal-

du egin zutelako: nagusien mailan, Uriarte eta Oionek galdu egin zuten elgetarren aurka (22-12) eta Lasagabaster eta Altzolak irabazi Antzuolan (16-22). Kadeteen artean, Perez de Labeagak eta Uribarrenek irabazi egin zuten antzuolarrei (22-5) eta Gardoki eta Mondragonek galdu arrasatearren aurka (22-5).

GAUR HIRU PARTIDU

Gaur, egubakoitza, hiru partidu jokatu dituzte Iturrigorri frontoian, 18:00etan hasita: Etxeberria eta Uribarrenek arrasatearren aurka; Uriarte eta Oionek Elgoibarko Lagunak elkarteko bikotearen aurka; eta Lasagabaster eta Altzolak bergararren aurka. Akizu eta Gardoki kadeteek, osterara, atsedean hartuko dute. Ea etxean jokatu zorte hobearen dute.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

EUSKARA > KORRIKA

Loramendin eta Arrasateko AEKn daude Korrikaren aldeko kilometroak

Korrika Txikiak hasiko ditu hilaren 23ko ekitaldiak, eta lekukoak 00:45ean iritsiko da

Afaria norberak eroan beharko du, eta mahaiak, aulkiak eta sagardo upela antolatzaileek

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Martxoaren 23an, 00:45 aldera sartuko da Korrika gure herrian Eskoriatzatik, eta dagoeneko salgai dituzte kilometroak Loramendin eta Arrasateko AEKn. Kilometroak erosi dituzten elkarreetako ordezkariak eroango dute hilaren 23an Korrikaren leku-



KORRIKA TXIKIA Orain dela bi urte, Korrika Txikia Mitarte kalean doala. M.A.

koa; tarte banaketa aurrerago egingo dute. Korrikaren gaineko kontuak gertatzeko bi batzorde osatu zituzten eta lanean dabil-

tza azken hilabeteotan: elkarte zein herritarrek batu dituen lantaldea batetik eta ikastetxeek osatu duten taldea bestetik.

AFARIA, NORBERAREN ESKU

Martxoaren 23ko ekitaldiak Korrika Txikiak hasiko ditu, 15:30ean. Umeez Mitarte kaletik Herriko Plazaraino egingo dute arineketan lekukoaren atzetik, eta gaztetxoak Errekabarretik Loramendi kaleraino joango dira, eta berriro plazara itzuli. Ondoren, umeendako tailerrak egingo dira, buruhandi eta trikitilariak, eta larrain dantza Mitarte kalean; gainera, txistorra postuak jarriko dituzte gaztelekuko kideek eta elkarteek.

Afaria 21:00etan izango da Araba ibilbidean, Arkarazoko bidegurutzean dagoen eraikinean. Antolatzaileek mahaiak, aulkiak eta sagardo upela jarriko dituzte eta afaria norberak eroan beharko du. Musika izango dute afalostea girotzeko, eta 00:30 ingururako Almen parera joango dira zuziekin Korrikari ongiatorria egiteko.

bere ustez



Lore Abarik

Hitz egitea delitua al da orain?

L ehendakaria, joan zen urtarrilean, deklaratzera deitu zuen Auzitegi Nagusiak Batasuneko hainbat kiderekin bilduta egon zelako. Ibarretzek, bilduta egon zela onartu eta berriro ere elkartu beharra edukiz gero, berriz egingo zukeela adierazi zuen; "guztiekin" hitz egingo zuela, bakea lortzeko beste biderik ez dagoelako. Adierazpen hauengatik berriz izan da deklaratzera deitua, aurreko aldi bezala, Batasunako kideekin batera.

"Galdetu nahi nioke Rajoyri zer egiten duen politikan; zerk eraman zuen politikari izatera?"

Sinestezina. Zertarako daude politikariak, irtenbideak bilatzeko ez bada? Eta nola bilatu irtenbideak inplikaturta dauden guztiekin hitz egin gabe? Badaude Rajoy bezalako "politikariak", gatazka botere judizialarekin eta poliziarekin konpontzen dela adierazten dutenak. Galdetu nahi nioke honi, berak zer egiten duen politikan; zerk eraman zuen politikari izatera? Herritarren ongi izateak? Gatazka honi irtenbidea emateko guztiekin hitz egin eta egunero-egunero irtenbidea non egon daitekeen galdeztzen duten politikariak behar ditugu.

Hitz eginez bakarrik elkar ulertuko gara. Hitz egitea da politikarien eginbeharra eta hau da bide bakarra bakeari aukera bat emateko.

argazki zaharra

Lan eta lan Copreci lantegian

Copreci lantegiaren atek 1962an zabaldu zituzten. Hamahiru lagun hasi ziren orduan lanean, kontrol arloko piezak egiten, eta ohartu orduko 400 langile zeuden, gehienak gazteak eta emakumeak. Halaxe ageri da argazkian, emakume koadrila bata bestearen atzean programagailuak egiten. Eskuman dagoen gizona, oster, Eusebio Gaztañaga da. Hamar urteren bueltan 1.000 langile zituen lantegiak.

Argazkia: Copreci.
Testua: Mirari Altube.
Urtea: 1963.



Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

EUSKARA > AISA HARRERA-IKASTAROA

Etorkinek euskara ikasten dihardute

Jaurlaritzaren Immigraziorako Euskal Planak etorkinendako ikastaroak sortu ditu

Eskoriatzan bizi diren 13 etorkin dabilta euskararen eta euskal kulturaren gainean ikasten

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Hasita daude Aisa harrera-ikastaroak. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu ditu, HABEren laguntzarekin.

Hala, Udalak Eskoriatzan bizi diren etorkin guztiei gutun bana bidali zien, eta euskararen eta euskal kulturaren gaineko oinarritzko ikastaro baten esku hartzeko gonbidatu.

JAURLARITZAK BULTZATUTA

13 etorkinek eman dute izena ikastaroan, eta astean hiru egunean Udal Euskaltegira joaten dira euskararen eta Euskal Herriaren gainean oinarritzkoa ikastera.

Ikasleek matrikula ordaindu behar izan dute; ikas-materiala, berriz, doan eman diete.

Ekimen hori Jaurlaritzaren Immigraziorako Euskal Planaren barruan dago, eta helburua da etorkin euskara ikastera bultzatzea. Helburu horrekin, HABEk Aisa harrera-ikastaro linguistikokak sortu zituen. Ikastaro horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinendako diseinatuta daude.

Udalak hartu zuen ardura etorkinei ikastaroen berri emateko, eurekin harremanetan jartzeko eta zerbitzu hori

udalerrian koordinatzeko. Baita horren gaineko publizitatea egiteko ere.

60 ORDU ESKOLAN

Astean hiru egunean ematen dituzte eskolak; martitzen, eguazten eta eguenetan, 19:30etik 21:30era. Guztira, 60 ordu emango dituzte.

13 ikasle joaten dira eskolara. Gehienak portugaldarrak dira, baina badaude baita marokoar, txiletar eta kubatarrek ere. Horietatik bi adin txikikoak dira. Azken horiek harrera zerbitzuan daude, eta tutoreak eramaten ditu eskolara.

ORDU GUTXIEGI

Ikastaroa ematen dabiren Arantza Aiestaran irakasleak azaldu digu 60 ordu gutxi samar direla euskarazko eskolak emateko: "Kontuan hartuta ikasle gehienak hutsetik hasten direla, eskola ordu zehatz horietan ikasleek ikasten dute aurkezpenak egiten, esamolde batzuk ulertzen eta kartelak ulertzen".

Horrez gain, Euskal Herriko hiriburuak eta herri nagusiak non dauden, euskal folklorea zertan datzan eta beste ere ikasten dihardute. Esaterako, Antonio Monteiro portugaldarrak harri-



IKASLEAK MOTIBATUTA Ikasleak gogotsu daude euskararen eta euskal kulturaren gainean ikasten.

IKER BARANDIARAN

tuta galdetu dio irakasleari ea Durango Bizkaia ote den. Bitartean, Yolanda Fuentes kubatarra Nafarroa Beherearen eta Nafarroaren arteko aldeak zalantzan jarri du.

Adin txikiko marokoarrek arreta txikiagoa egiten diete liburuei, baina bideoak jartzen dituzten bakoitzean entzundako guztia errepikatzen saiatzen dira.

HIZKUNTZA BERTAKOTZEKO

Ikasle gehienak ikastarora erakarri ditu Eskoriatzan bertakotzeko ahaleginak: "Lanean euskaraz egiten dute gehienek, eta ondo ikusten dut neuk ere neurri baten euskaraz berba egin edo, behintzat, ulertzea", esan digu Yolanda Fuentesek.

Antonio Monteirok, berriz, beste premia mota bat du etxean: "Alaba ikastolan dabil, eta, 4 urterekin, euskara da ondoen dakien hizkuntza".

EUSKARA IKASTEKO ARRAZOIAK



Yolanda Fuentes
Kuba

AP-1 autobideko lanek eraman zuten Eskoriatzara. Hobeto integratu eta lankideekin euskaraz berba egin gura du. Horrez gain, denbora librean ikasteko motibazioa dauka.



Antonio Monteiro
Portugal

Oñatiko Maylor enpresarendako lan egiten du, Ederlanen. Hiru urte daramatza Eskoriatzan, eta alaba ikastolan dauka. Alabarekin euskaraz berba egin gura du, eta hizkuntzak gustuko ditu.



Abdellah Kamel
Maroko

Orain dela urtebete Marokotik irten eta Donostiara jo zuen. Gero Eskoriatzara etorri zen. 15 urte ditu Kamelek, eta *Kaixo* eta *Neska polita* esamoldeak ikasita ditu. Eskolan dabil.



Yassin Fechtali
Maroko

17 urte ditu Fechtalik, eta orain dela bi urte jaioterritik alde egin zuen. Madrilan eta Bilbon bizi izan ostean, Eskoriatzan bizi da orain. Egunotan iturgintza ikasten dabil.



San Juan kalea 12 A Tel.: 652 77 53 58



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

ELIZATEAK > BASO-PISTA BERRIRO JAUSI DA

Gellao eta Apotzaga arteko pista jausi izanak haserrea piztu du

Bi elizateen arteko baso-pista laugarren aldiz jausi da, eta auzotarrak oso haserre daude; Udalari behin betiko konponbidea eskatu diote

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Joan den astean, Gellao eta Apotzaga auzoen arteko baso-pista printzatu eta zati bat jausi egin zen. Horren ondorioz, ezinezkoa da auzo batetik bestera ibilgai-luan joatea.

Bada, bi elizate horietako auzotarrak oso haserre daude gertatutakoarekin, eta Udalari eskatu diote arazo horri behin betiko konponbidea emateko.

JAUSI DEN LAUGARREN ALDIA
Auzotar horiek azaldu digute bide hori lau bat bider jausi dela. Are gehiago, nabarmendu dute jausi zen azkeneko aldian Udala bide horren zimendatzea aldatzea azter-

tzen ibili zela, eta aurrekontuak eskatu zituela. Hala ere, gaineratu dute azkenean Udalak ez zuela zimendatzea aldatu; eta, horren ordez, bidea berriro estali zuela.

HIRIGINTZAN EZTABAIDATU ZUTEN
Juan Carlos Bengoa alkatearengana jo dugu bide horren gaineko keixaren aurrean esatekorik ba ote duen galdetzeko.

Bengoak azaldu digu asteen izan duten Hirigintza batzordean, Elizateetako zinegotzi Javier Villarrek bide horren arazoa mahai gainean jarri duela.

Horrekin lotuta, alkateak jakinarazi du bide horren zimendatzea aldatzeko 60.000 euro inguru behar dituztela.

BASO-PISTARAKO DIRU GEHIEGI
Hala, Bengoak azpimarratu zuen Elizateen partidanoen dagoeneko ez dagoela bide horrendako dirurik; eta une honetan Udalak baso-pista bat konpontzea baino premia handiagoak dituela.

"Badakigu arazoa konpontzeko bidea zimendatu beharra dagoela, baina orain ez dugu dirurik".



BIDEA PRINTZATUTA Argazkian, Goiena Telebistako kameralari bat printzatatuko bidea grabatzen.

IKER BARANDIARAN

Bertso-afaria egingo dute gaur Egokienan

Gaur, egubakoitza, presoen aldeko bertso-afaria egingo dute Egokienan elkartean, 21:00etan. Aitzorrotz elkarrekin antolatu du, eta txartelak salgai daude Inkernu tabernan 12 eurotan.

Honako bertsolariak izango dira afarian: Xabier Silveira, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iñigo Manzisidor *Mantxi*. Ziur herriko bertsolariren bat ere arituko dela.



GOIENKARIA

EUSKARA > KORRIKA PRESTATZEN DABILTZA

Eguaztenean zozkatuko dituzte kilometroak

Korrikaren aldeko lantaldea gogotsu dabil hilaren 23rako prestaketak egiten

I.B. > ESKORIATZA

Dagoeneko hiru batzar egin dituzte Korrikako egitaraua prestatzeko. Herriko eragile askok esku hartu dute, eta hurrengo batzarra eguaztenean, hilaren 14an, egingo dute.

18:30ean izango da, eta besteak beste kilometroen zozketa egingo dute.

Hilaren 23an 15:30ean hasiko dituzte ekitaldiak. Ordu horretan korrika txikia egingo dute. Horren ostean, 16:30ean umeendako herri kirolak eta jolasak egingo dituzte.

AFARIA ETA ONGIETORRIA

19:00etan erromeria egingo dute, eta 21:00etan afaria pilotalekuan. Hala, ongietorria egiteko prest egingo dira.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**
943 71 40 63

HERRI IKASTETXEA > BERBALDIK ETA IKASTAROA

Hitzaldi sorta antolatu du Herri Ikastetxeak

Datozen asteetan hiru hitzaldi izango ditugu Herri Ikastetxeak antolatuta; guraso eta gainerako herritarrendako dira

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Oraingo astean ekin dio Herri Ikastetxeak martxorako antolatutako hitzaldi sortari. Eguazteenan, hilak 7, inmigrazioaren gaineko berbaldea egin zuen SOS Arrazakeria elkarteak Agustin Unzurrunzaga bergararrak.

Martxoaren 14an, eguaztena, izango da hurrengo hitzaldia,

inmigrazioaren gainekoa hori ere: *Inmigrazioa eskolan* izenburuaren pean, Mondragon Unibertsitateko irakasle Amelia Barquinek berba egingo du. 18:30ean izango da hori, Herri Ikastetxean bertan.

Martxoaren 22an, eguena, bestelako gaia izango dute hizpide, eskolakoek antolatutako hiru-

garren hitzaldian: *Eskola, haurra eta lana: bateragarriak?* izenburua jarri diote berbaldi horri. Gasteizko Irakasle eskolako irakasle batek, Maria Jose Intxaustik, hain zuzen ere, egingo digu berba. 18:30ean izango da hitzaldi hori ere.

Martxoaren 27an, martitzena, izango da azkeneko hitzaldia, *Elikadura eta osasuna* izenburua duena. Bergarako Mireia Alberdi elikaduran aditua etorriko zaigu egun horretan. Hitzordua, kasu horretan ere, Herri Ikastetxean, 18:30ean.

SOROSPEN IKASTAROA

Bestalde, apirilera, sorospen ikastaroa antolatu dute, Herri Ikastetxeko umeen gurasoendako. DYAKo adituek lehen sorospenen gaineko azalpenak eman go dizkiete. Apirilaren 16an eta 17an, astelehena eta martitzena, izango da ikastaroa, arratsalde. Eskolako umeek ere jasoko dute ikastaro hori, baina, eskola orduetan. Datorren astean, martxoaren 12an eta 13an, hain justu, etorriko zaizkie umei DYAKo kideak lehen sorospenen ikastaroa ematera.

MENDIA > ARROLA MENDIZALE ELKARTEAK ANTOLATU DU

Eskolarterako XX. Mendi Martxa Antzuolan domekan

Debagoieneko eta Debabarreneko 600 bat neska-mutikok parte hartuko dute ibilaldian

A.I. > ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta, urtero egiten dute Deba ibarretako neska-mutikoendako mendi martxa. Aurten, Antzuolako Arrola mendizale elkarteari egokitu zaio ibilaldi hori antolatzea. Iaz Bergaran egin zuten.

IRIMOEGIGOENA ETA UZARRAGA

Etzi, domeka, izango da mendi martxa. 08:30ean irtengo dira frontoitik eta honako ibilbidea egingo dute, Irimoegigoena eta Uzarragan zehar: Ibarre, Kaxeta, Galardi, Igeribar, San Martzial, Iraeta, frontoia. Debagoieneko eta Debabarreneko 600 bat gaztetxo espero dituzte.

KORRIKA > MARTXOAREN 25EAN IRITSIKO DA ANTZUOLARA

Korrika datorrela eta, hainbat ekimen antolatu dituzte

Txokolatea eta txistorra pintxoak salduko dituzte Gaztegunekoek, Korrikaren alde dirua batzeko

A.I. > ANTZUOLA

Korrikari laguntzeko hainbat ekimen antolatu dituzte oraingo astebururako. Alde batetik, Gazteguneko neska-mutikoek txistorra pintxoak eta txokolatea salduko dute, domekan, 18:00etan, Zurrategin. Bestalde, Korrikaren aldeko herriko batzordeko kideak Korrikaren alde dirua

batzen jardungo dute domeka eguerdian. Martxoaren 23an, azkenik, Korrika Txikia egingo dute eskolako umeek.

HILAREN 25EAN, GOIZEAN GOIZ

Martxoaren 25ean, 06:30ean iritsiko da Korrika Deskargara; 06:50ean, Olaker parera. Handik Bergara aldera jarraituko du.

Bost hezitzaile ditu orain Haurreskolak

Aurreko astea ezker bost hezitzaile ditu Haurreskolak; Alaitz Jauregi antzuolarra da Haurreskolan kontratatu duten bosgarren hezitzailea. 2005eko urtarrilean zabaldu zuten Haurreskola, bost ume eta bi hezitzaileekin. Ume kopurua haziz joan den heinean, hezitzaile kopuruak ere gora egin du. Gaur egun, 18 ume daude, eta, esan bezala, bost hezitzaile: Alaitz, Nagore, Vanessa, Eneritz eta Ihintz.



A.I.

> ARALAR-ZUTIK-EB
Jendaurreko aurkezpena egingo dute eguenean

Antzuolako Zutik, Aralar eta Ezker Batua elkarrekin aurkeztuko dira maiatzeko hauteskundeetan. Horren berri emateko, jendaurreko aurkezpena egingo dute eguenean, martxoak 15, 19:00etan, Olaran etxean. Koalizioa osatzaren zergatiak eta lan ildoak azalduko dituzte hantxe.

> PSE-EE

Paco Morcillo izango da PSE-EE alderdiko alkategaia

PSE-EE alderdiak oraingo astean jakinarazi duenez, Paco Morcillo antzuolarra izango da maiatzeko hauteskundeetan alkategaia. Elvira Kortajarena zinegotzia zerrendako bigarren aurkeztuko da. 1986tik 1999ra arte PSE-EEko zinegotzia izan zen Morcillo.

> ERRETIRATUAK

Zarautzera irteera egingo dute martxoaren 22an

Erretiratuek Zarautzera irteera antolatu dute martxoaren 22rako. 14:30ean irtengo dira eta Zarauzko alde zaharra bisitatuko dute. Ondoren, merienda egingo dute Loiolako hotel baten. Hilaren 15ean edo 16an eman behar da izena, 18:00etatik 19:00etara, eta 10 euro ordaindu.

> HAUTESKUNDEAK

Legearen arabera, hamaika ordezkari aukeratuko ditugu

Hauteskunde Legearen arabera, oraingo agintaldian baino bi ordezkari gehiago izango ditu Udalak maiatzetik aurrera. Horren arrazoia da 2.000 biztanleko muga gainditu duela Antzuolak. Horrela, hamaika ordezkari izango ditu, seguruenen, Udalak.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

> DANTZA IKASTAROA
Domekan hasiko dute munduko dantzen ikastaroa

Hilaren 11n, domeka, emango diote hasiera munduko dantzen ikastaroari. Kiroldegiko gimnasioan 17:30erako egin dute hitzordua eta 20:00ak arte arituko dira dantzan.

Patxi Monterok emango du ikastaroa. Besteak beste, Kaukaso, Israel, Turkia, Grezia, Errusia, Frantzia eta Irlandako dantzak irakatsiko ditu Monterok. Hasierako asmoa lau bat saio egitea da. Zabalik dago izenemate epea. Ikastaroa 20 euro ordaindu behar da.

> FUTBOLA
Elgetak Irunen jokatu du bihar, zapatua, 15:30ean

Mariño B taldea da asteburu honetan Elgetako taldearen aurkaria. Irungo taldea sailkapeneko 3. postuan dago, sei punturekin. Elgeta, berriz, 5. postuan, hiru punturekin. Esan beharra dago, baina, Elgetak Irungoek baino partidu bat gutxiago jokatu duela igoera txapelketan. Elgetako jokalarri guztiak egongo dira partidu horretarako, Oxel Erostarbe izan ezik: bost txartel batu ditu, eta, beraz, zigortuta dago.

> HILERRIA
Senitartekoei hartu beharreko neurriak heriotza baten aurrean

Arazoak izan direlako Udalak oharra argitaratu du. Heriotzarik izanez gero eta gaizki ulerturik ez izateko, senitartekoei jakinarazten zaie familiak edo ehorztetxeak deitu behar diela eliza eta lurperatzaileari.

Lurperatzea egin behar baldin bada, lehenbailehen deitu behar zaio lurperatzaileari. Telefonoa honakoa da: 610 20 82 73. Elizara ere deitu behar da. Hau da telefonoa: 943 76 81 45.

> HERRI KROSA
Domekan Umeen Eguna denez, krosa atzeratu egin dute

Aste bukaera honetan, hilaren 11n, 8-12 urte bitarteko umeendako herrian egitekoa zen herri krosa atzeratu egin du Egoki kirol elkarteak.

Gaztetxeak egun berean Umeen Eguna egin behar duela eta bi ekintzak batera ez egitearren hartu dute erabaki hori Egokikoek.

Herri krosa atzeratzea erabaki dute, baina ez dute beste egunik ipini proba horretarako, oraingoz.

GAZTETXEAREN URTEURRENA > 11. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIAK MARTXOAN

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte datozen aste bukaeretan

Domekan, hilaren 11n, Umeen Eguna egingo dute eta gaztetxearen urteurrena hilaren 17an ospatuko dute urteroko bazkariarekin

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Martxoko hirugarren asteburuan ospatu ohi da herriko gaztetxearen urteurrena eta aurten hilaren 17an, zapatua, egingo dira ospakizun nagusiak. Eguerdian triki poteoa eta bazkaria izango dira bertsolari eta trikitalariek. Gauean, kontzertua egingo dute gaztetxean Eran eta Apartheid taldeek.

Hilaren 23an eta 24an gaztetxeen inguruko berbaldia eta kontzertuak egongo dira. Azkenik, hilaren 31rako gaztetxeok irteera antolatu dute Hernaniko sagardotegi batera.



TRIKI POTEOA Hilaren 17an egingo dute urteurrena ospatzeko eguna. ARTXIBOA

ASTEBURIAN BI HITZORDU
Gaur, barikua, Palestinari buruzko hitzaldia egingo da gaztetxean, 22:00etan. *Israeli boikota* izeneko kanpainaren barruan dago hitzaldi hori, eta uda Palestinan eman

duten brigadista batzuk etorriko dira Elgetara. Umeen Eguna domekan izango da. 10:00etan txangoa egingo dute umeekin. Eguerdian, bazkaria eta jokoak egingo dituzte, 17:30ak arte.

PILOTA
Euskal Ligako finalak frontoian

Gaur, barikua, 22 urte azpikoen eta ohorezko mailakoen finalak jokatu dira

L.Z. > ELGETA
Euskal Herriko klubuen arteko finalak jokatu dira asteburuan Elgetako pilotalekuan.

Gaur, barikua, eskuz binakako finalak jokatu dira, 20:00etan hasita. Lehenengo, 22 urte azpikoen finala jokatu dute Azpeitiko Larrañaga eta Uzkudunek Irurtzungo Hoyo eta Diaz de Uzurrunen aurka. Partidu polita izango da; izan ere, Hoyo Elgetan jokatzeko den lau t'erdiko txapelketako azken irabazlea da. Ohorezko mailan, berriz, Ortuella eta Amezketa bikoteak izango dira aurrez aurre. Ortuellatik Amantegi-Lopez bikotea eta Amezketatik Baez II.a-Garmendia.

Domekan, berriz, 11:30ean, kadete mailako norgegiagokak jokatu dira.

SARRERA DOAN
Partiduok ikusteko ez da sarrearik kobratuko eta hotz eginez gero berogailua piztuko dute. Gaurko bi partiduak Euskal Tebistak grabatu ditu.



L.Z.

Postontzi berriak hilaren 14an

Eguaztenean, hilaren 14an, jarriko dituzte baserritarren postontzi berriak. Azkenean, udaletxe azpian jarriko dituzte, orain arteko leku berean, eta ez hasiera batean iragarritako Andra Mari plazan. Baserritarrei adierazten zaie hilaren 14rako postontziak hustu egin behar dituztela zaharrak kendu eta berriak jarri ahal izateko. Jarritakoan giltzak udaletxean jaso behar dituzte.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

bere ustez



Alberto Telleria

Bizi izateko konformidadia bihar, ala...?

Bizitzan, sarri entzun dogu, aurrera trankil egitteko garrantzi haundia dakana konformidadia dala. Bizitzan zihar tokatzen jatzunakin konformau eta aurrera egin. Ez da, ez, filosofixa txarra, konformidadia bihar. Baina konformidade horrek ez dakit ez ete dakan Eliza inguruko moral usaiña. Susmua.

Arantxa Iturbek, Euskadi Irratiko esatarixak, aberatsa dala diño: maitte dau; maitte dabe; maitte daben

"Aberatsa dala diño: maitte dau, maitte dabe, maitte daben biharra daka eta (...) ez jako dirurik falta"

biharra daka, eta maitte dittuen gauzak egin eta erosteko ez jako dirurik falta.

Arantxak diñuana, barriz, praktikuagua pentsatzen jata. Berba gutxikin neuk nere bizitzarako eskatuko neukena, luzerako gaiñera. Horixe litzake nere helburu. Ala amets?

Holako bizimodua euki ezker, konformidadian biziko nintzake; baita pipia moduan bizi be. Hala ta be, neuri behintzat, zail egitten jata bizitza bakar batian horrek elementu danok alkar uztartzia. Pobrion burubidia ete?

Hori holan izanda, besterik ez jata geratzen: zorionak emon Arantxa Iturberi eta bizimodu hori lortzen daben guztiari.

OBRAK > EGUZKIERRIPA AUZOAN

Hasi dira Eguzkierripa auzoko azpiegiturak berritzen

Azpiegitura berriak ipini behar dituzte: argindarra, ura, telefono haria eta gasa

784.013,99 euroko aurrekontua dute lanek; %80 ordainduko du Arabako Diputazioak

UBANE MADERA > ARAMAIO

Eguzkierripa auzoan azpiegitura berriak sartu behar dituzte. Eta joan den egubakoitzean sinatu zuten lanak hasteko akta obren zuzendaritzako, enpresa eraikitzaileko, Diputazioko eta Udaleko ordezkariak.

Egin behar dutena zera da: argindarra, ura, telefonia eta gasarekin zerikusia duten azpie-



HARIAK LURPERATU Orain airetik doazen hari guztiak lurpean sartuko dituzte Eguzkierripan.

U.M.

gitura berriak sartu. Besteak beste, orain airetik doazen hari guztiak lurperatu egingo dituzte, eta horretarako Eguzkierripako solo

askotan zangak egin beharko dituzte. Excavaciones Arrasate enpresa dabil lanak egiten. Enpresakoen aurreikuspenen

arabera, uda ingururako bukatuko dituzte. Dagoeneko hasi dira lanak egiten, Gantzaga auzo inguruan hasi ere.

MARTXOAK 8 > EMAKUMEEN EGUNA

Gaurko bingo-afarian, 50 emakume baino gehiago

U.M. > ARAMAIO

Emakume asko dabil parte hartzen Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira asteen egindako ekitaldietan. Hala izan zen astelehenero zinema emanaldian. Eta hala izan zen, baita ere, martitzeneko hitzaldian, 30 emakumetik gora izan ziren-eta bi ekitaldi horietan.

GAUR, AZKENA

Itur Zuri Emakume Elkarteak antolatutako ekitaldiak gaur, barikua, bukatuko dira. Bingo-afaria egingo dute, eskolan. Eguaztenerako 52 emakumek izena emanda zuen ekitaldi horretarako, beraz, emakume ugari elkartuko da gaur, 19:00etan, bingo-afaria eta gero afarirako.



ASKO laz baino andre gehiagok parte hartu du aurten; argazkian, zinema saioa.

U.M.

ZAHARTZAROA

Egoitzetan udako egonaldiak egiteko

Eskaerak aurkertu behar dira datorren apirilaren 13a baino lehen, udaletxean

U.M. > ARAMAIO

Udan, hau da, uztailean, abuztuan eta irailean egoitza batera joateko eskaerak egiteko epea zabaldu dute Aramaio-ko Udalean. Hain justu ere, apirilaren 13a baino lehen aurkertu behar dira, udaletxean. Kontua da berez urte guztian egin ahal direla eskaera horiek, baina hilabete horietan eskaera gehiago egoten direla-eta izena eman beharra dago.

BETE BEHARREKOAK

Bete beharrekoak dagokienez, honako baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak: 60 urte beteta izatea; Arabako egoiliarra izatea eta lurralde horretako erroldan sartuta egotea eskabidea aurkertu baino hiru urte lehenago; elbarritasun larriren bat izatea, eta horren ondorioz beste pertsona baten laguntza behar izatea eguneroko bizimodua egiteko eta egindako eskariak Adinekoen Arloko Balioztatze Batzordearen aldeko txostena jasotzea.

Egoitza horietan egon ahal den gau kopurua mugatua da. Hala, uztailean, asko jota 30 gau egin ahal izango dira. Irailean eta abuztuan, berriz, 15 gau.

Informazio gehiago behar izanez gero, herriko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetara jo beharra dago.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

TELEBISTA

Jarritako antenarekin probak egin zain daude

Beldur dira antena mendi ostean geratuz gero seinalea ez ote duten ondo jasoko

M.A. > GATZAGA

Eskoriatzako auzo batzuetan eta Gatzagan bertan telebista seinalea hobeto hartzeko asmoarekin, 19 metro dituen antena jarri zuten urtarril erdian Artabila baserriatik gora. Bada, Zarimutz, Mazmela eta Marin auzoetan probak egiten ibili dira oraintsu seinalea ondo jasotzen duten jakiteko, eta, antza denez, auzotar guztiak ez daude gustura. Izan ere, antena ikusten ez duten baserrietan lehengo antzera daude, telebista ondo ikusi ezinik.

MENDI OSTEAN ANTENA

Gatzagan oraindik ez dute probarik egin, Eskoriatzakoak bukatu zain daudelako. Hala ere, hainbat baserri-tako bizilagunak beldur dira: antena mendi ostean gorde-ta geratuz gero seinalea ez ote zaien ondo iritsiko. Hain zuzen, horrexegatik ez dute jasotzen Aretxabaletako Muru mendian dagoen antenaren seinalerik Olaun aldekoek eta Dorleta partean bizi direnek. Horregatik, antenaren kokalekua beste bat izatea gura zuten gatzagarrek, baina ez zen posible izan.

Kontuak kontu, proben zain daude, eta Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoak esan zien jartzerakoan aldatetarako egin ahal izango direla, arazorik egonez gero.



KORRIKA Korrikaren aldeko pankarta esku artean dutela Gatzagako umeak.

GOIENKARIA

EUSKARA > KORRIKA

Umeendako antzerkia eta afaria Korrika girotzeko

Eguraldi ona eginez gero afaria pilotalekuan izango da, bestela Garro jauregian

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Orain dela hilabete pasatxo hasi ziren Korrikaren gaineko kontuak antolatzen herrian, eta dena daukate lotuta hilaren 23rako.

HERRI LANARI ESKER

Sarri-sarri elkartu da taldetxo bat azken asteotan Korrikaren inguruko kontuak antolatzen joateko. Inoiz baino gogotsuago ibili dira, gainera, eta azken kontuak bakarrik daukate lotzeko: "Azken bileran hamalau lagun egon ziren; izugarria da hori Gatzagarako. Eta poztekoa ere bai, nekatu barik jarraitu dute-

lako lanean hasitakoa bukatu artean", esan digu Jon Sasiain zinegotziak. Herriari lau kilometro dagozkio, eta erosita daude laurak herriko taberna, elkar-te eta Udalaren artean.

Hilaren 23an, gau partean sartuko da Korrika Gatzagara. 23:25 inguruan pasatuko da Landatik eta herrira 23:40rako hurreratu-ko delakoan daude antolatzaileak. Herriarrek zuziekin egingo diote lagun lekukoari.

Jai giroa, baina, arratsalde partean hasiko da. 17:00etan antzerkia izango dute ume zein gatzetxoek Udalari esker. 1, 2, 3

Inaxito bertso antzerkia eskainiko die Trikuharri taldeak, eta bertso, musika, kantu eta pertsonaia bereziak hurreratuko dira. Ondoren tailerrak izango dituzte Korrikako antolatzaileei esker aurpegia margotu, eskulanak egin eta ondo pasatzeko.

AFALTZEKO OILASKO ERREAK

Korrikari ongietorria indarrak hartuta egiteko afaria antolatu dute. Baserriko oilasko erreak jarriko dituzte entsaladarekin. Eguraldiak lagun eginez gero pilotalekuan elkartuko dira herriarrek afaltzeko, eta bestela Garro jauregian gertatuko dute jangela. Afarirako txartelak aurrez hartu behar dira Labidea dendan.

> OSPAKIZUNA

Bazkariarekin ospatuko dute Emakumeen Eguna

Bihar, zapatua, egingo dute bazkaria Sorginak elkarteko kideek Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Gure Ametsa jate-txean elkartuko dira herriko emakume gehienak. Aurten, gainera, iaz ezagutu zituzten Arabako Elosu herriko emakumeak izango dituzte lagun, eta elkarrekin sortuko dute jai giroa.

Bazkalostean isuskiak banatuko dituzte oraindik jaso ez duten *sorginen* artean, eta ondoren musika izango dute dantzan egiteko. Jolasak ere urtero gertatzen dituzte, eta, zalantza barik, barreak eta umore ona izango dira nagusi Gure Ametsan.

> INTERNET

Posta elektronikoa erabiltzeko ikastaroa astelehenean

Astelehen honetan eta hilaren 26an joango da KZguneko arduradun Aitor Madrid Gatzagara. 09:00etatik 13:00etara bitartean egongo da herritarren zalantzak argitzeko, eta ikastaro bi egingo ditu. Astelehenean posta elektronikoa zelan erabili irakatsiko du, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Outlook Express programak eskaintzen dituen aukera guztien berri emango du hark.

Hilaren 26an, ostera, *Via-Michelin-ekin bidaiatu* izeneko ikastaroaren gaineko argibideak emango ditu. 11:00etatik 12:00etara izango da, eta www.ViaMichelin.es webgunean agertzen diren zerbitzuen kontsulta zelan egin erakutsiko du. Ikastaro hori euskaraz izango da.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Aloña Mendi Kirol Elkarteko saskibaloia saila 06-07 astelehen honetan, Asteleheneko Goienkaria-rekin

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.

Oraingo astelehenean, martxoak 12, Aloña Mendi Kirol Elkarteko saskibaloia sailarenak argitaratuko ditugu. Saileko 6 taldeen argazkiak eta horietako bat, senior mailako mutilena, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria*.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



MUSHING PROBA > MUNDUKO TXAPELKETA

"Aldizkarietan azaltzen direnak daude hemen"

Itoitz Armendariz Mushingeko Munduko Txapelketan lehiatuko da bihar eta etzi; aurkezpen ekitaldian harrapatu dugu

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean aurreratu zuen GOIENKARIAk Itoitz Armendariz eskoriatzarrak eta Iker Ozkoidi nafarrak asteburuan Suedian egingo duten Munduko Mushing Txapelketan esku hartu behar dutela. Orduan, Suediako hegoaldean ziren Euskadi Dogs Team taldeko kideak, entrenatzen. Aste barruan, baina, iparraldera egin dute bidaia, txapelketa egingo duten lekura. Eta, txapelketaren aurkezpenean zegoela harrapatu dugu Eskoriatzakoa: "Aldizkarietatik ezagutzen ditugun lehiakideak daude hemen, oso jende ona; alde horretatik, gauza ederra izango da hemen lehiatzea. Hori bai, sekulako maila egongo da, eta ez genuke gurako barregarri geratu", esan digu, bromatan, Armendarizek: "Azken baten, hau Munduko Txapelketa da eta horregatik batzen da jende ona. Datorren astean Europako Txapelketa izango dugu Norvegian, eta, akaso, han ez da horrenbesteko mailarik izango".

EGURALDIAREN ARABERA

Ozkoidi eta Armendariz dagoneko ibili dira zirkuitua ezagutzen: "Oso zirkuitu polita da, ibilbideak bi malda ditu, baina eguraldia epeltzen hasi da, eta horrek goitik behera baldintza dezake lasterketa. Aurreko egunotan zero azpitik 16 gradu izan ditugu eta elurra ondo egon da, bai-



SEI TXAKUR Armendariz, txakurrekin batera lehian.

ITOITZ ARMENDARIZ

na orain epeldu egin du, eta elurra bigundu egin da. Nik 12 kilometro inguru egin ditut zirkuituan zehar, eta Ikerrek gehixea. Ea datozen egunotan berriro ere tenperaturak behera egin, eta gogortu egiten den elurra".

ERREFERENTZIA BARIK

Euskal Herriko bikoteak ez du inongo erreferentziarik: "Kontuan hartu Munduko Txapelketa izango dela aurtengo denboraldiko lehenengo lasterketa,

aurrekoak bertan behera utzi behar izan dituzte-eta. Inongo erreferentzia barik gaude, eta txakurrak ondo entrenatu direla uste badugu ere, ez dakigu txapelketan zelan erantzun duten. Egia esateko, guk egin ditugun entrenamenduak elur bigunarekin egin ditugu; horrenbestez, txakurrak horretara ere ohituta daude".

Esprint modalitatean jardungo dute Armendarizek eta Ozkoidik, sei eta zortzi txakurrekin.

Verkol Aloñako nesken partidura animatzera joateko dei egin dute

Verkol Aloñako zuzendaritzak ondo daki asteburuan emakumezkoen kadete eta senior mailetako taldeek jokatuko dituzten partiduak oso garrantzitsuak direla, eta horregatik dei egin dute norgehiagoka horietara animatzera joateko. Kadeteek San Adrian taldea hartuko dute (bihar, 17:30); irabaziz gero, Espainiako Txapelketarako sailkatuko dira.

Seniorrek domekan jokatuko dute, Ermuko taldearen kontra. Saillapenean bigarren jarraitzeko garaipena behar dute.



OIHANA ELORTZA

PILOTA > ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Bengoetxearen sorbaldak, ezetz

Asegarceko pilotariak atzo egin zuen azken ahalegina, eta, sorbaldak min egiten ziola ikusita, ez jokatzea erabaki du

X.U. > BERGARA

Domekan Bergaran (17:00) jokatuko duten partiduak gatz gutxi izango du. Batetik, ez dagoelako ezer jokoan, eta bestetik, Asegarcek ordezkoko pilotariekin jokatuko duelako norgehiagoka hori. Patxi Ruizek eta Bengoetxeak gogotik ordaindu dituzte joan den asteko partiduan izandako ezbeharrak. Ruizi pilota sartu zitzaion eskuan, eta haren ordezkari Haritz Beginok jokatuko du domekan. Hasiera batean Oinatz Bengoetxeak osatu behar zuen Beginorekin bikotea, baina atzoko pilota aukeraketan

Bengoetxearen ezker sorbaldak ezetz esan zuen, ez dagoela domekako partidua jokatzeko moduan: "Aste osoa eman dut antiinflamatorioak hartzen, eta masajistarekin ere ibili naiz. Berotzen hasi naizenean, baina, berehala konturatu naiz ezker sorbaldak tira egiten didala. Badakit ez daukadala ezer hautsita, baina badirudi joan den asteko kolpearen ondorioz tendoiaren bat hezur artean sartu zaidala".

XALA, POZIK

Iparraldeko pilotaria, kontrara, pozik zegoen atzo. Dagoeneko finalean badaude ere, domekan serio jokatu gura dute: "Konfiantzarekin jarraitzeko garrantzitsua izango da domekako partidua irabaztea". Bergarako Udalak eta Aspek lortutako akordioaren gainean ere galdetu genion: "Atsegin dut pilotaleku hau, eta aspaldian bolada onean gailitza hemen".



MIN KEINUAK Berehala igarri zuen Bengoetxeak ez zegoela ondo. XABIER URTZELAI

> ESKIA

Bergarako Pol-Pol Mendi Elkarteak Alpeetara eski irteera antolatu du Aste Santurako

Eski denboraldi makalaren aurrean, Pol-Polekoek Aste Santuan gura dute urtea zelanbait biribildu. Horretarako, irteera antolatu dute Alpeetara, Val Thorens eski estaziora, hain zuzen ere. Hala ere, Pol-Polekoek esan digute hiru eski estaziotan eskiatzeko aukera izango dutela. Informazio gehiago gura izanez gero, astelehenean egunera Pol-Poleko egoitzan (19:00-20:30).

> ATLETISMOA

Yerai Varela oñatiarra Caceresen lehiatuko da asteburuan, Espainiako Txapelketan

Espainiako Kros Txapelketan parte hartuko du Oñatiko korrikariari, Euskal Herriko Txapelketan hirugarren sailkatuta lortu zuen-eta Caceresen parte hartzeko txartela.

Oñatikoak lan ona egin zuen Ortuellan egin zuten txapelketan, lokaztuta zegoen zirkuituan podiumera igotzeko gauza izan zen-eta. Hala, podium horrek zabaldu dizkio Cacereseko txapelketarako ateak.

XAKEA

Euskal ligetako azken jardunaldian ez da emoziorik faltako

Ohorezko mailan, Arlutzek puntu bat behar du mailari eusteko; lehenengo mailan, Arrasatek beste emaitzen zain egon beharko du



KANPOAN Arlutzek Abadiñon eta Arrasatekoek Gasteizen jokatuko dute. J.A.

X.U. > ARRASATE

Euskal ligetako azken jardunaldian, Arrasateko eta Aretxabaleko xake taldeek mailari eusteko egingo dute lan. Maila gorenen, bosgarren lekuan dagoen Arlutzek ohorezko kategorian jarraitzeko nahikoa du puntu bat batzen badu. Hala, aretxabaleterrek seigarren postuan dagoen Abadiñoren kontra jokatuko dute. Bizkaitarrek Aretxabalekoekin baino puntu erdi gehiago behar dute ohorezko mailan geratzeko. Hala, ez dirudi bi taldeetako inork behar baino gehiago arriskatu duenik. Dena ondo bidean, Aretxabalek beste urtebetz eutsiko dio maila gorengari. Urte hasieran zailtasun handiagok izango zituztela uste bazu-

ten ere, Arlutzek ondo erantzun dio aurtengo erronkari.

ARRASATEK, ZAILAGO

Lehenengo mailan dago Arrasateko San Andres Xake Taldea, eta Gasteizko Egidazu izango dute asteburuan kontrario. Arrasateko taldea moduan, Egidazu ere jaietsiera postuetan dago, Arrasatek baino puntu erdi gehiagorekin.

Joan den astean 3-1 irabazita, Arrasatek oraindik aukera du Euskal Ligako Lehenengo mailan jarraitzeko. Horretarako, ez da nahikoa izango talde gasteiztarren kontra aldeko emaitza erdies-tearekin, Ruta de Europa eta Barakaldoren arteko zeingehiagok ere ondo zaindu beharko dute-eta. Estu baino estuago egongo da azken jardunaldia.



GOIENKARIA

Bigarren postuan dagoen Hernani hartuko du Aloña Mendik domekan

Zarautzen (51 puntu) nagusitasunari nola edo hala aurre egiten dabilen Hernani (47) izango da domeka arratsaldean Azkoagainen. Joan den astean Aloñakoak (30) izan ziren ibarreko taldeen artean punturen bat harrapatzeko gauza izan ziren bakarrik. Alde horretatik, Mondrak (37) eta UDAk (30) bizkortu egin beharko dute asteburuan etxean. Azkeneko lekuan dagoen Urola (16) izango dute aurrean Gordobilen mutilek; Recioi zuzentzen duen taldeak Anaitasunaren (38) kontra jokatu du.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

- Lehenengo maila**
Real-Mallorca
Domeka. 17:00. Anoeta.
- Preferente maila**
Aloña Mendi-Hernani
Domeka. 16:30. Azkoagainen.
- Mondra-Urola
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
- Aretxabaleta-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Ibarra.
- Lehen erregionala**
Iñitza-Bergara
Zapatua. 16:00. Bikuña.
- Bigarren erregionala. Igoera fasea**
Mariño-Elgeta
Zapatua. 15:30. Irun.
- Antzuola-Intxurre
Zapatua. 17:00. Estala.
- Bigarren erregionala. Kopa txapelketa**
Zestoa-Mondra
Domeka. 16:00. Zubiaurre.
- Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea**
Beti Gazte-Mondra
Zapatua. 15:30. Lesaka.
- Beasain-Aretxabaleta
Domeka. 17:15. Beasain.
- Burumendi-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Mutriku.
- Ohorezko mailako gazteak. Jaietsiera fasea eta Kopa**
Bergara-Ordizia
Zapatua. 16:00. Ipintza.
- Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Arizmendi Aretx.-Allerru
Zapatua. 16:30. Ibarra.
- Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa**
Antzuola-Urki
Zapatua. 14:45. Estala.
- Eibartarrak-Arrasate
Domeka. 15:30. Unbe.
- Bergara-Zestoa
Domeka. 12:00. Ipintza.
- Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Arizmendi Aretx.-Bergara
Domeka. 11:30. Ibarra.
- Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaietsiera fasea**
Aloña Mendi-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Ibarra.
- Arrasate-Beasain
Domeka. 11:00. Atxabalpe.
- Lehen mailako kadeteak. Kopa Txapelketa**
Zestoa-Bergara
Domeka. 11:00. Zubiaurre.
- Ohorezko mailako infantilak. Txapelidunen fasea**
Beasain-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:00. Igartzta.
- Ohorezko mailako infantilak. Jaietsiera fasea eta Kopa**
Urola-Arrasate
Zapatua. 18:00. Zumarraga.
- Lehen mailako infantilak. Igoera fasea**
Herrerako Sport.-Bergara
Zapatua. 11:45. Herrera.
- Infantil txikiak. Kopa**
Arizmendi Aretx.-Urola
Zapatua. 12:00. Ibarra.
- Emakumezkoen Liga.**

Igoera fasea

- Eibartarrak-Mondra
Domeka. 16:30. Unbe.
- BTLS-Tolosa
Zapatua. 18:00. Ipintza.
- Emakumezkoen Kopa**
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Mintxeta.
- Kadete emakumezkoak F11. Txapeldunen liga**
Arizmendi Aretx.-Gasteiz Cup
Zapatua. 11:30. Eskoriatza.
- Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Zarautz.
- Kadete emakumezkoak F8. Kadeteak Kopa.**
Ekintza-Arizmendi Aretx.
Domeka. 10:30. Berio.
- Alebin maila. Txapeldunen fasea**
Arrasate-Lagun Onak
Domeka. 11:00. Atxabalpe.
- Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

- Euskadiko Liga**
Eskoriatza-Izkepot
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.
- Lehenengo maila**
Bar Ignacio H.-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Hondarribia.
- Hirugarren maila**
Martu Kiroi-UDA Mercedes
Zapatua. 11:00. Martutene.
- Gazteak**
Aloña Mendi-Egintza
Zapatua. 12:30. Zubikoa.
- SASKIBALOIA**
- ACB LIGA**
Bruesa-Etosa Alicante.
Domeka. 19:00. Illunbe.
- DKV Joventut-TAU
Domeka. 12:30. Badalona.
- Txapelketa autonomikoa**
Goierri Verkol-Krafft Atlet.
Zapatua. 18:00. Urretxu.
- Gipuzkoako ligako sermiok maila, emakumezkoak**
Aloña Mendi-Cafes Aitona
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
- Easo Loyola-Eskoriatza
Domeka. 12:00. San Inazio.
- Gipuzkoako ligako sermiok maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Bar Iraeta
Zapatua. 19:15. Zubikoa.
- Irun Basket-Candy BKE
Domeka. 12:00. Irun.
- Ointxe Arrasate-Erroibide
Zapatua. 16:00. Iturripe.
- Gipuzkoako ligako junior maila, gizonezkoak**
Krafft-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.
- Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Andraitz
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.
- Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
- Goierri-Ford Mugarri
Domeka. 12:15. Urretxu.
- Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Krafft
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.

ESKUBALOIA

- Euskadiko Senior Maila**
Elgoibar-Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Elgoibar
- Euskadiko txapelketa, Senior neskak**
Verkol Aloña-Ermua
Domeka. 12:00. Zubikoa
- Euskadiko txapelketa, Kadete neskak**
Verkol Aloña-San Adrian
Zapatua. 17:30. Zubikoa
- Lehen territorial maila**
Bergara-Leizaran
Zapatua. 16:15. Labegariaie.
- Arrasate Eskub.-Urnietako
Domeka. 11:30. Iturripe.
- Gipuzkoako Txapelketa Kadete mutilak**
Aloña Mendi-Urrietako
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
- Gatz Museoa-Katilu
Zapatua. 16:00. Musakola.
- Kadete neskak (Udaberri Txapelketa).**
Arrasate-Bera-Bera
Zapatua. 17:30. Musakola.
- PILOTA**
- Pilotari profesionalen jaialdia, Eskuz Binako Txapelketa barruan**
Domeka. 17:00. Zubikoa.
- Galartza V-Goñi III
Berasaluze IX-Lasa III
-
- ?-Begino
Xala-Eulate
-
- Laralde-Auxkin
Uriarte-Arruti

XAKEA

- Euskadiko Ohorezko Maila**
Abadiño-Arlutz
- Euskadiko Lehen Maila**
Egidazu-Arrasate S. Andres
- Lehen Maila**
Arrasate S. Andres- Eibar
- Lehen Mailara igoera fasea**
Easo-Arrasate S. Andres
- Beraun-Bergara
- Bigarren Mailara igoera fasea**
Gros-Arrasate S. Andres.
- TXIRRINDULARITZA**
- Beasaingo kadete mailako lasterketa**
Zapatuan 16:00. Beasainen.
- Eibarko Gazte mailako Lasterketa**
Domekan 10:30. Eibarren

FUTBOLIN TXAPELKETA




Izena emateko azken eguna:
martxoak 11
www.ehmf.com • 943 76 42 31 / 652776051

Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalar) Altsasu: Lurazpi Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor Arrasate: Biona – Iturriotz – Equis – Udala Azpeitia: Korrale – Txarrantza Beasain: Pott Bergara: Agorrosin – Avenida – Biko – Gaztetxea – Mitor Eibar: Balkoi – Hilbehera – Monteka Ermua: Carpediem – Xagua – Zabal Eskoriatza: Aldatz – Naira Etxarri Aranz: Iturrieder Gasteiz: Irauli – Parkesur – Sarginak – Txintxarri Oñati: Arrano – Ongi – Otamendi Ondarru: 34 Pasaia: Kamio Urretxu: Berit – Florida – Gaztetxea

Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk, bere harpidedunen artean zozketatu dituen "Eutsi" filmaren kamiseta eta sarreren irabazleak honakoak dira:



"Eutsi" filmaren 18 kamiseten irabazleak

- Guadalupe Goikolea Zabala (Arrasate)
- David Blazquez Diaz (Oñati)
- Iñaki Aranzabal Zabala (Arrasate)
- Santiago Ruiz Ansotegi (Osintxu)
- Arantzazu Barrutia Mitxelena (Bergara)
- Angel Mari Idiakez Aranburu (Antzuola)
- Arantzazu Garcia Azkoaga (Arrasate)
- Vicente Markuleta (Oñati)
- Peio Olabe Aranburuzabala (Aretxabaleta)
- Maite Uriarte Isaszelaia (Arrasate)
- Joxe Migel Bolivar Egibar (Bergara)
- Iban Barrutia Inza (Bergara)
- Luis Mari Otxoa Arrese (Aretxabaleta)
- Jose Antonio Elexpuru Unzueta (Aretxabaleta)
- J.J Enekotegi Ruiz de Azua (Eskoriatza)
- Miren Iñarra Balerdi (Bergara)
- Iñintz Bengoa (Arrasate)
- Iñaki Larrañaga Alberdi (Bergara)

"Eutsi" filma ikusteko 2 sarrera pertsonako

- Karmen Arabaolaza Alberdi (Arrasate)
- Fernando Calvocheaga Zabaleta (Bergara)
- Josu Biteri Orobengoa (Eskoriatza)
- Bittor Kortabarria Ortueta (Aramaio)
- Marilu Guridi Arregi (Oñati)


Sariak jasotzeko pasa zaitetzte, martxoaren 12tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera (09:00-13:00 / 14:30 - 18:30)

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:
GOIENKARIA
Irizar Jauregia - Barrenkale 33
BERGARA


Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 - 1. solairua - 5. atea (Saiolan Eraikina)
ARRASATE

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA,
urte osoko harpidetza,
35 euroren truke (902 36 38 51)



> **ELKANO BROWNING CREAM**
3.60 arteoan arituko dira zapatuan > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
Webguneen erabilgarritasuna: jakingarriak Interneten > 51

> **JON UNAMUNO**
Jardun elkarteko koordinatzaile eta sentsibilizazio saileko arduraduna da. Horrez gain, spinning eskolak ematen ditu Agorrosinen > 50



IRATI AGIRREAZALDEGI

Errima eta doinuekin jolasean bertso eskoletan

Debagoieneko hainbat herritan daude bertso eskolak, eta haiengana jo dugu, egiten duten lanaren berri izateko

Urtetan urruneko jarduera moduan ikusi dela dioten arren, bertsoarekiko geroz eta zaletasun handiagoa sumatzen dute

JOKIN ETXEBARRIA> ARRASATE

Azkenaldian bertsolari gazte ugari ikusten ari gara taula gainean. Lotsa izpirik gabe beteranoak atzean uzteko gauza direla erakutsi dute askok eta askok. Bertsolari *lifting* prozesua bizi izaten ari den erakusgarri garbiena izan zen azken Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa: hantxe, Amets Arzallusek eta Sustrai Colinak egindako lan bikainak bertsolariaren etorkizuna oparota izango dela erakutsi zigun.

Horretarako dabilta lanean, behinik behin, Euskal Herri osoan bertso eskolak. Eta gurean ere ez dira atzean geratzen. Arrasaten, Aretxabaletan, Aramaion, Bergaran eta Oñatin bertsoan egiten ikasteko aukerarik ez da falta; bertsoarekiko zaletasuna dagoen seinale.

GERO ETA GERTUAGO

Urtetan zehar bertsolari urruneko zerbait izango balitz bezala iku- (44. orrialdean jarraitzen du)

Errima eta doinuekin jolasean bertso-eskoletan

(43. orrialdetik dator)

si izan da, zenbait artistak momentu batean kantuak sortzeko abileziak txundituta utzi eta hori egiteko gauza oso pertsona gutxi izango zirela pentsatuta.

Edozelan ere, hori gutxika-gutxika aldatzen joan da. Bertso-arekiko zaletasuna geroz eta handiagoa da gure herrietan eta Nerea Urrak, Aretxabaletako bertso eskolako arduradunak, dioten moduan, "hori lortzeko eskolek lan handia egin dute; izan ere, eskoletan lantzean, zerbait arrotza izatetik gertuko beste gauza bat izatera pasa dira bertsoak".

HAINBAT BERTSO ESKOLA

Debagoienean bertso harrobia lantzeko ez da eskolarik falta. Arrasaten Patxi Goikolea ibili zen urtetan eskolak ematen. Haren eskoletatik pasa ziren Sarasua anaiak eta Ainhoa Agirreazaldegia, besteak beste. Bada, Goikolearen pausoak jarraituz, herri askotara zabaldu dira eskola horiek, eta, gaur egun, Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Aramaion ere ematen dituzte bertso eskolak.

Eta, hain zuzen ere, herri txikiak, Aramaio, ditu ikasle gehien. Guztira lau talde dituzte, adinka banatuta, 11 urtetik hasi eta 22 urtera arte. Haiek, gainera, badituzte herrian bertan jarraitu ahal izateko ereduak: Manex Agirrek eta Andere Arriolabengoak Arabako Bertsolari



LEHENAK Leintz Bailarako lehen bertso eskolako arduradun eta ikasleak. Ezkerretik hasita: Goikolea, Akixu, Loidi, Iparragirre, Sarasua eta Isarzelai.

GOIENKARIA

Txapelketako finalerdietarako sailkatzea lortu berri dute, eta, gainera, finalerdi horietako bat Aramaioko kultura etxean jokatuko da, martxoaren 25ean.

Era berean, gainontzeko bertso eskoletan ere badabilta doinuak, errimak eta silabak zortziko txiki, handi eta sei puntu-

koaren bitartez lantzen. Hori bai, Bergarako bertso eskolako arduradun Enaitz Alustizak dioten moduan, "izena emateko atak zabalik daude. Izan ere, inoiz ez dira pertsona gehiegi eta ez dute zertan euren mailagatik beldurtu beharrik. Dena ikasi egiten da".

GAZTETXEAN ERE BERTSOLARI

Bertso eskolek gaztetxeak ere hartu dituzte, eta horren adibide garbiena Arrasateko gaztetxea da. Bertan, bederatzi laguneko taldea elkartzen da astero bertsoan egiteko. Azaldu digutenez, euren helburua ez da teknikoki jakin litezkeen gauzak

ikastea, baizik eta bertsoan egitea "ondo edo txarto, baina egitea, eta horrela ondo pasatzea". Lau urte daramatzate horrela eta jarraitzea espero dute. Ateak zabalik dituzte bertara joan nahi duenarentzat, eta, "modu horretan, beharbada, bertsozaletasuna gehiago zabalduko dugu".

Gipuzkoako bertso eskolen III. topaketa egingo dute Oñatin martxoaren 25ean

Oñatiko bertso eskola sasoi onean dagoela adierazi digute bertako arduradunek. Horren adierazle garbiena da eskola horretan 43 bertsolari parte hartzen dutela, lau taldetan banatuta. Gainera, datorren urtean 25 urte beteko dituen bertso eskolak hainbat ospakizun izango ditu egunotan: batetik, martxoaren 25ean Gipuzkoako bertso eskolen III. topaketa egingo dute Oñatin. Bertan, Gipuzkoako bertso eskola guztietako neska-mutilak izango dira, eta, beraz, ez da bertsolari eta euskal girorik faltako Oñatiko kaleetan.

Bestetik, dagoeneko jokoan dago Oñatiko IV. bertsolari txapelketa, eta bertso eskolako partaideek eskoletan ikasitakoak jendaurrean erakusteko modua izango dute. Txapelketa martxoaren 3an hasi zen: Portu tabernan 60 laguneko aurrean jokatutako kanporaketa hartan, Josu Igartua gelditu zen lehen postuan, eta, horrela, martxoaren 31n Arrano tabernan jokatuko den finalerako txartela lortu zuen. Bihar ere, zapatua, beste kanporaketa bat jokatuko da Portu tabernan bertan, 18:00etan. Hain zuzen ere, Julen Romaretzabala, Iñaki Igartua, Iñaki Olalde, Gorka Larrea eta Andoni Goitia ibiliko dira bertsoan.



Iaz Oartzunen egin zen bertso eskolen topaketan parte hartu zuten bertsolari oñatiarrak.

OÑATIKO BERTSO-ESKOLA

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak
eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Amillaga 5-6 pabilioilla - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

MUSIKA > MARTXOAREN 16AN, 17AN ETA 18AN EGONGO DIRA GUREAN KATALUNIARRAK

Arrasate Musikalek Guinardo herriko orkestra gonbidatu du

Hilaren 16an kontzertua emango dute Arrasateko orkestrakoekin batera San Juan parrokian, arratsaldeko zortzietan hasita

JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE

Arrasate Musikalek Guinardo herriko musika eskolarekin elkartruke musikala abiarazi du. Hain zuzen ere, martxoaren 16an, 17an eta 18an Guinardo herriko orkestra Arrasatera etorriko da.

Guinardo herria Bartzelona ondoan dago eta hango orkestra orain dela zortzi urte sortu zuten. Pep Farre da zuzendaria eta 22 lagunek osatzen dute.

Edozelan ere, Arrasatekoa ez da urtean zehar egiten duten elkartruke musikala bakarria izango, Katalunia eta Frantzia zehar ere egin dituzte-eta mota horretako elkartrukeak. Eta, hala, kontzertu ugari eskaini dituzte han eta hemen.

Arrasate Musikaleko orkestra, berriz, 14 eta 20 urte bitarteko ikasleak osatua dago. Urterotero aldaketa asko izan ohi dituen arren, kontzertuak prestatzen ematen du denbora luzean. Zuzendaria Domentx Uzin da eta 23 lagunek osatua dago.



ORKESTRA 23 lagunek osatzen dute Arrasate Musikaleko orkestra.

ARRASATE MUSIKAL

KONTZERTUA MARTXOAREN 16AN
Kataluniarrek bisitan etortzeko gonbidapena onartu dutela kontzertuan hartuta, kontzertu bat prestatu dute bi orkestrak martxoaren

16rako. Arrasateko San Juan parrokian joko dute, arratsaldeko zortzietan hasita.

Kontzertua Arrasate Musikaleko orkestrakoekin hasiko dute.

Lau pieza joko dituzte eta horren ostean Guinardoko orkestrakoekin sei pieza joko dituzte. Kontzertuari amaiera emateko bi orkestrak batera arituko dira.

MUSIKA

Ibarreko bi talde 'Eutsi!' filmaren diskoan

Gose taldeak Evaristorekin batera egindako 'Eutsi!' da filmeko kantu nagusia

J.E. > ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zen *Eutsi!* filmaren harira, Oihuka diskoetxeak disko bat ateratu berri du filmean agertzen diren kantuekin.

Gaur eguerdiko 12etan izango da aurkezpena, Bilboko Elkar Megadendan, eta hantxe izango dira Alberto Gorritiberea filmeko zuzendaria eta Gose eta Potemkin taldeetako kideak. Izan ere, Ibarreko bi talde horiek dira filmean agertzen diren kantuen egileak.

GOSE ETA EVARISTO

Gose taldeak Evaristorekin batera egindako *Eutsi!* da filmeko kantu nagusia, eta, horretaz gain, Gatillazo taldearen abesti baten bertsio bat ere egin dute. Potemkin talde onatiarra filmean ere agertzen da. Haiek Zarama taldearen *Dena ongi dabil* kantaren moldaketa egin dute.

Hiru kantu horiez gain, diskoak beste 12 abesti izango ditu, eta bertan, besteak beste, Kortatu, Barricada, Ruper Ordorika entzun ahal izango ditugu.

MUSIKA > BI KONTZERTU ASTEBURUAN

Zapatuan jazz elektronikoak beteko da 3.60 aretoa

Gaur, Baga Biga jaia egongo da eta Sei Urte, Noizean Behin eta Bidebat taldeek joko dute

J.E. > ARRASATE

Zapatuan jazz musikaren zaleek musika horretaz gozatzeko aukera dute Arrasaten. 3.60 aretoan, Elkano Browning Cream eta Cherry Boppes taldeek joko dute gaueko 11etan hasita. Sarrera aurrez erosita 10 euro da; bestela, leihatilan 12 euro. Mikel Aspiroz donostiarrak bideratutako proiektu berria da Elkano Browning Cream taldea. Hiru kidek osatutako talde horrek jazz elektronikarekin nahasten dute. Zapatuan, Shanghain (Txina), Orem-en (AEB) eta Donostian

grabatu duten diskoak abestiak joko dituzte.

Horrekin, baina, ez da jazz gaua amaituko. Izan ere, Elkano Browning Cream taldeaz gain Bilboko Cherry Boppers taldeak jazz gehiago eramango du, James Brown-en estilora.

GAUR, BAGA BIGA JAIA

Baga Biga diskoetxeak jaia eskainiko du gaur, 22:30ean, 3.60 aretoan baita. Jai honen barruan, Sei Urte, Noizean Behin eta Bidebat taldeek joko dute. Sarrerak 6 euro balio du.



ELKANO BROWNING CREAM Mikel Aspiroz, Matt Harding eta Frank Mategarik osatzen dute taldea.

GOIENKARIA

hildakoak

- **Cornelia Iriarte Astola.** Aramaion, otsailaren 24an. 92 urte.
- **Luis Fernando Garai Ibabe.** Bergaran, otsailaren 25ean. 45 urte.
- **M. Carmen Goenaga Askasibar.** Bergaran, otsailaren 25ean. 89 urte.
- **Lazaro Elortza Barrena.** Antzuolan, otsailaren 25ean. 93 urte.
- **Juan Garro Abarrategi.** Eskoriatzan, otsailaren 27an. 87 urte.
- **Maria Angeles Bengoa Abarrategi.** Arrasaten, otsailaren 27an. 71 urte.
- **Justo Gonzalez Rodriguez.** Arrasaten, otsailaren 27an. 86 urte.ç
- **Josefina Lazpiur Elkoro.** Bergaran, otsailaren 27an. 90 urte.
- **Angel Encinas Jose.** Arrasaten, otsailaren 28an. 48 urte.
- **Victoria Jauregi Pagaldai.** Arrasaten, otsailaren 28an. 83 urte.
- **Benigno Martin Fernandez.** Arrasaten, martxoaren 2an. 72 urte.
- **Ines Olea Urkijo.** Arrasaten, martxoaren 2an. 79 urte.
- **Maria Alvarez Pazos.** Aretxabaletan, martxoaren 3an. 61 urte.
- **Ambrosio Fernandez Recio.** Arrasaten, martxoaren 3an. 79 urte.
- **Maria Irizar Guridi.** Arrasaten, martxoaren 4an. 92 urte.
- **Victoriano Tejado Rodriguez.** Arrasaten, martxoaren 4an. 92 urte.
- **Matilde Juldain Laspiur.** Arrasaten, martxoaren 5ean. 88 urte.
- **Felix Carlos Uranga Iraegi.** Arrasaten, martxoaren 5ean. 65 urte.
- **Isidro Sanchez Nova.** Arrasaten, martxoaren 7an. 79 urte.

URTEURRENA

Roman Elkoro-Irribelazpiur

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 11:00etan eta 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Josefina Lazpiur Elkoro

Bergaran hil zen 2007ko otsailaren 27an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2007ko martxoaren 9an.

VIII. URTEURRENA

Juan Jose Garmendia Berezibar

Yanyo

VIII. urteurreneko meza
*Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.*



Zure lagunak.
Arrasaten, 2007ko martxoaren 9an.


ESKER ONA

Felix Uranga Iraegi

Carlos

Gasteizen hil zen 2007ko martxoaren 5ean, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko martxoaren 9an.

URTEURRENA

Asentzio Gabilondo Albisua

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 11:00n, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Maiztegi Ariznabarreta

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Elisabete Azkarate Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 11:50ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Edo zatoz ordezkari bat, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

URTEURRENA

Tomas Lasa Diaz de Mendibil

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Margarita Elorza Azkoaga



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.



bila-bila 7



hitz gezidunak

	Hoben	Pisua	Abestia
	Hegoa	Gezurrak esaten ditu	Egile atzizkia
	Adore		
	Erregai mota		
Sudurpeko ile multzo	Palestinako hiria		Kontso-nantea
Aurkitzen saiatu	Asiako estatua		Zangoa
		Bukaeraren hasiera	
		Musu truk	
* Irudiko animalia			
Arraun egin		Etorri adj-tzaren erroa	Otx!
		5	
Harrapa ezak!		Nafarroako herria	
Gorputz-adar		Oxigenoa	
		Anaia, hitz elkartzeetan	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Hortzorea

Beti berandu iristen zen bulegora. Arduraduna bere onetik atera eta iritsi orduko zuzendaritza bulegora azal zedin agindu zuen. Heldutakoan:

- Badakit puntualitatearekiko duzun harremana oso pertsonala dela, eta orduan iritsi baino lehenago, nahiago izaten duzula auto barruan bueltaka ibili.

- Hori egia da, baina gaurkoa desberdina izan da; istripu bat izan dut. Komunean hortzetako pastaren tutua zapaldu dut.

- Eta hori dela eta iritsi al zara gaur ere ordubate berandu?


- Ez! Baina ateratako pasta atzera tutuan sartzen saiatu naiz!

sudokua

		6						2
8	3	1						
				6	9	7		
		8			4			
3	2		9		8	6		
	4			3				
5	7	4						
				1	2	3		
1					6			4

hieroglifikoa

Lurra goldatzeko tresna?




hizki salda

5 arrain


M	T	S	I	A	E	G	U	I
A	E	X	I	E	Y	R	U	M
H	E	G	A	L	U	Z	E	A
A	D	Z	U	M	O	U	L	R
N	R	T	K	K	E	M	O	R
T	U	T	I	A	E	R	I	A
X	J	A	R	B	I	B	N	Z
O	S	F	E	K	O	L	A	O
A	H	A	S	T	E	G	U	I

soluzioak



I	V	A	N	A	O	S	S	E	B
A	N	A	V	I	V	O	T	O	B
R	O	T	A	G	O	B			
A	E	D	R	S	A	B			
B	U	B	U	A	T	L	A	B	
T	A	Z	A	G	A	B			
N	E	M	E	K	E	M			
A	L	A	L	A	H				
K	Z	B							

bono fotoa



Usako izena ezaguna bilakatu da bainuleku bikain bezala. Baina zein errektan ari da bainatzen Usako presan sartzen dena?

Argazkia > Joxeba Castañeda

Galdera > Iñigo Biain



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Donuts
+ 2 doan

1,65 € 275 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Begoña Urkizurendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Bergarako udaletxean.

4	5	9	7	3	8	6	2	1
2	2	1	2	5	6	8	9	9
3	7	3	7	2	1	8	9	3
9	1	8	9	4	6	2	1	8
5	2	1	3	7	2	5	8	9
8	9	4	6	1	3	7	2	5
1	6	1	8	9	4	6	2	1
3	7	6	1	8	2	5	4	9
4	1	5	2	3	6	9	7	8
6	2	8	3	1	7	9	5	4
2	8	3	1	7	9	5	4	6
9	7	6	5	4	8	3	1	2

Hieroglifikoa: Laita.

I	U	U	U	U	U	U	U	U	U
O	V	A	N	A	O	S	S	E	B
Z	A	R	B	I	B	N	Z		
A	V	A	N	A	O	S	S	E	B
R	O	T	A	G	O	B			
A	E	D	R	S	A	B			
B	U	B	U	A	T	L	A	B	
T	A	Z	A	G	A	B			
N	E	M	E	K	E	M			
A	L	A	L	A	H				
K	Z	B							

Ahorronomina | EUSKADIKO KUTXA



LEHENENGO URTEAN

NOMINA HELBIDERATUTA
DAUKATEN BEZEROENTZAT SOILIK

nominamulti

Zure hileko aurrezkiak arduraz zaintzen dituen aurrezki-kontua

Gutxienezko diru-sarrera: 30€ • Gehienezkoa: 300€

Eskaintza lehenengo 20.000 kontuentzat izango da • Kuota hilero ordainduko da Ahorronomina kontuan helbideratuta eta bezeroak edonoiz aldatu ahal izango du • Kontua baliogabetzeagatik ez da zigorrik edo komisiorik ezarriko • Interesak urtero likidatuko dira • Sartu gabeko kuotek ez dute komisiorik edo zigorrik eragingo • Bezero bakoitzeko kontu bat izango da gehienez • Ez dira onartzen ordainagiriaren helbideratzeak

Jon Unamuno > Jarduneko arduraduna

"Jendearekin lan egiteak haren beharretara moldatu beharra dakar"

Jon Unamuno bergararra Jarduneko koordinatzailea eta sentsibilizazio saileko arduraduna da. Haren lana bileretara joan eta alde ezberdinen arteko zubi lana egitea izaten da. Baina Unamunoren egunak luzeak izaten dira; izan ere, lanaz gain, spinning eskolak ematen ditu Agorrosinen eta orain, kirol enpresak kudeatzeko ikastaro bat egiten ari da.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Jon Unamunok ondo ezagutzen du gure erredakzioa. Hala, Jardunen eguneroko lana bukatzean egin dugu hitzordua GOIENKARIAko egoitzan. Ordurako iritsi da Irizar jau-regira Unamuno; lehen ez bezala, orain hura da elkarrizketatua.

Kazetaritza behin betiko utzi duzu?

Ez, auskalo. Bizitzan gauza askotan ibili naiz eta pentsatzen dut aurrerantzean ere gauza askotan ibiliko naizela. Poliki-poliki, baina, nire gustuak bideratu eta gustuko dudana aurkitu dut. Orain, gainera, kirol enpresak kudeatzeko ikastaro bat egiten ari naiz. Eta horixe egin nahiko nuke etorkizunean; kirolarekin zerikusia duen zerbaitean lan egin nahiko nuke. Betidanik gustatu zait kirola; *Asteleheneko Goienkari* n kazetari lanetan aritu nintzen ere, kiroleko gaiak jorratzen nituen.

Mikrofonoaren beste aldean egotea, orain zauden tokian, erosoagoa izango da.

Ez, ez dut uste. Hori jendearen arabera izaten da. Batzuek erantzuteko izugarriko erraztasuna dute; beste batzuei, berriz, mingainari tiraka ibili beharra dago... Kazetari lanean zabiltzanean, idatzi egin behar duzu; beraz, elkarrizketatuak ahalik eta hoberen erantzutea komeni zaizu. Elkarrizketatua norbera denean, berriz, batzuetan galderak zailak izaten dira, eta hori ez da eroso izaten.

Zu, berez, heziketa fisikoko maisua zera. Betidanik izan duzu irakasteko grina hori?

Bere garaian, bizikletan ibiltzen nintzen eta kirola oso gustuko nuen. Hori dela-eta, Eskoriatzan TAFYD modulua ikasi nuen; gero, Gasteizera joan nintzen hezkuntza ikastera; SHEE (IVEF) ikasten saiatu nintzen, baina ez nuen gutxieneko maila gainditu. Orduan, bigarren aukera moduan Eskoriatzara etorri nintzen Hizkuntzen Psikopedagogia ikastera.

Horren bitartez, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan hasi nintzen lanean, bekadun. Gero, GOIENKARIA eta Jardun eza-gutu ditut.

Eta zer moduzko ikaslea zinen zu txikitzen?

Bihurri samurra nintzen; pazientzia txikikoa, adi egoten ez zekiten horietakoa nintzen. Beti



AMAIA ZALDUA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Heziketa fisikoan irakasle ikasketak eta Hizkuntzen Psikopedagogia. **Zaletasunak?** Bi zaletasun handi ditut: kirola eta musika. **Ikusi duzun azken filma?** *El pico*, Eloy de la Iglesiaarena. **Baduzu mania-**

rik? Ez dut uste, baina beharbada izango ditut. **Gorrotatzen duzun zerbait?** Gezurra. **Ametsetako bidaia bat?** Hainbeste ditut; agian, Los Angeles (AEB). **Nor miresten duzu?** Gurasoak. **Debagoieneko toki gustukoena?** Gorla.

nenbilen lagunei zirikatzen, baina ondo pasatzen nuen. Lehen ere ipurtarina nintzen eta orain ere halakoa naiz.

Orain, spinning eskolekin aseko duzu irakasle izateko grina hori.

Bai, bizikleta gustatzen zait eta musika ere bai; beraz, ondo pasatzen dut eskolak ematen. Lau urte daramatzat, eta, oraingoz, jarraitzeko asmoa daukat.

Zer da gogorragoa: elkarrizketatu bati zuk nahi diozuna ateratzea ala bizikleta gainean jendea mugiaraztea?

Pertsonaren egoerak asko esaten du bai batean eta bai bestean; beraz, pertsonaren arabera izaten da hori. Pertsona bera oso egoera ezberdinean egon daiteke momentu baten edo bestean. Jendearekin lan egiten denean hori gertatzen da; izan ere, jendearen egoeretara moldatu beharra egoten da.

Musika gustuko duzu; ze musika estilo aukeratzen duzu eskolak emateko?

Niri gehien rock-and-rola gustatzen zait, baina spinning eskolentarako, modan dauden abestiak ere aukeratzen ditut. Aldizkarietan begiratzen dut edo ikasleek esaten didatenaren arabera aukeratzen ditut abestiak.

Gainera, Jardunen ere ari zara. Zer egiten duzu?

Orain koordinatzaile eta sentsibilizazio sailaren arduraduna naiz. Gehienbat bileretan egoten naiz, eta guk egiten ditugun proiektuak aurrera eramaten saiatzen naiz. Bergarako Udalarekin eta langileekin dut harremana; beraz, bi aldeen arteko zubi lana egitea egokitzen zait askotan.

Zer moduzko euskara erabiltzen dute Bergarako gazteek?

Beti dago gehiago erabiltzeko aukera. Adinaren arabera izaten da; 16 urte bitartekoek, adibidez, gazteleraz egiten dute asko. Moda kontua izango da beharbada; gazteek nagusi izan gura dute eta gazteleraz berba egitea nagusi sentitzeko modu bat izan daiteke. Baina behin urteak aurrera joan ahala, berriro ere euskara erabiltzeko ohitura hartzen dugu. Gure koadrilan, adibidez, gero eta gehiagotan izaten ditugu euskararen gaineko eztabaidak: nola esaten da hau, eta beste hura...



RICARDO GIL Hilaren 15ean, eguena, Noaingo CEsen (Software Bikaintasunaren Zentroa), 19:00etan.

MONIKA LEKUNBERRI

INTERNET > WEBGUNE GARAPENA

Erabilgarritasuna, web egileek kontuan hartu behar duten kontzeptua

Erabilgarritasunak gero eta gehiago kezkatzen ditu webgune egileak eta bisitariak, eta horren gainera oinarritzeko jakingarriak Interneten aurki daitezke

du ez bakarrik irakurtzeko erraztasuna, dotoretasuna... baizik eta, batez ere, erabilzaileak behar duena aurkitzeko eta helburuak betetzeko ematen duen aukera, denbora eta ahalegin jakin batekin. Zenbat eta gutxiago pentsarazi, orduan eta erabilgarriagoa da webgune bat.

Gai horren gainean hitzaldia egingo du Ricardo Gil adituak hilaren 15ean, eguena, Noaingo CEsen (Software Bikaintasunaren Zentroa), 19:00etan.

OINARRIZKO AHOLKUAK

Hitzaldira joan barik, erabilgarritasunaren gainera oinarri batzuk izan behar dituzte edozein motatako webgunea egiten dutenek. Horiek ikasteko aukera dago Interneten bertan, adibidez, www.w3c.com webgunean.

Hala, besteak beste, ezkerretik eskumara eta goitik behera ira-

kurtzeko moduan egon behar dute elementuek; aukeran, gauzen izen arruntena erabili; logotipoa goian, ezkerrean, ipini behar da; elementuak ezkerreko errail baten, goiko fitxatan edo erdiko kategoriatan jarri behar dira; eta zerrendak egin behar badira, gehienez zazpi elementu jarri.

Horrez gain, zuri-beltz kontrastea ondoen irakurtzen da; letren tamainak, marginak, lerroen zabalerak... eragina dute; eta mugitu egiten diren elementuek nahasmena sortzen diote bisitariari.

ESTATUKO EGUNKARIENAK

Estatuko egunkarien webguneen ikerketa eginda, 2003an, Oitk 10era, nota altuena 7a izan zen. *El Pais* 4. geratu zen (6,57); *El Mundo*, 5. (6,39); *La Vanguardia*, 10. (5,91), eta *Diario de Navarra*, Euskal Herriko lehena, 16. (4,5).

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Webguneen erabilgarritasunaz gero eta gehiago arduratzen dira, bai webmasterrak, bai erabilzaileak ere. Hala ere, denok ez dute argi zer den erabilgarritasuna. Oso sinplea da: ordenagailuen eta Internet bidezko komunikazioan, webguneetan ibiltzeko samurtasun neurria adierazten du. Horrek esan nahi

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Astean barrena Olympus etxeak bi DSLR kamera aurkeztu ditu: Evolt E-410 eta E-510

Olympus etxeak bi DSLR kamera kaleratu ditu. E-410 eta E-510 modelook, biak aurreko E-500aren eboluzioa dira. Bi modeloek 10 megapixe-ko LiveMOS sentsorea dute, 2,5 hazbeteko pantaila, ISO 100/1600, eta hiru puntuko autofokatzeko sistema. Ezberdintasunez, E-510 modelook irudi estabilizadorea eta 150 klikada gehiago ditu, eta, noski, prezioan igartzen da; E-410 modelook 800 euro balio du eta E-510 modelook 100 euro gehiago.



E-510 modelook irudi estabilizadorea eta 150 klikada gehiago ditu, eta 900 euro balio du.

> DISKO GOGORRA

Wi-fi eta bluetooth dituen disko gogor eramangarria, eta poltsikoko telefonoentzako prestatuta

Seagate etxearen disko gogor eramangarri berriak wi-fi 802.11 b/g eta bluetooth 2.0 darabil. Poltsikoko telefonoentzako memoria gehigarria izateko pentsatua dago. Beste edozein aparailu bezala konektatzen da sakelakoarekin. Bluetootha aktibatu behar da bi gailuetan eta behin biak konektatutakoan erabiltzen hasteko moduan dago.

Maiatza eta abuztua bitartean eskuragarri egongo da 10 eta 20 GBko edukieran.



Dave: poltsikokoendako memoria gehigarria izateko pentsatuta dago.

> MP4 IRAKURGAILUA


Bideoak ikusi eta entzuteaz gain, wi-fi bidez Interneten nabigatzeko aukera ere ematen du

Archos etxeak kaleratu du MP4 formatuak ikusi eta entzuteko aparailu berria. Archos 704 Wi-Fi etxe bereko 604 modelooren hurrengoa da, baina haririk gabeko konexioarekin.

80 gigako disko gogorra dauka. MP4, WMV, AVI, MP3, WMA eta AAC formatuko artxiboak irakur ditzake.

Internetera wi-fi erabiliz konektatzen da, Opera nabigatzailea eta PDF irakurgailua integratuta ditu. Zazpi hazbete eta 800x480 pixeleko bereizmena dituen pantaila dauka.

Prezioa: 419 euro.



Formatu askotariko fitxategiak 80GBko disko gogorrean gorde daitezke.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-asegurak
/BZ-sistemas

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia

/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/jracing
/joseba
/korozaleta
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopicas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/richimaier
/tabernaberri

/udalaitz
/urdeki
/urbietia
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejetetxea.com
www.ehmf.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net



Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Gal ezazu ordubete eta egun guztia pasako duzu bere bila.

Richard Wathely



www.bastidasukaldeak.com

Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058

 bastidasukaldeak



ANTZERKIA

“Emakumeak izarapean”

Tanttaka teatroa, Lurdes Bañuelos eta Mireia Gabilondorena

Non:

Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:

Martxoaren 18an, domekan, 19:30ean.



HAURRENTZAKO ANTZERKIA

“Txanogorritxoren ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa Glu Glu-ren eskutik”

Non:

Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:

Martxoaren 10ean, zapatuan, 17:00etan.



Martxoak 9-16

EDU MENDIBIL

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ELGETA

> 'Picasso 1937, Historia del Guernica' antzezlan gaur, Espaloia aretoan

XX. mendearren sinbolo eta ikono bihurtu zen margolanaren inguruko gorabeherak jasotzen ditu Maskaradaren ikuskizunak. Emanaldia gaur, egubakoitz, 22:30ean. Sarrerak, 10 euro (bazkide-entako) eta 12 eurotan salgai.

Musika



ARRASATE

> Eskorbuto taldeko Josu Exposito zenaren oroimenezko kontzertua

Josu Distorsion y los del Puente Romano (Salamanca), Subversion X (Santurtzi), Klinexa eta Kaka Arrastua Kumunzuluan (Oñati) eta Karretera Agropekuaria (Barakaldo) taldeekin. Gaztetxean, gaur, 20:00etan. Sarrera: 4 euro.

Erakusketa



BERGARA

> Daniel Txopitea: atzera begirako erakusketa Aroztegi aretoan

Daniel Txopitea (1950-1997) Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen 1970eko hamarkadan eta Oteitzaren inguruko mugimenduari lotutako ibilbidea izan zuen. Erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik.

dute Kulturaten

Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviere arrasatearrek taldeko erakusketa egingo dute.

Martxoaren 16tik aurrera, Kulturaten.

Lehiaketak

OÑATI

> Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketa bihar

Txapelketaren bigarren kanporaketa bihar, zapatua. Hirugarren eta azken kanporaketa hilaren 17an jokatu da.

Emanaldiok Portu tabernan izango dira, 18:00etan.

BERGARA

> Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia

Berto eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira. Lanak entregatzeko epea apirilaren 20ra arte zabalik.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zerbakian.

Ospakizunak

ARRASATE

> Emakume baserritar eta artisauen azoka

Zapatuan, martxoaren 10ean, Seber Altuben, 09:30etik 14:00etara.

Ikastaroak

ARRASATE

> Taila ikastaroa emango du tailagileen elkarteak

Arrasateko Tailagileen Elkartek ikastaro berria jarri du martxoan. Hasierako maila da eta elkarteren egoitzan –Erguin kalea 19, behea– emango dituzte eskolak. Izena emateko deitu gau aldera 645 70 59 13/943 79 40 79 zerbakietara (Felix) edo 943 79 77 57 zerbakira (Jose Mari). Izenematea zabalik dago.

BERGARA

> Break dance ikastaroa, gazteei zuzenduta

Agorrosin Ekintza Gunean break dance ikastaroa egingo dute domekan, hilaren 11n, 17:00etan.

Izenematea doan, domekan bertan Agorrosinen.

BERGARA

> Euskal dantzen ikastaroak maiatzera bitartean

Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroak abian jarri dituzte. Izenematea Jarduneko bulegoan (Errotalden) edo 943 76 36 61 telefono zerbakian.

Antzerkia

ARRASATE

> 'Emakumeak izarapean', martxoaren 18an

Tantaka taldearen antzezlan sexuz mintzatzeko ikuskizuna da, emakumeen sexu bizimoduaz hitz egiteko aitzakia.

Martxoaren 18an, Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean.

Musika

ARRASATE

> Baga Biga jaia eta Elkano Browning Cream 3.60 aretoan

Gaur, egubakoitz, Baga Biga jaia, Sei Urte, Noizean Behin eta Bide Bat taldeekin, 22:30ean. Bihar, zapatua, Elkano Browning Cream eta Cherry Boppers, 23:00etan.

Gaurko kontzerturako sarrerak 6 eurotan salgai. Zapatuko emanaldirako, 10 eta 12 eurotan.

ARRASATE

> Joaquin Sabinaren kantuen bertsoak

Musikari madrildarraren abesti ezagunen bertsoak entzuteko aukera.

Martxoaren 9an, 23:00etan, Gure Leku tabernan.

BERGARA

> Disko jartzaileen saioak Ziripot tabernan

DJ Pinza eta DJ Zana gaur, egubakoitz. Bihar, zapatua, *Elektroparty*, KRCren eskutik.

Gaurko eta biharko saioak, 23:00etatik aurrera.

BERGARA

> Kogollo Party Crew kolekti-boaren DJ festa

Kogollo Party Crew kolekti-boaren 2. urteurreneko festa,

Bilboko Elektronische eta Donostiako Meataka kolektiboarekin batera. Alemaniak eta Ingalaterratik etorritako beste hainbat DJ arituko dira.

Zapatuan, martxoaren 10ean, gauerdian hasita. 12 euro.

BERGARA

> Los Delinquentes eta Saxon Jam aretoan

Los Delinquentes martxoaren 23an eta Saxon eta Masterplan martxoaren 24an.

Sarrerak salgai Jam aretoan eta ohiko tokietan.

Hitzaldiak

BERGARA

> 'Zinema eta historiaren arteko harremanak' hitzaldi sorta

Juan Madariaga historia irakasleak *Los años de la autoridad y el orden: los fascis-*

mos izenburuko hitzaldia egingo du.

Martxoaren 21ean, Miguel Altuna institutuan, 18:30ean.

OÑATI

> Eztabaida: "Gaztelekuri erabilera eman behar zaio?"

Eztabaidaren ondoren, Marx anaien film baten emanaldia izango da.

Hilaren 11n, domeka, 19:00etan, Portu tabernan.

Erakusketak

ARRASATE

> Pintura erakusketa Harresi aretoan

Gloria Uriarteren, Angelines Ruiz eta Francisco Mateos *Txikuri*-ren margolanak ikusgai.

Martxoaren 25era arte, aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta

jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ESKORRIATZA

> 'Buztina eta sua Eskoriatzan' delako erakusketa

Euskal Herriko etxeetan egunero erabili izan ohi diren zeramika piezek osatzen dute erakusketa.

Martxoaren 11ra arte, Ibarraundi museoan.

ESKORRIATZA

> Jose Mari Zenitagoiaren margo erakusketa

Eskoriatzako margolariak formatu handiko sei margo erakutsiko ditu *Aurpegi indartsuak* izeneko erakusketa. Atzo ezker dago zabalik erakusketa.

Inkernu tabernan martxo bukaera arte.

ARRASATE

> Taldeko erakusketa zabalduko

PROPOSAMENA

ARRASATE

> 'Txanogorritxo' haurrentzako antzerkia zapatuan

Glu-Glu taldearen eskutik Txanogorritxoren ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa datorkigu Arrasatera. Hain zuzen ere, ilobei ipuinak kontatzen dizkieten aiton-amonak omendu nahi izan dituzte Glu-Glu taldeko kideek. Txanogorritxoren ipuin ezaguna antzezlan goxo eta argia bihurtu dute aktoreek, irudi ikusgarrien eta musikaren laguntzaz. Biharko emanaldia euskaraz izango da.

Zapatuan, martxoaren 10ean, 17:00etan, Amaia antzokian.



Karapaixo garaia heldu da

BESOETAKOA Ama pontekoek eta aita pontekoek besoetakoei opari egiten dizkiete karapaixoak Garizuman

BERRITASUNAK Karapaixo batzuetan, arrautzak jarri beharrea, sagarrak jartzen dituzte okinek

IZENAK Gure ibarrean hainbat izen aurkituko ditugu karapaixoarendako: garipaua eta mokotsa, besteak beste

JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE
Garizuma garaia da, eta gure ibarreko edozein etxetan sartuz gero erraza da karapaixoa mahai gainean aurkitzea. Debagoiengan, ama pontekoek eta aita pontekoek urteak daramatzate besoetakoei txorixoz eta arrautza egosiz betetako baserriko ogi hori erregalaten. Aratusteetan hasi eta Aste Santura bitartean opari egiten da karapaixoa, eta, ohiturak dioenaren arabera, besoetakoa ezkondu bitartean egin beharreko erregalua da.

Arrasateko Bedoña auzoko Urkimendi baserrikoek ere ondo ezagutzen dute gure ibarreko tradizio hori. Haiek dira gure etxek karapaixoz hornitzen dituztenetako batzuk. Baserri hartako Joseba Aranak adierazi digunez, Aratusteak pasa zirenetik burubelari dabilta karapaixoak egiten: "Martxoko lau aste hauek dira gogorrenak. Egunean 60 karapaixo inguru egitera heltzen gara". Aste Santura bitartean 700etik gora egingo dituzte, ziu-rrenik, eta gehienak enkarguz.

Batzuen ustez karapaixoarena tradizio erromanikoa bada ere, ez dago oraindik ziurtatuta ohitura horren jatorria zein den. Kontuak kontu, batez ere gure ibarrera mugatuta dagoen usadio batez ari gara berba egiten.

IZEN ASKO, ETA BERRIKUNTZAK
Karapaixoak aldaketa batzuk ere izan ditu eta gure garaietara ondo baino hobeto moldatu da. Urkimendiko Joseba Aranak dioskenez, "tipikoak txorizo bakarra eta hiru arrautza zituen, txorizokak nahiko garestiak ziren-eta. Gaur egun, berriz, gehien saltzen dena hiru arrautza eta hiru txorizokoa dugu". Horretaz gainera, badaude beste berritasun batzuk ere: bizkotxoak eta txokolatzeko arrautzak egindakoa, arrautzak beharrea sagarrak dituztenak, eta abar.

Edozelan ere, mota askotari-koak bakarrik ez, hainbat izen ere aurki ditzakegu karapaixoa izendatzeko Debagoiengan: garipaua Elgetan eta mokotsa Aramaion, besteak beste.



AZOKA PLAZAN Urkimendi baserrikoek Arrasateko azoka plazan saltzen dituzte karapaixoak.

JOKIN ETXEBARRIA

ahobero

"Ez da Gobernu batek ETaren xantaiaren aurrean amore ematen duen lehen aldia"

Rodriguez Zapatero > Espainiako Gobernuko presidentea

De Juana-ren auziak PP eta PSO-Eren artean ekarri duen hika-mikak beste pausu bat ematera eramán du Espainiako Gobernuko presidentea eta ezkutuan zeuden datu batzuk atera ditu Senatuan. Zapateroren esanetan PPK 306 preso askatu zituen behar zena baino lehenago.

iturri onetik

Kilometroak 07ko zirkuitua, batik bat urbanoa eta laua izango da

Kilometroak 07ko zirkuitua urbanoa eta laua izango da batik bat. Bergarako hirigunea eta natura gunea hartuko ditu. Zati handi batean herri barruko bidegorritik igaroko da eta guztiz asfaltatua edo hormigonatua egongo da. 6.510 metro izango ditu eta 6 gune. Aranzadi Ikastolaren patioan, Seminarioan, izango du hasiera eta amaiera. Ez da goiko trenbide-tik igaroko. Datorren astean aurkeztuko dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Klima aldaketa

Otsailean zuhaitz bat loratzen bada, bi aste segidan egoten bada ateri, edo hego haizeak termometroak goian jarri ezker, berehala ateratzen dugu klima aldaketaren kontua.

Horrek badu irakurketa baikor bat: denboraren eta esanaren poderioz planetaren izorratzaileak –lehen mundutarrak– jabetzen ari gara gure axolagabekeriaren ondorioez. Ez da txarra. Gehiago dira, ordea, adierazle ezkorrak: hedabideen fribolitatea, gaiak izenburu handitan bi egunez jarri, eta hirugarrenean ahazteko; agintarien ganora eskasa, hiritarroi kontzientziako karga sortu eta benetako neurri estrukturalik ez baitute hartzen; eta gutariko bakoitzaren mendekotasuna, nahi dutenaz eta nahi dutenean kezkatzen gara, eragindako haizeak nondik jotzen duen.

ai, ene!



Kondoiak erraz eta azkar jartzeko gailua

Kondoa ipintzeko orduan urduri jartzen direnendako soluzioa bilatu dute Hego Afrikako diseinu enpresa batean.

<http://www.boingboing.net>

Babes eta erosotasun handiagoa



Kanporako saretak

Dekorazio aukera guztiak



Estoreak, errezelak eta saretak

Eguzki babesa



Toldoak

VELUX®

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51